

Ernest Alkat

**Ene ezkilaren dangak
(Bertsu-bilduma)**

Auspoa Liburutegia

307

ALKHAT, Ernest

Ene ezkilaren dangak (bertsu-bilduma) / Ernest Alkat ; [hitzaurrea, Emile Larre]. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2007.

326 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 307)

Aurkibidea

LG SS 1513-2007. - ISBN 978-84-7907-577-4

I. Larre, Emile, pr. II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera, ed. III. Título. IV. Serie.

821.361-1"19"

821.361-1"20"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-577-4

Legezko Gordailua: S.S. 1513-2007

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Ernest Alkat

**Ene ezkilaren dangak
(Bertsu-bilduma)**



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastián, 2007

Laharragako bertsularia

Aitzin solas hau galdegin didazu, Aita Zabala. Ez nuen bietan erraite beharrik. Ene biziaren parte on bat ez dutea egi-ten hain aspalditik Ernest eta hunekilako batzuek? Ea nutea nihaur ere gatzetzen betitik maite izan dutan mundu hortako-ek? Denborak ditu Alkaten izena ikasi nuela Iholdi alde hor-tarik aitzinekoekin: jende kantaria, alegera, maiz besta giroe-tan aurkitzen zena eta talendutsua, holaxet ezagutuak nituen beti familia horren famak. Nihaur ere eltze guzietako zali eus-kal mundu huntan, ez nakike xuxen noratako aurkitu nuen gazte hori, bainan berdin du. *Herria* kaseta ere hor izan da gure lokarrietarik bat. Lafitte jaun kalonjearen eskutik nihauk hartua nuena, bertsua eta euskal kantua beti maite ukan ditue-na hau ere gu baino lehenagotik. Oroitzen naiz hor nuela nihauk ikasi, hobeki erraiteko *Herria*-ren aitzineko *Eskualdu-nan*, ene otto zenaren ganberan aurkiturik, gazte-gazte nintza-neko kantu bat, Perkain eta Azantzarena, paper horitu eta histu batean, gero kantatzeko.

Ez nakien ez denbora hartan Alkaten kantu bat, edo bede-ren bertsu batzu ukanen nituela nihauk *Herria* kasetaren irar-kolan, edo berdin Joanes Arrosagaray edo J. P. Mendibururen batzu ere. Bainan nik, Lafittek eskolatua eta beraz ene lanen apaintzen hezia, banuen ere zerbait urgulu bildua, ez zitazke-ela bertsuak han ezar, xixaria bezala luzatuak batzu, edo azta-par motzeko ulien gisan besteak. Orduan ziren kontuak: ni-haur, bertsutan jakin gabeko bertsulari aprendiza, besteren epaile jujari behar! Dudarik gabe orduan menekoak bainauz-kan bertsulari putiko gazte horiek, horra nolako ausartziarat lerratu nintzan: kantuz banuen zerbait ikasia apezgai denbo-

ran, eta hortan afizione bat bildua ere. Gainerat ohartua nintzan ezin kantatuak zirela bertsu batzu aztapar desberdineko neurritan zirelarik.

Horra nola nintzan ni, talendu gabeko bertsularia, bilakatu aprendiz gazte batzuen epaile ta jujari garratz eta barkamen gabea. Beraz kantu edo bertsualdi bat ukaiten banuen kasetara, omenaldi batez edo norbait zendu ondoan edo beste, itzulzen nion bere lana egile gazteari, erakutsiz hemen bi tanto edo silaba eskas, edo bat sobera, errimentzat edo potu baten-tzat berdin... eta zuzent zezatela beren lanttoa berek beste asteko. Denbora berean nor edo norekin, oroitzen naiz gertatu zaidala argitzea zer ziren zortzi puntuko doinuak, eta hamarrekoak, nagusian edo laburrean berexiz bixtan dena, arabera-ko airearekin, bainan hauk jada bazazkiten kantu xaharretan ikasirik.

Ez ginen orduan zazpiko, bederatziko eta holakoetan sar-tzen batere gu iparraldean; arte hortakoetan ere lanik aski baginuen. Holaxe zitzaidan eni ere gertatu lehenagoko sugea-ren berotzailearena; hau berotzaileari itzuli baizitzaion ausiki eginez. Ez pentsa halere nik Alkat eta besterekin holakorik izan dudarik; ausikirik ez dut ukan, bainan ene ikasleek laster gaina hartu zidatela bai, errextasunean, ausardian eta bertsu-lari trebearen mailean.

Hemen Alkatekin ditugu kontuak. Bi gauza nabaritu dizkiogu Ernesti bertsuen bat-batekotasunean. Lehenik bekokia: publikoaren aitzinean du gure iholdiarrak bere jokoak; konpaina gizona, baso baten pagatzeko lehena, nahiz pagatzaileak ere aurkitzen dituzten holakoek, hori ofizioko irriskua, hots, bere begitarte zabalarekin, beti omere ona eta irria nasai, txiste edo arrailleria batekin, horra lehen agertze hartan berean lagunak eginak eta publikoa beretua. Hortik harat ate guziak idekiak ditu bertsulariak, bai kanpoko entzuleetan eta bai bere barneko ixurian, errextasunean.

Kanporateko leiho horrekin batean, hori balinbazen begiarena, horra gero beharriaren parte, edo zintzurarena, edo ezta-ria, hots boza eta kantua. Apezaz ere erraiten da eliza beztitzen duela patxada ederreko erretorak. Beztitzea ez baita aski itxuraz, behar du ere haatik petik eta galerietaraino betetzen eta inarros-ten duen mintzoa eta xaramela, ahalaz. Egia erran, tresna onik bada orai entzunarazteko, eta beharrik zenbait aldiz. Bertsularientzat berdin berdina, eta ez da beti tresna on bat gertatzen noiznahi, hala-nola merkatu edo feriako kabalen artean edo trinket batean. Preseski hor ere ez da galdua Alkat, ez-eta hunen bertsua, salburik erlastura aldietan. Gorenaz ere musika nota haren xuxen kausitzea gostatzen zitzaion lehenago, trebatu faltan naski, bainan aspaldi du ortan ere gaina hartu duela iholdiarrak. Horra beraz nola laguntzen duten haundizki Alkat bi abantail horiek, lasaitasuna batetik eta plazagizonaren beroz bestetik.

Haatik besterik ere da bertsularia, hemen bertsu liburu huntan, irakurle kantariak (kantuz emaiten baitira bertsulariarenak) aurkituko du plazan emanen diren kantu eta lanttorik asko, eta huts bat eta eskas bat izanen zuen liburu honek hoik oro ez balitu. Hori preseski euskaldun guziek dakiguna da herri huntan: haur bat sortu dela hemen, etxeko xaharra zendu haratxago, plaza bat edo aldare bat edo bide berri bat estrenatu haratxago, urrezko edo diamantezko ezteiak ospatu beste nunbait, edo holako zernahi kasuz zer egiten da? Denek eza-gutzen duten bertsulariari dei egiten.

Bera ez baititake beti han izan, telefonoz edo hitz batez edo adixkide baten bitartez gaztiatzen zaio bertsulariari, igor ditzan otoi sei edo zazpi bertsu, denek dakiten aire batean, norbaitek edo orok batean kantateko mahaian. Aberastasuna eder hori aurkituko du arras ona eta biziki goxoa Alkaten liburu-erosiko duenak.

Eta ez erran otoi holakok oro berdin direla; ez dut uste kantu horietarik batek ere beste norbaitentzat balio lukeela,

bertsularia, eta guziz Alkat, ez baita nornahirentzat mintzo dana, bainan bakotxarekin etxekotzen eta norberari berea emaiten, dazkien argitasun eta berrien arabera. Artetik erraiteko, izan zirea behin bederen, irakurle, bertsulari afari, bazkari edo elgarretaratze batean? Suarekin pareka nitzazke nik holako paradak, ote larrean bezala, batean hemendik piztua, bestean hortik pindartzen, gero haraxetan garretan jauzten, eta zu hor zaude bertsularien artean, hau entzun behar, hura ikasi, eta beste batean ez hutsegin, hots, iduri du besta aratseko supindarren festibala, alde guzietarik zarta eta zipirta eta beti nunbaitik heldu.

Alta ez ditut horrekin ere oro erranak. Uste ginuen lehenago oro erranak zituela Xalbadorrek *Odolaren Mintzoan*. Edo, halaber Xanpun edo Mattinek ere osatuak zituztela asko lekutan edo han hemenka bederen, hala-nola aita familiakoaren eta fededun zintzoaren gogoetak, otoitz eder batzu ez ahanzteko noiztenka. Eta huna egun Ernest Alkat. Ez baita beti jostagura eta zirtotsu hau ere, kasuak eta paradak bertzalde, hala-nola Bazkoak egiten dituelarik Alkatek edo Fededunaren otoitza Armendaritzeko elizan, izan dadin gauerdiko meza, bainan ere familietan aitek eta amek dituzten kezkek eta beharrak ekartzen dituztelarik aldareraino. Eta mota guziek badute beren leku premiatsua bertsulariaren griñetan, izan dadin haurren eskolatze, adixkide zendu edo bizi eta, hots, bizi guziak du leku bere gorabehera guziekin bertsulariaren solasetan.

Eta hau seinlatu gabe ere nola geldi hemen? Lantto bat, bai, lan bat osoa, dugu aurkituko, irakurle, Alkaten liburuan: Loiolako Iñazio haundiari eskainiak zaizkon 50 bertsuetan, nola zen Azpeitian sortu gure San Frantsesen laguna duela 500 urte, Monserrat, Erroma eta Parisen gaindi, horrarakoan, Alkatek dionaz: “Muinetaraino sartzen baitzaio Jainkozko argi berria”.

Muinetaraino, Alkat! Badut uste beste batek ere holako zerbait senditu zuela bere barne barnetik. Gizon haundiak direa holakoak oro? Bainan haundi izan ditake bat bere egunerokoan ere.

Bertsulariarentzat, eta zuretzat, Ernest, nahiago nuke erran gauza berezia. Zein da Iholdi hortan berriz erraiteko Alkaten etxea? Hortxetako etxalde gotor hori? Ala aitzindegi zuri-gorriekin ederki dirdirutzen duen koloretsu hura? Ezetz ihardetsiko du haur xume batek ere: hori dugu hori, gorattoa, dena harria, tindua kario zen hartan egina dirudi.

Aldiz grazia eskasik ere ez du, lehen lehenik, lore horien usaintzen ez bazira luzatu, horra xakur beltz potxoa, etxezaina, dena pereka heldu zaitzuna zure zangopetan karesa galdez. Bainan altxa zuk begiak etxearen aitzindeiari etxeko jaun-andereak hor ez diren artean. Erran baitut hor ez direla oro besteetan bezala, badu bai etxeko aitzindeiak bere patxada ere, eskuinalderat luzatu hegatz nasai harekin. Sukaldeak ez badu egun etxekandererik, nausiaren laneko artikuluak oro hor daude, tindatzailearen tresnak eta koloreak.

Eta nausia bera? (Barkatu, etxekanderea, zu hor izan ala ez, zure hatza daukate bai horgo xoko guziek eta izanen ahal du ere bisitariak zure eguna!) Bainan nausiak ere ez du egun etxeko aldia. Nornahiri gertatzen zaion bezala, behar izan du osasun artamen horietarainoko bat egin. Harat joan girelarik, zer uste duzu ari zela, irakurle? Gaitzak oro garaiturik, etxerako baimenaren beha, eta ezinegon batekin, hortxetan zen, usaian baino tresna finagoarekin, margolari bilakatua tindalaria. Eta gaia; Abbé Pierre, Emauztarren sortzaile apez fama-tuaren begitarte gozoaren moldatzen, bera ere hemendik so eta haratxagorik behaka. Ez dakit batere nik aldiz nola estimatua izanen den tindatzailearen artixta lan hori hemendik eta Pariseraino, bainan berriz ere diot ez dela hori guzia nornahiri emana: etxe bat batetik, ez besteak iduria bainan grazia

askoduna bere lore, xakurpotxo eta mila girgilla zaharkiekin, lan eta etxe izen haiek ere, zurean, harrian ala etxeparetan beste herritarrek egiten ez dazkitenak, funtsean bertsuak, kantuak eta beste harat-hunat frango bezala, hots bertsulari bat zer ere den ez dakiena, joan dadila egun batez, ikuska, Iholdi Laharragarat, zerbait ikasiko du. Artetik erraiteko xoriño batek salaturik entzuna gaude badela han nunbait Mattin eta Xalbadarren lan bat ere hasia.

Hortan utziko dugu aurkezpen xume hau, liburu huntako harrobiaren ontasunak oso agertu eta salatu gabe goizegi, hauxe bakarrik erakutsiz ondarrean. Badituela bere lore paregabeak gure herri honek eta ez dugula heietan txarrena bertsularitza. Ez dakit zein urtekoa zen xapelketa nagusi hura Donostiako Anoetan. Txartelak baginituen bixtan dena aski goiz eskuratuak eta harro gindoazen saio finalerat segurki gure txartela esku barnean ginakala beroki. Holako jendearen burrusta haundi hartan agertzen dut neurea eta kontrolak: “*¡No vale!*”. Alabainan han ere hain segur euskara ez dakitenak ezartzen baituzkete kontrolan, xuberotarrek pastoraletan bezala. Bainan ene “*no vale*” hori? Hartan, neureaz fida alabainan, ihardesten diot neure mintzairan: “Zer ezetz?”. Bainan heldu baitzen ikuslea gaindika, horra, denaden, erraiten didala lasai ene zaintzaleak durduzaturik: “*¡Pase, pase!*”. Entzun ginituen bertsulariak, Andoni Egañak irabazi eta... biharamunean joan nintzalarik soinekoaren bila ene zuritzai-learen etxerat, nik txartela falta... damurik, hura nion kontrolan botatua ustegabetarik, Donostian.

Barkatu, Alkat, badakizu enetzat merezi duela txartela bat bertsulariak. Bai-eta zure bertsu-liburuak ere! Txartela baino gehiago miletan.

Emile Larre

Eskertu nahirik

Liburu hau agertzerakoan, nola egon eskerrak bihurtu gabe hanbat eta hanbat laguntzaileri? Eta badakit hala ere ainitz ahantziko dituztala. Barkamenak eskatzen ditut guzieri.

Nola ez aipa etxean naukan Otto Xarlex eta bertze osaba guziak, batzuk galduak zoritxarrez? Horiek didate eman bertsuaren eta kantuen gustua eta maitasuna.

Ondotik eskertu behar dut Emile Larre jauna, harek erakatsi baiteraut euskara idazten, bertsen negurtzen, bukaeren hautatzen, oldarren ezitzen eta bertze hanbat gauza.

Milesker ere *Herria* astekariari hanbat bertsu idatzi argitaraturik.

Eskerrak Mixel Itzainari, Emile Larrekin batera, jakin izan baitu bere itzain lana ongi betetzen.

Milesker Frantxua Garat, Erramun Caracotche, Graxien Heguy zena, Jan Battitt Bascans zena eta Aita Santos-i, lagundu bainaute Jainkoak eman dohaina Jainkoari itzultzen.

Milesker Koxe Mari Aranalde zenari, hego aldeko atea zabaldurik eta hain ongi lagundurik.

Eskerrak ere Eñaut Etxamendi eta Daniel Landart-i, ikusten ez nuen Euskal Herri bat erakutsirik.

Gogoan ditut ere Ameriketako Señan eta Kattalin, bertsen bitartez bigarren Euskal Herri bat ezagutarazirik.

Bertsen erakuskantzan ere zordun izango naiz ikasle guzieri eta erakasle batzueri ere.

Nola ahantz haur denborako errientetik haste, euskararen kontra, ikastolen, bertsen, kantuen, euskal nortasunaren kon-

tra jokatu diren guziak? Uste gabeko laguntza egin didate ene sailean jarraikitzeke.

Barkatu lehen ezarri beharra azkenik ezartzen badut. Milesker beroena xuri, Maite, ene bizi laguna. Ni bertsutan libre utziz, xuhaurek altxatu ditutxu gure lau semeak, ikastolan atxikiz lehengo baldintzetan, xure eguneroko lantegikolan lan dorpea eginez eta jarraikiz, Bai; milesker bihotzetik.

Milesker. Iholdi, Heleta, Armendaritzeri, gu galdatau gaituzten guzieri, entzuleri eta laster irakurleri.

Bertsulari lagun guziak ere gogoan ditut, eta batzu berezi-kiago, bainan berexgoarik gabe eskerrak guzieri.

Mila esker Aita Zabalari, Koxemari Iriondo, Pello Esnal, Joakin Berasategi eta laguntzaile guzieri. Zueri esker euskalduner uzten baitut nere sail xumearen oroigarri eder hau.

Bururatzeko, eskertu nahi nuke ere nere errena, aspaldiko denbora hauietan neure idazlan guziak makinan jotzen baite-rauzkit, eta azpimarratzeko dena hutsik egin gabe. Milesker, Maider.

Irakurtze on deneri!

Ernest Alkat

Atseginekin dugulakotz jakin

Airea: *Dama gazte xarmant bat*

Iholdi herriak daut gauza hau galdatu,
eta plazerrekin dut eman arrapostu.
Berri ezti hau orok baitugu aditu,
horren aipatzeko nik egiten dut kantu.

Iholdi ta Bitiña badira bi herri,
familia emaiten ari munduari.
Berriki esposatu zaizkigu bi xori,
amodio hoi orai hemen da kantari.

Iholdiar semea, Jean-Pierre espos jauna,
herriak desiratzen dautzu zoriona;
hoin xarmanta daukazu biziko laguna,
pollit eta ezti, zuri jua dena.

Zuri esker edertu Iholdi guzia,
sano begiraturik horren gazteria;
eman dakotzu dantza eta teatria,
guzien bihotzetan eman bozkaria.

Maitasun eta griña duzu denendako,
beti prestik jarria xerbitzu iteko;
herriari eginik asko eta asko,
zonbait milesker dautzu Iholdik erteko.

Andre paregabea ta hola senarra,
familia hori segur izain da ederra.
Amodioak eman du hor bere pindarra,
Jainko Jaunak dezala uroski begira!

Espos maiteak, otoi, adi parabola:
azkar zazue bada Arangoitz arbola!
Hanitz seme alaba desiratuz hola,
urrun hedatuko da eskualdun odola.

Henriette ta Jean-Pierre biek elgar maita,
munduko bizitzea hola eder baita;
aingeru batek dezan egun batez kanta:
«Jainkoak eman dauzkit ama eta aita».

Amodioz juntatu orai ta betikotz,
biziari doatzi alegera, airos...
Miresgarri kustea holaxet bi bihotz,
zeruak lagun bitza izan ditzen uros.

Bizian izan gatik egun on eta txar,
atsegin ala penak irri batekin har.
Sustengu ta laguntza eskaint beti elgar,
Iholdik duke ono segur zuen behar.

Herriko desir onak zueri doatzi,
ez zaituzte segurki sekulan ahantzi.
Bainan neure bertsuak behar noizbeit utzi,
amultsuki dautzuet erraiten: «Goraintzi!».

Jean-Pierri desiratuz urostanun bero,
bururatzeko ditut emaiten bi lerro:
gutaz orroitu zaitte, in zare lehen,
zuen beharra dugu orai eta gero.

Herria, 1970.02.12

Arrossagaray-en agurrari arrapostu

Airea: Antton eta Maria

Agur zuri, Garazi, ta agur, Aintzila,
kantuz heldu naiz zure seme baten bila.
Arrossagaray deitzen, pertsulari dela,
gogoz airosa eta izpirituz abila,
hari nahi dut egun erran esker mila.

Pertsu hoin emaiteko banuke nik gustu,
zure agur beroaz dautzut arrapostu.
Holako lagun onik nihun ez kausitu,
dohainik handienak berekilan ditu,
pertsua ez daiteke horrekilan galdu.

Orai arte kurritu eskualdun plazetan,
denek zaituzte eman fama handietan.
Beti ele pizuak zure ezpainetan,
nigarrak e ezartzen gogo arinetan,
halaber kontsolatzen badira penetan.

Hiru urte baditu gure ezagutzak,
geroztik elgarrekin ditugu bihotzak.
Frangotan izanik e makur edo hutsak,
beti lagundu nerau handi duzun funtsak,
baitazkizu sendatzen lagunen ez-ontsak.

Pertsuaren bidea izanikan patar,
goazin beti aintzina sustengatuz elgar.
Plazerrak eta penak kuraiekilan har,
egun batez gaitezen zu eta ni ohar
helbururik ez dela egin gabe indar.

Pertsua izan dut nik beti maitatia,
bainan bertzerik bada hor nunbait gordia.
Beha zangun nola den oraiko mendia,
aspaldian naiz hortaz beldurtzen hasia,
ez daukula ba horrek emanen beria.

Azken hok emanen tut erranez milesker,
zure kantuak baitaut handizki in plazer.
Kuraie har dezagun Jainkoari esker,
koblak ez gaitzan biak elgarretaik bazter,
baitugu lan iteko eskuin eta ezker.

Huna zer dutan traba: ez handi xedea,
eritasun horrentzat deus onik badea?
Bortxaz artzea ere gauza bat nekea,
nahiz gustu banuken zure laguntzea,
hortakotz bear zinuke ni baino hobea!

Harrapa zinio ba juan gabe urrun,
berdin zurekilako ni ez naiz aski hun.
Ez bazinu sekulan iten ahal nihun,
bihotzez dautzut hemen hitz emaiten egun
Alkat Iholdiarra dukezula lagun.

Herria, 1970.07.23

Esperantza bihotzean

Airea: *Antton eta Maria*

Zazpi urte huntan dut nik bihotza eri,
bakarrik naizelakotz egun zait iduri.
Geroztik zertan ote da nere Iholdi?
Xoko hortan baziren lehen zombait lili,
batto nahiz bilatu behar dut itzuli.

Gogoa arin eta bihotza're airos,
Kaliforniat joan nintzan izan nahiz uros.
Ordutik karkuletan nago egun oroz,
fortuna egiteaz ez hanbat agrados,
ez diot urostasunik horrekilan eros.

Nola zerua dagon betea izarrez,
halaber gogoa dut oraixet plazerrez.
Aski egonik segur pena ta dolorez,
herrirat ekartzen nau amentsak hegalez,
maitetxo bat neretzat oraino badenetz.

Agur zuri, Iholdi, nere sort-herria,
Lukugarai etxea ta Hoxa mendia.
Agur, ner'haurrideak ta ama maitia,
agur, agur bihotzez, nere ohantzia,
berriz heldu zaitzue airatu xoria.

Musu eta nigarrez guziak agurtu,
plazer handiagorik munduan ez sortu.
Bainan maleruski zaut denbora izartu,
izarian delakotz behar baliatu,
andre gai baten xerka ere abiatu.

Lehen ezagutuak ainitzak joanak,
bai eta ondokoak oraino ez jinak.
Neretzat on zirenak ezkondu geihenak,
berriz eremanen tut karri tuztan penak,
urerat utzirikan aments ederrenak.

Iholdi, Armendaritze, Donibane naski,
Ortzaizeko pestak e ez ditut ahantzi.
Horien bisitatzen laster nintzen hasi,
nahiz bihotz lagun bat hor nunbait ikusi,
bainan guziek naute bakarrikan utzi.

Eskual Herriko neskak, heia nun zirezte?
Ezkont-gairik ez dea batto edo beste?
Hiru anai bagira, hiru bihotz gazte,
zuekin nahi tugu amodioz bete,
deneri dautzuegu: berriz ikus arte.

Orai arte aizanik gogotik lanean,
ohartu naiz nintzela ezkont adinean.
Osasuna badut ta naiz bizi moldean,
bakarrik jina eta bakarrik juaitean,
bainan esperantza dut nasai bihotzean.

Ez izanikan nitan amodio beroa,
lagun kontsolatzaile, hor daukat geroa.
Goraintzi diot dener zabalduz besoa,
ikus arte, Iholdi, ni berriz banoa,
gorputzez urrun bainan hor utziz gogoal!

Lagun baten izenean
Herria, 1970.10.01

Airea: Ai zer plazerra

Ai zer plazerra sei urten burian Iholdiren ikustea.
geroztik nola kanbiatu den herria eta jendea.
Halere beti berdinek dago ama horren izaitea,
lehen bezala beti hor dauka nere amentsen betea.

Horra sei urte dituztala nik horiek denak utziak,
eta oraitxet hor utzi behar maite dituztan guziak.
Zer nigar eta nahigabeak hazten dituen biziak,
nere herria berriz utzirik horiek dira neuriak.

Zonbat kantaldi ta irrintzina emanik lehen plazetan,
guk zonbat irri ere eginik Iholdiko plaza hartan.
Orai hementxe bakarrik nago, bakarrik Ameriketan,
berriz gibela etor nadien gau-egunez pentsaketan.

Zorionekin erran behar dut: «Aurten kusi dut herria,
utzi nintuen xahar-gazteak eta ere familia.
Airatu behar izan dut berriz, otoiztuz Jainko maitia,
orai ta berdin gero dezadan konplitu Haren nahia».

Joan nintzalarik ttipi zirenak geroztik dira haunditu,
aingeru zonbait sortu ta ainiz Jainkoak bereganatu.
Kalifornia xokotik nauzu halere denez orroitu,
ta guzieri bozkarioan egun egiten dut kantu.

Airatzuz geroz bere herritik nola oro kanbiatzen,
hainbertze goiti beheiti trixte biziak baitu agertzen.
Ahantziz oro, Zeruko Ama, zuri derautzut galdatzen
lagun nezazun Eskual Herrirat luzatu gabe itzultzen.

Amerikaren fama ederra hola lehen kurritu zen,
palazio xoragarrietan jendea zela bizitzen.
Bainan han ere duzu antzara bere mokoaz alatzen,
han Amerika izana gatik lan egina da pagatzen.

Eskual gazteak bazinute ba hunat jiteko amentsa,
printze lekurik baditakela ez dezazuela pentsa.
Hor gaindi xuri ditaken gauza hemen ere ez da beltza,
zaudezte bada Eskual Herrian, naski baitzirezte ontsa.

Hemen oraitxet egoiteko nik egin behar tut indarrak,
bainan zer ez du egin arazten mundu huntan oi beharrak?
Jakin zazue bertzetan ere dira pena ta nigarrak,
Kalifornian uros guti du naski egiten dolarrak.

Munduan bizi naizela orai hogoi ta hamabi urte,
bertsu egile izan da beti gure arraza Alkate.
Egun haukiek eman izan tut on zelakoan nik uste,
oroz gainetik oror delarik erran nahi: ikus arte!

Dominique Alkat-en izenean
Herria, 1970.11.26

Xapelduneri

Airea: Beranteko urrikia

Kantuz orai neure gisan
pilotarientzat arizan;
nahiz ez duten Mehainen bada gauza hori aise jasan,
Iholdi zauku xapeldun jali Armendaritzeko plazan.

Iragande eder hortan
denak alegrantzietan:
lau pilotari hasterat ziren beren arropa xuritan,
grña poxi bat begian bainan esperantza bihotzetan.

Nor ziren horiek beraz
erraiten naiteke ni has;
ideia eta indar handiko herritar Oxandabaratz,
nahiz bi gauza horiek bezanbat bururik ez duen arras.

Lagun Urgorri gaizoa,
ez zahar, ez oraikoa,
gorputza beti lekuan bainan ardura nunbait gogoa,
lasterra guti eginez baitu ongi segitzen jokoa.

Haste hori zonbait nekez
ez zen uste baizen errex,
kopeta doi bat izerdi eta bihotz barnea nigarrez,
bainan halere jo duzte hoiek bai Lakabe eta Barneix.

Botetikan ere kintze,
ez zen hori alta aise,
Urgorri aldiz marraño hortaz ardura izan da gose,
partida hori ederra zaukun ponduak zirela luze.

Bote hortan gure Beñat
arizan da ere hanbat,
buru lepoak ibiliz hola batean hunat bertzean harat,
bultarekila uste nuen bat sartzen zela elizarat.

Urgorry bere zokuan
beti bezala gostuan,
kurritzen horrek ez du ikasi beti delakotz lekuan,
zainetan behar odol guzia horrek naski du buruan.

Partida hoi eder zela
ez daite erran bertzela,
gero Beñatek lagunari hor gainerat jautzin diola,
harriturik egon naiz hantxet uste nuen jaten zuela.

Horra zer dutan ikasi,
partida hortan ikusi;
Mehaindarrek ez ote zuten bertzek bezenbat merezi,
galdu izan ez balute ba nork behar zuen irabazi?

Orai partida ederrik
ez da aditzen nehondik;
Iholdik hori erakutsi du, Mehainek hola galdurik;
bertze aldian zuentzat daike, ez otoi egin nigarririk.

Egin nahia aspaldi,
goresmen hau kurri bedi,
zueri esker gora dadila hoin maite dugun Iholdi,
bihotzetikan milesker bainan aurtengo huntan ez geldi!

Herria. 1972,01,13

Orroitzen gira!

Airea: Mehetegiko xakurra

Nigar bat ere kantutik
ixuri behar gaur-goitik;
heldu zeraut bihotzetik
lagun bat joanez geroztik;
adi neza urrunetik,
hantxetan Amerikatik.

Gizon gazte ta lerdena,
Sauveur Bidart du izena;
sort-lekurat zaukun jina,
berriz laster baita joana,
emanik orori pena,
nihaurek dut handiena.

Geroaz hau da griñatzen,
gu ere horri ohartzen,
penetan zaukula joaiten,
Iholdi baitu maitatzen;
hemen zer lanak bizitzen!
Zertan beraz egonen zen?

Pilotan hau dut ikusi,
lagun xahar bat du hezi,
eskerrak ditu merezi;
kantuz ere baitzen hasi,
ez zen, ez, hori itsusi,
iduri zuen Tino Rossi.

Iholdin naski denborak
beharko tu bolanjerrak;
orai ainitzak xaharrak,
bertzeak aldiz alferrak,
ogiak usu gogorak,
izanen tuzu giderrak.

Bihotza hunek urratzen:
zonbat gazte diren joaiten;
munduan bakotxak jaten,
hortakotz dira partitzen;
oihu hau diot botatzen;
denak noizpait itzul daiten.

Zu ere trixterik joana,
barnetik zen zure mina;
hau da desir dautzutana:
kurai, indar behar dena,
egin ondoan fortuna,
berriz jin zaiten gu gana.

Zonbat traba edo hesi
hor gaindi joanez ihesi,
laster nahian ikusi
ez zaituztegu ahantzi;
euskaldunak nola utzi
erran gabeen goraintzi?

Herria, 1972.02.17

Garizuma huntan

Airea: *Bakearen urtxoa*

Mundu zabala baita, denetarik sutan,
jendea jelsian, herra urgulutan;
horien gainean nik zer pentsatzen dutan
bertsu hauk adi, otoi, Garizuma huntan.

Lantegi askoetan guziera kasu
aharra maite dute, lana uzten usu;
bortitzegi manerak, ez aski deskantsu,
zeri buruz goazin pentsaketan nauzu.

Gazteak eskoletan bazterrak nahasi,
elgar enganatu-ta denak nahi hautsi;
hori ez baitzen aski politikan hasi,
lanik ez egin nahi, bertzek behar hazi.

Hirian zonbat dagon drogatzar horrekin,
zer irrisku handitan berek'e ez jakin;
heriotze latz hortaz plazer bat da egin,
orai berek pati-ta denboran haurrekin.

Zonbat erresumetan espantuz beteak,
Amerika lehenik, ondotik bertzeak;
diruen erain-leku ilargi-bideak,
jenden erdiak aldiz munduan goseak.

Xuxentasunikan gaur nehon ez da alan,
traidorea libro ta zuzena kartzelan;
gogoan den egia ez daiteke erran,
bien bakeratzeko hamar dire gerlan.

Ohointza, ukatzea eta bertze asko,
hiltzea're libro da, dirua lekuko;
hiri eta herritan bali denendako,
hiru ditazke eros battoren saltzeko.

Horiek nahiz diren urruneko gauzak,
hemen berean dira hanbat berri latzak;
nun nahi badabilta otso eta hartzak,
suntsitu nahi tuzte artalde ta funtsak.

Karitatea xerka, urguluan josi,
etxen mutil zirenak auzoan nagusi;
Jaunaren legea guk ez dezagun hautsi,
hemen hartu guziak han beharko utzi.

Mintzo dira guziak: European merkatu
guzientzat segurki gauza onak ditu;
aspalditikan hemen egiten da tratu:
auzo batek'e berdin bertze bat du saldu.

Trixezian hola nik egiten dut solas,
egun oroz ez daike nigarrez ere has;
hargatik ikaretan beldurtua arras,
hilak ote direnetz Kaen eta Judas.

Ene pertsu hauk ditut gora kantatuko,
ainitzak baitirade beharritik flako;
heien ta enetako bera bada Jainko,
orroit gaiten denentzat heldu dela Bazko.

Herria, 1972.03.30

Arrossagaray-i

Airea: Urtzo xuria, errazu

Gogoa nik lorietan
gaur hasterat noa kantan,
zer berri dagon pasatzen ote Garaziko xoko hortan,
zombait bertsuñoz eman nezazke gure *Herria* kasetan.

Aintzilako seme dena,
Arrossagaray laguna,
erran dautazu ez ote nintzan ni Xalbador bigarrena!
Badut beldurra zuhaur zirela jaun haundi horren berdina...

Lagun guzien laudatzen
plazerrez zaitut ikusten;
zure burua bakar bakarrik ez ote duzu ahanzten?
Erran nezake denen artetik hoberena da berexten.

On ala txar izaitea,
hau hori baino hobe,
giren guziak elgarrekilan gaitezen beti entsea,
begiratzeko bertsularitza eta eskuara maitea.

Bertsuetan gu gireno
beti griñetan oraino,
ez ditugula gure ustean aski eder eta sano,
nekez ta ontsa hobe da segur aise eta gaizki baino.

Bere neke eta penak
ditu bertsulari lanak;
gure bidea segi dezala zeruko Jainko Jaun onak,
ta esperantzan bizi zaitetzte bertsuetako lagunak.

Herria, 1972.06.08

Duela urteño bat airatu herritik,
delako xerbitxua konplitzea gatik;
barreiatu ginen Frantzian geroztik,
egun itzuli gare guziak gogotik,
gogoa ez da nehoiz urruntzen etxetik.

Iholdi sort-herritik baginen sei lagun,
ttipi ttipitik beti elgarren ezagun;
biga bostetan dugu bertzetarik entzun,
debru mutiko tzarrak hun duzie ba hun?
Orai arribantxa hau ohora dezagun.

«Nola bizi behar den hor dukek ikusi»
amak erraiten zaukun, nik ez dut sinetsi;
janari aski bazen eta alfer bizi,
etxen ez baigituzte usu hola utzi,
gaineratekoetan deus onik ikasi.

Hau nahi dut halere gaur erran garbiki:
sofritzen da poxi bat egoiten eztiki;
kexu izana gatik mintzatu umilki,
hori ez baitzen beti guretzat errexki,
hortakotz urte batez baginuen aski.

Ontsa joanak ginen, etorriak xuxen,
hitz hunen erraitea halere zaut zuzen;
otoi nehoiz ez erran: «Hemendikan goazen»,
Eskual Herriko botza beti baita ozen,
noiz herrirako gira, noiz izanen etxen?

Milesker zu, Armada, bakarrik dautzut zor,
otoi berriz ez zaite ene bila etor;
aita-ama maiteak ez agertu elkor,
diru gutti dutala baitauzuet aitor,
lehen aldikotz seiak gaiten doi bat moxkor

Herria, 1973.04.19



Gure etxeko xerri hiltzea
Ernest Alkat, emaztea, Antton eta Xan semeak

Urrezko ezteiak Iholdin

Airea: Sor-lekua utziz geroz

Xoraturik, lorietan, kantu hunen kantatzean,
Iholdi herrian diren espos batzu aipatzean,
mende erdi bat gazteagoak ziren biak ezkontzean,
ta orduko amodioa egun dute bihotzean.

Bazterretan entzuten da dolorezko zenbait nigar:
ezkont-berri izanki ta jadanik berexi behar;
hok elgarrekin hoinbertze urte, orai berrogoi-ta hamar,
zerengatik erran daiteke: maite zutelakotz elgar.

Gerokoaz ametsetan hoier begira gabiltza,
zer balio haundikoa biek eman zuten hitza!
Gaurko gazteri egin bezate etsenplu hortaz eskaintza,
fidelitatea baitzuten beren bihotzeko giltza.

Alegera ditezela xahartzen hasi direnak,
gazteak ziren bezala maitatuz espos lagunak;
ez uste izan amodioa traba dirola adinak,
gorputzak galtzen dituenak hartzen baititu arimak.

Goresmenak, Mañe, zure Mayi espos onarekin,
eztei goxo batzu pasa etxen diren guziekin;
Jainko maitea, bihotz bihotzez hau nahi dautzut galdegin:
zutaratzean egun batez har ditzazun elgarrekin.

Herria, 1973.09.27

Airea: *Ttiki-ttikitik*

Larunbatean, beti bezala, nere etxerat bainaiz jin,
auto alde bat, pausu betean, plaza ganean zagotzin.
Agurtzean dut neure amari «Hoiiek zer dira?» galdegin.
Arrapostua: «Bi ehortzeta egun badituk Iholdin».

Bere biziko laguna zuen galdua zoin berrikitan,
gaixo Mari Paint itzali zauku guzien ustegabetan;
Jaunak ez zuen hau utzi nahi bakartasun trixte hortan,
senarra eta sainduekila ezar beza zeruetan.

Berriki kantuz ari ginela gerlarien bazkarian,
Mattin maitea gurekila zen, oi zer omere onian!
Orroituko naiz irri batekin elgarren zirikatxian,
azken aldikotz ari ginela nago ezin sinetsian.

Iragan zaukun igande hortan bezperetan zu elizan,
errepikatuz beti bezala kantuz baitzira arizan;
kantu xume hau eskaintzen dautzut egun otoitz baten gisan,
zeruko xoko ederrenean gure Jainkoak har zitzan.

Denek bezala izan ditutzu zure itzal eta hutsak,
bainan ez ote du zorbait argi hedatu zure bihotzak?
Bazinakien nola sendatu trixte zirenen ez-ontsak,
omere onez beteak ziren zure solas eta hitzak.

Itzali zira zoin laster nola arbola ganik hostua,
zure zerbaiten nik entzuteko banuke aldiz gustua;
bi adixkide zuretzat ziren bertsua eta kantua,
utzi daukuzun orroitzapena daike zer arrapostua!

Zuk erakutsi omere hori gogotik ez baitirot ken,
nigar askoren sort-iturria bilakatu zautzu azken;
jendalde orok zure irria hartuz beren erakaspén,
zer mundu airos xoragarrian denak bizi ginitazken!

Noiz sendatuko ote zerauku utzi duzun bihozmina?
Ezinbertzean eskaintzen dautzut gaur azken nigar samina;
oraidanik dut Jainko Jaunari fagore hau galdegina:
noizbait zeruan entzun dezadan, Mattin, zure irrintzina.

Herria, 1974.01.03

Auzapez zenari

Airea: Goizian goizik jeiki ninduzun

Nigar ainitzez eginak ditut kantu trixte hunen gaiak,
aipatu nahiz mundu huntarik bertzerainoko pidaiak.
Ezin hobeki hasi zirela herritar baten ezteiak,
huna nun daukun jaun mera joan Jainko maitearen deiak.

Zer bilakatu daiken ez dakit ezteiliarren bihotza,
ordu artean heiekin zena hantxet ikusiz hil hotza.
Gauza horrek daut gogorat eman Haustez aditu solasa:
gizon bakotxak behar duela orroitu dela errautsa.

Uste gabeen herri barnerat sartu baitzauku berri hau,
ainitzen gisa ni ere bihotz barren barrenetik jo nau.
Pentsatu baitut etxekoeri, nigarrez egun eta gau
ari beharrak, andre bat eta haurrak aldiz zirela lau.

Haur maite onak, ezin egina gaur zuen kontsolatzea,
ene partetik jakin izan dut zer den aitaren galtzea.
Gaixo amari zuentzat alta da nigarren xukatzea,
mundu huntarik joana gatik aita berdin maitatzea.

Adin betean, jaun mera, zaitu ereman zorte gordinak,
zorte hortarik ezin eskapa lur huntan bizi garenak.
Etxean eta herri osoan penetan baitira denak,
zeru aldetik ezeztat, otoi, guzien dolore minak.

Buruzagi bat ez daike izan argi guzien jabea,
denen gostua egin dironik Jainkoaz kanpo badea?
Den hoberena izana gatik nahi ginuke hobea,
batto delarik ezin ohartu zonbat hitsa den gabea.

Herriarentzat sail dorpe hori ez dadila nehoiz geldi,
norbaitek ongi segi dezala, zuk hasia zen aspaldi.
Zuretzat aldiz betiko argi eta bake izan bedi,
zeruetako aingeruekin otoitzez dago Iholdi.

Hedoi ilun bat agertu zauku zero urdin baten zolan,
nun nahi eta noiz nahi ere heriotzea da alhan.
Auzapez dena ordain ditake horrek emana gatik lan,
senar bat eta lau haurren aita ez daizke egin sekulan.

Herria, 1974.02.s28

Xalbador Urepekekoari

Mendi gaisetik beha Euskal Herriari,
Parabisuko auzo nork zaitu ezarri?
Mintzo naiz Urepele herri maiteari,
bai ta zuri, Xalbador, hango semeari;
zure nortasunean hartzen dut hazkurri.

Zuri eskaintzen ditut oraiko bertsuak,
xumeak dira, bainan zintzo ta kartsuak;
nere goresmenekin har nere musuak,
hasieran gintuen hoztasun sasua
erre bitza betikotz bihotzeko suak.

Gorputz mehar batean zer bihotz larria!
Etsituen aurrean izar gidaria.
Sendatzen badakizu ahul ta eria,
nigarraren lekuan ezarriz irria,
hain da zure mintzoa kontsolagarria.

Eskuara eman duzu mailik gorenean,
aberria altxatuz denen aintzinean;
izpiritua duzu mundu zabalean,
batean amodio, Jainkoa bertzean,
ezin erranik ez da zure mingainean.

Hitz sarkor berekilan guziak aipatzen,
egizko iturria ez zaitzu agortzen;
haur bat sortzen delarik edo hura hiltzen,
zure solasek dute zeruetan sartzen,
zoin sainduak zaituke horrela argitzen?

Bertsutan entzun zaitut jada asko aldiz,
Euskal Herri orotan noiz nahi ibiliz;
beti zure erranak samin eta bortitz,
bihotza zabaldua, aurpegia zoin hits,
iduri gutarterat jin zaukula Mois.

Justizia, bakea ta zuzentasuna,
Jainkoa ere usu, berdin maitasuna;
izpiritua zonbat aberats duzuna,
muga gainetik doa zutaz oihartzuna,
bi aldetan baituzu egin batasuna.

Sortzetikan bertsuak izan ditut maite,
ahal guti dut, bainan badut borondate;
barkatu, zuk, Xalbador, egin badut kalte,
zuhauri mintzatzeko amentsa dut bete,
zu iduririk ez da sortu orai arte.

Herria, 1976.09.30

Goiz-Argi, 1976.10.30

Herria-k bertsuen aintzinetik honela zion:

«Bertsu hok emanak ditu Ernest Alkat Iholdiar gazteak. Hola du ardietsi Eskualzaleen-Biltzarrak moldatu sariketan lehenbiziko prima. Hazparnen bildu direlarik eskualzaleak, bertsu hok irakurtuak izan dira. Geroztik ere entzun ditutzue menturaz, radio edo irratitik eman baitituzte igande goiz batez. Atseginekin ezartzen ditugu hemen, gure irakurlek ere hazta ditzaten...».

Xalbador adixkide zenari

1976-ko Azaroaren 7-an, bere heriotzaren bigaramonean

Doinua: *Kantoreño hauk gure herrian*

Lau aste huntan euriek zuten itotzen hasia lurra,
ez ginakien noiz geldituko zen zeruaren nigar hura.
Azaroaren zazpian zaiken denbora txarra burura,
iguzkiak'e bota zeraukun bere behako samurra,
zuri, Xalbador, hark ere nahiz eskaini bere agurra.

Urepeleko zeru gainean gora zitazken urtzoak,
haize ezti bat ekartzen zuen mendi artetik hegoak.
Zer ote zuen izpirituan gure Xalbador gaixoak?
Bozkarioa dudarik gabe gordea bihotz xokoak,
eguna zuten horri eskaintzen herriak eta Jainkoak.

Parerik ez du nehoiz izanen, Xalbador, zure biziak,
zure alderat zordun gelditzen dira euskaldun guziak.
Horren ordaintzen igande hortan xumeki ginen hasiak,
bainan Jainkoak nahi zauzkitzun eman zeruko graziak,
hemen nigarrez utzi ondoan zazpi euskal probintziak.

Xalbador, zure omenaldia nork ez du bere gogoan?
Egun handia izango zela ageri zen zure soan.
Apostoluen artetik Kristo nola zerurat zen joan,
halaber zira zu ere sartu betiko bakezko loan,
Euskal Herriko haur ta anaiak zintuelarik ondoan.

Zure lagunen bertsu ederrez orroitzen naiz arras ontsa,
denek zioten Jainko Jaunari egina beren otoitza
senda zezala lehen bai lehen, Xalbador, zure bihotza.
Bainan bertzela zeruak dautzu helarazi bere botza,
hango sainduak ta aingeruak zutaz zitazkela goza.

Ez ditut hemen nik aipatuko zure lan miresgarriak,
zure liburu xoragarrian asko dira ezarriak,
nahiz oraino gelditzen giren gose eta egarriak.
Akabo zure ezpaineak zuzten bertsuak eta irriak,
dolutan daude Euskal Herriko mendi eta iturriak.

Urepeleko izar argia joan zauku beraz ihesi,
egia dela onhartu behar, alta ezin da sinetsi.
Begiak goiti altxatu eta otoitzean nintzan hasi,
ilargia zen bete betean, Xalbador ez dut ahantzi,
hau nahi zuen: bere argian zeruraino helarazi.

Egun ederra egun txarrerat kanbiatu da bet betan,
zure bihotza ezin zaiteken senda ahal ohoretan.
Uzten daukuzu zer etsenplua *Odolaren mintzo* hortan!
Euskal Herria ahuspez dago, Xalbador, zure oinetan,
zure izena sartua baita euskaldunen bihotzetan.

Egin ziloa ezin da estal, iduritzen zeraut eni.
Euskal Herritik hola joaitea nola ditaik komeni?
Lehen erranak orai obretan: zure *Jainkoa eta ni*
bainan etxean daudenak ere Jaunak ditzala konpreni.
kotsola bitza familia ta laguna zuen Leoni.

Betiereko bake ta pausu, Xalbador, dautzut opatzen,
zeruko alki ederrenean zaudela ez dut dudatzen.
Guziz zorretan izana gatik hau derautzut nik eskatzen:
Euskal Herria hortikan ere lagun dezazun salbatzen,
bai eta ere gure nigarren zure bihotzaz xukatzen.

Herria, 1976.11.18

Haur batek amentsetarik erran daut

Aments batean sartu izan naiz haurño baten erresuman,
zoin ederra zen erakustea irri batez daut hitzeman.
Erran daut ere: «Atea hemen nun nola duzu hatxeman?
Ene bihotzak daukan gakoa zoin aingeruk dautzu eman?».

Gizona, zure begiak dira nereak baino gorago,
ezin dituzu ikusi ahal lurpetik jin gauza frango.
Zure bizia lanbro batean beti airean badago,
nerea aldiz garbi ta xume egiari hurbilago.

Aurrean dagon lore politik erakusten du bizia,
maitasunaren mezulari da bakezko urtxo ezta.
Usain goxoez gantzutua da, kolore askoz beztia,
aita hazlea zeruko ura, ama aldiz iguzkia.

Zoin maite dutan sasuen petik kantuz ari den xoria:
errexinola, papo gorria, xoxo beltz moko horia.
Atzo batek daut goraki erran, neretzat oi zer loria:
“Zuri agur bat egin nezadan haizeak nau igorria”.

Anaiari tut oñoñak eman, pilota eman zezala,
hari begira jarri bainintzan amultsuki berehala.
Biribila da, guziz polita, xuri xuria azala,
bainan ez dakit hark maite nauen nik maite dutan bezala.

Haitz bat ederra, guziz azkarra, ikusia dut auzoan,
ezkur ttipiak gora zituen elgarri irriz kaskoan.
Zenbait lurrean nigar handitan haitzaren ondorat joan,
nahi baitzuten goxoki egon beren amaren altzoan.

Arbola, xori, osto ta lore, guziak ditut maitatzen,
horiekilan solastatzen naiz, horiekilan jostatzen.
Ez dute hoiek samurgoarik, bakea dute bilatzen,
eta hargatik gizon gaixtoak ari dira denen hiltzen.

Haur horrekilan egon bainintzan bozkarioz amentsetan,
atzarri eta trixtatu nintzen, nigar asko begietan.
Aments hau nuen: «Haurtasun hori sort baledi gizonetan,
ez zaitekela hoinbertze herra gure mundu trixte huntan».

Herria, 1976.12.30

Airea: *Bertsularien bat*

Kantuan ari dena alegera bada,
nik ene tristezia ez dezaket gorda.
Norbait bere etxetik ditakea alda?
Gezurra egiekin nahastea zer da?

Gai hau aipatua da miletan jadanik,
buru haustea frango huntaz da eginik;
ez dautzuet emanen gaur xehetasunik,
baitugu ikusirik, bai eta entzunik.

Eihera ttipi batek erreka xiloan
familia eder bat altxatu ondoan;
denak hoier harrika barrandan leihoan,
nahi tuzte ezarri etxetik kanpoan.

Iholdiarren bordan bizi bi artalde,
ttipiak ta flakoak utziak debalde;
ardi azkar ederrak artzainekin daude,
xakur tropa batekin otsoaren alde.

Zoin ote den bildotsa, zoin ote otsua,
ikusten dakiena ez daike itsua;
ele ederra merke, legun ta gozua,
orroitarazten baitaut Judasen musua.

Bakezko herri batez izan dut asmoa,
horrentzat otoizturik ardura Jainkoa.
Harek egin legea dea betikoa,
ala hila ote da lagun protsimoa?

Bertzen diruarekin aise daike ibil,
gauza horrentzat ez da izan behar abil.
Odol gaixtoz etxe bat ote ditake hil,
ondoan biziz eta lo eginez trankil?

Kondenatua naike jada asko jendez,
ez ixilik egonik zonbaiten bildurrez.
Zendako egin dutan dautzuet bi elhez:
“Zuzena” gaixo horren maitearen maitez.

Herria, 1974.10.10

Azken gogoetak

Airea: *Barkotxeko Etxahun zenaren Bi bertset dolorusik*

Bakea lagun hartuz, bihotzen kantari,
azken agur batean joan den urteari;
iraganak dagotzi honbat gertakari,
so eginez lehenik sort herri maiteari
dauzkat bi gogoeta, jitean Eguberri.

Jesus pobre sortu zen, guziek badakite,
ostatutan tokirik harentzat ez zen bate;
betidanik nik ere pobreak ditut maite,
handimandiak aldiz elgarrekin aparte,
hobenik gabeari egin nahian kalte.

Ikusi dut denboran batasun bat gozoa:
lagun zen herritarra, anai aldiz auzoa;
herria bi partetan lehen zena osoa,
noiz etorriko zauku bakearen urtzoa,
libratuko duena kondenatu gaizoa?

Iholdin da Lacroix izenez kurutzea,
aspaldian du zinez horren karreatzea;
hortzez eta haginez gaiten denak entsea
Eguberri on baten horrentzat ekartzea,
nigarrek noizbait ukan dezaten xukatzea.

Abendoaren hogoi eta bederatzi
gai hortaz besta baten muntatzerat abian;
borondate oneko jende ainitz agian,
eiherazainak duzke eihera sahetsian,
doluz ez daike egon han egin itzulian.

Etxean bizitzeaz familia bat galdez,
nahiago zonbaitek hortik igorri ihes;
kasu berean zagon zoin aspaldi Herodes
Jesus haur ttipiñoa betikotz hil beharrez,
ez daikea jendea kanbia hogoi mendez?

Eguberrirekilan heldu kofesioak,
mia gure bihotzak, mia gure gogoak;
bisita egitean ostian den Jainkoak
hatxemanen baigaitu garen bezalakoak,
argi kontzientzian ilun diren xokoak.

Gauza guti girela batzu ala bertzeak,
zer balioa ote du horren ahanzteak?
Goxotasun baduke zuzena den bakeak,
horren hedatzaile ta justiziaz goseak
ezar gaitzala denak heldu zaukun urteak.

Herria, 1974.12.26

Pilota euskal jokoia

Doinua: *Iparragirre*

Bidez bide nabilanean balio du ikustea
neure herri xume polita zertaz ote den betea;
 guzien ganetik
 eliza da xutik
 ta gero arrabotea,
hor bizi baita aspalditikan gure pilota maitea.

Sortu izan den pondu hartarik pilota euskal jokoia,
ttiki ttikitik izanen baita horren ganako gogoa;
 behar da bihotza,
 herekin gorputza,
 beso, buru ta zangoa;
Euskal Herriak bakarrik zuen horrendako nahikoa.

Gauza biribil gogor bat da delako gure pilota,
bere ahalen indarrarekin nornahik lezake bota;
 eskuz eta xixteraz,
 eskuin eta ezkeraz
 denetan joko polita;
kintzea maizik nekez egina, erretxago aldiz falta.

Euskaldunak bakarrak gaude joko eder horren jabe,
geure lurra agertu baitzen su gar handi horren labe;
 zonbat pilotari
 munduan ezarri
 denendako baita hobe;
euskal umerik ez da handitu pilotan arizan gabe.

Pilotarien ikusterat jitean kanpotiarrak,
xoraturik dagotzinetan badira segur bakararak;
xahar ta gaztenak,
pilotari denak
oi zonbat diren azkarrak!
Horiek oro Euskal Herriko arbola beraren abarrak.

Zonbat burraso ez ote dira orai hasten gogoetan,
kirola horren maitatzaleak gutti direla gaztetan!
Bihotz ta arimaz
berriz ditela has,
izerdi hartuz kopetan;
pilota zaindu behar litake herria salbatzekotan.

Joko eder hau noiz sortua zen nik ez dut ongi ikasi,
denbora hartako jendeak zeru gainean dagotzi;
menderen mendetan
ar gaiten pilotan,
ez otoi hori ehortzi,
sekulan santan ez baiginuke euskal izenik merezi.

Euskal semeak barreiatuak mundu zabalean gaindi,
beti aurrerat doa pilota, ez ditake nehoiz geldi;
altxa eta harro
orai eta gero
airez aire ibil bedi;
esanez bizi dela pilota bizi dadien Euskadi.

Herria, 1975.08.21

Ameriketako anaier

Airea: Igande arrats eztiño batez

Duela orai urte bat hurbil, bihotz on bati eskerrak,
nere begiez ikusi ditut Amerikako bazterrak;
Kalifornian bizi diraden euskaldun zinez suharrak,
aldaxkak urrun zabaldu ditu Gernikako haitz zaharrak.

Zorionekin sartu bainintzan Chinoko herri maitean,
ongi etorri egin zautaten han familia batean;
letxeriekin behiak ere trumilka ziren aldean,
biziko egun goxoenak nik pasa tut hoi en artean.

Harat joaiteko nere baitarik izanen bainintzan lotsa,
joanez geroz egon behar da, behar aizina ta sosa;
laguntza gabe bidaia hortaz ongi ez daiteke goza,
hortakotz hemen ez da kausitzen hangoek duten bihotza.

Euskal Herritik guziak noizbait joan baitziren ihesi,
arrotza zuten toki batean bakotxa lanean hasi;
elgar lagunduz amodioa ezarri zuten nagusi,
ta hemen denak bizi girade bat bertziaren jelosi.

Amerikatik sort-herriraino zerauzkularik etortzen,
heietaz doi bat baliatzeko xedeaz gira jabetzen;
iduri eta heiek dirua harrapaka duten biltzen,
hek jasan penak ta izerdiak ote ditugu senditzen?

Frango errexxi bizi badira hamarretarik zortziak,
lehen iragan urte luzeak ez dituzte ahantziak;
astoa eta zakur batekin hartu zituen mendiak,
harma bat ere zaint zitzaztela milaka bertzen ardiak.

Hoietaz dutan orroitzapena nerekin baita betiko,
bihotz bihotzez maitatu ditut, nolaz ditut ahantziko?
Chino, Puente, Las Vegas ere, hoiekilan San Frantzisko,
dezadan erran on zareztela guzietan bizitzeko.

Sendimenduak igor banintza han dagotzin euskalduner,
ene bertsuak, ene solasak ez litazke aski eder;
Kaliforniar behi deizleak, baratzezain ta ostaler,
zuen artean egon den batek goraintzi dautzue dener.

Hortik nigarrez itzuli nintzan, zuen uzteaz aski lan,
bertze aldi bat jinen naizenez Jainkoak dezake erran;
ez zeraituztet, adixkideak, nik ahantziko sekulan,
nere eskerrak bihurtzen ditut zuer, Kattalin ta Señan.

Maitatu jender kantu egiten banuke istant baten gai,
euskaldungoak zuen artean guti duelakotz etsai;
elgar atxikiz, elgar maitatuz egon gaiten beti anai,
adiorikan ez derautzuet, bakarrik dautzuet *Good bye*.

Herria, 1975.10.16

Airea: Sor lekua utziz gero

Mundu huntan den biziak maiz kanbio ditu gaiak:
gauza batzu gure lagun ta bertze ainitz etsaiak;
halarik ere sortzen dirade egun batzu zoin alaiak,
hetarik bat ditugularik etxen urrezko eztaiak.

Gertakari hoin ederra kantuz nahi nuke hasi,
maite dituztanak dira nere bihotzean bizi;
mende erdi bat elgarrekilan, Jainkoak emanik grazi,
goresmenak derauzkitzuet, aitatxi eta amatxi.

Zuen bien ezkontzeak izan du segur podore,
guziz merezi zinduten gaur ukaitea ohore;
maleruski zonbat ezkondu mundutik joanak ez dire,
zuek aldiz gazteak diren esposño batzuen pare.

Segur izan ditutzue egun bero eta hotzak,
batzuetan zoin azkarrak, bertze batzuetan lotsak;
bainan amodioz baitziren beteak zuen bihotzak,
sendo izan dirade beti zuen arteko ez ontsak.

Ez zarezte aberatsak, bainan zer zuzentasuna,
zer fedea duzuen ta harekin zer maitasuna!
Zuen bizia etsenplu bat da, Jauna, zuk eman duzuna,
maitatzea betikotz elgar da zinezko ontasuna.

Familia ederño bat duzue ongi altxatu,
amodiozko arbolak eman behar baitu fruitu;
hortakotz ere zordun naiz eta eskerrak behar bihurtu,
zuek gabe ez bainezaken gaur nehola egin kantu.

Asko jende, xahartzean, dagotzi arras trixterik,
beren buruak ikusiz soberakin ta bakarrik;
mundu huntarat jitea bada bainan ez da joaiterik,
girixtino dagonarentzat sekulan ez da hiltzerik.

Sendi diren gauzak oro ez ditazke erran hitzez,
zer ezteiak, urrezkoak, ez gaiten hasi nigarrez;
goazen luzaz elgarrekin biziz aisa edo nekez,
aitatxi eta amatxi, biak maite zaituztet bihotzez.

Herria, 1975.12.18

Airea: Nigarrez sortu

Azaroan ilun da ta triste denbora,
molde hortaz negua ditaike ohora.
Aurtengoa halere ezartzen dut gora,
jakin izanik gure etxea noiz xora.

Egun batez ginuen guk egin ezkontza,
amodioz ginezan bizitzea goza.
Ohantze bat hargatik gelditzen da hotza,
galtzerat uzten bada haurren esperantza.

Haur batentzat xedea ginuen hartua,
egun huntan uroski hemen da sortua.
Zeruko Aita daukat hortaz otoiztua,
gure maitasunari emanik fruitua.

Azaroa zen beraz ta astelehena,
egun hartan zorion, bezperan zen pena.
Heriotzeak zuen Xalbador emana
betiereko loan zeruetan barna.

Haren ordaina dea sortu zaukun Pattin?
Goizegi dago, bainan nahi nuke jakin.
Ez bada, hala ere banuke atsegin,
eskualzale suhar bat hortaz badut egin.

Orai bere bizitza nigar eta irri,
batean gose dago, bertzean egarri.
Maitasun ekar beza aita ta amari,
eta oroz gainetik Eskual Herriari.

Eskertzen zaitut egun, zu, nere andrea,
seme bat duzu sortu, hau nere galdea:
zure sabela zuen biziko bidea,
ene esperantza zen zu baitan gordea.

Pattin, seme maitea, nago lorietan,
egun guzian zaitut gogo bihotzetan.
Zure geroaz bainaiz jada amentsetan:
bertsutan entzutea eskual herrietan.

Aingeru bat etxean Jaunak dauku eman,
kristaua egitea nahi dut hitzeman.
Zure nahia bedi jarraik hunekilan,
bakea baita beti haurren erresuman.

Ongi etorri, seme, bihotzetik egun,
aitaren goresmenak amak bitza entzun.
Biek Jainko Jaunari galdatu dezagun,
Pattin egin dezala euskaldun fededun.

1977.02.01

Euskaldunak badira alde guzietan,
nolazpeit bizi nahiz joanak penetan;
herriko maitasuna dute bihotzetan,
eta gu zertan gira Euskal Herri huntan?

Mendez mende zerauku heldu oihartzuna
euskara daukagula gure ontasuna.
Bainan zertan ote da horren osasuna,
ahulduz doalarik gure nortasuna?

Euskal seme alabak, zuer nago oihuz,
ukan ditugun gauzak erortzerat ez utz;
biziaren ildoak euskaldunki landuz,
eskuz esku goazen geroari buruz.

Euskaldungoak ainitz seinale baditu:
pilota, kantu, dantza, antzerki ta txistu;
ohiduren su hori dugun berriz piztu,
arbasoen amentsak ez ditezen histu.

Herria maitatzea neke da ardura,
beti ederragoa bertzen herri hura;
atxik otoi euskara, bai eta kultura,
euskaldunen bidea ez dadin burura.

Mugerreko herria zertan dugu egun?
Erdararen menpean trixte dago, ilun;
ordu deno oraino lagundu dezagun
lehen zagon bezala egoiten euskaldun.

Orroitzapenen bidetik

Oi, Kattalin Larralde, lehengo auzoa,
zure joaiteak daut ilundu gogoa;
agertuz zutaz nuen maitasun sana,
senditzen dutanaren salatzerat noa.

Ohe xuri batean trixteki etzanik,
Donapaleun ikusi zintudan azkenik;
ordukotz koloreak histuak izanik,
holakorik bazela ez nuen uste nik.

Zonbait solas ibili nintuen zurekin,
lehengo omore on sano berarekin;
geroztik Jainko Jaunak laster deia egin,
nik jakin gabe zaitu ereman berekin.

Uste gaberik hola utzi baigaitutzu,
ene otoitz xume hau, Kattalin, har zazu;
deusik ez eskaintzea ez litaik haizu,
zuk eni egin eta hoinbertze zerbitzu.

Eskolatik kanpoko denbora luzean
zonbait oren egon naiz ni zure etxean;
orroitzapena frango dauzkat bihotzean,
ezin ahantzizkoak neure bizitzean.

Beti lanean zinen, ez baitzinen lotsa
izan zadien bero edo berdin hotza;
jitean ezagun bat, jitean arrotza,
denendako zabalik zinuen bihotza.

Zerua dukezula biziaren sari
otoizka galdatzen dut gure Jainkoari;
beha dezala ere oi Larraldeari,
kuraia eman dezon zure lagunari.

Hor zaude, Jan Pierra, orai nigarretan,
biziari lotua bakartasun hortan;
kontsolamendu hartuz orroitzapenetan,
esperantzarik ez gal egun latz hauietan.

Mitiñako herriaz berriz naiz orroitzen,
bide hertsu beretan ginela ibiltzen;
Kattalinen joaiteak baigaitu trixtatzen,
lagundu nahi zaitut nigarren xukatzen.

Egun zuri, Kattalin, urrundarik naiz so,
nahiz ene bihotza ez den arras oso;
agian egun batez zoin litaken gozo
elgarrekin zeruan berriz ere auzo.

Herria, 1978.02.09

Gaixo Erakustegia

Airea: Antton eta Maria

Euskal Erakustegia edo *Musée Basque*, luzaz hetsirik egonik, berri-
ro ideki zutenean publikoari.

Baionaren erdian Erakustegia,
hetsarazi diote berriki begia.
Geroztik euskaldunek trixte aurpegia,
nik ere jakin nahi nun dagon egia:
etxe hori hila den edo den eria.

Lehenik etxea da oso berezia,
zurgintza arrado bat hor da ikusia.
Tokia ere naski ez da itsusia,
horra zertako duen nahiko grazia,
sabelean zaintzeko euskaldun bizia.

Euskal Herriak dauzka zer orroitzapenak,
arbasoen bizian obratu direnak!
Bizitzaren lekuko gutiz gehienak,
deskantsatzeko edo lanerako tresnak,
euskal populuaren lekuko zuzenak.

Mariñel eta artzain ta laborariak,
esku lan egileek beren balentriak;
ostaler, pilotari eta dendariak,
bakotxak bere tresnak bixtan ezarriak,
gure gizartearen ezagutgarriak.

Luzegia litaike ongi aipatzea,
bainan guziz errexa denen maitatzea.
Suntsitu nahi dute gure ohantzea,
onhart zazue beraz ene oinazea,
bakarrik ezin baitut egin oldartzea.

Jende ospetsu asko, herriko hautetsi
aldekorik badugu, ezin dut sinetsi.
Elkartu gaiten, beraz, ez sekulan etsi,
bertzeri uztartzea zendako onhetsi?
Armadaren kutsurik ez dugu merezi.

Erakuts toki hortaz bada oihartzuna;
bertze bati lotzea, nork ez du entzuna?
Hautetsien bihotzak iduri asuna,
saldu nahi lukete bertzen ontasuna,
ez dutelakotz berek gure nortasuna.

Ez denak oihuka has, auzapez maiteak,
aitatxiren lagunak ta bertze gazteak.
Tratuekin ez, otoi, nahasi trasteak,
ez bailuke deus onik gauzen nahasteak,
erakuts toki horri zabaldu ateak.

Artaldeen borturatzea

Negua iraganik, erosi bazketan
artzaina arizanik gogotik lanetan,
primadera gogoan, erdi amentsetan,
badoaz berriz goiti bortuko bidetan.

Tuluntak eta junpak lepotik zintzilik,
xakurra ere kontent, bainan ez ixilik;
guziak badoatzi, elgarri hurbilik,
bakarño batek ez du gaur urrats ahulik.

Urte bakotx horrela doa artaldea,
bortuak egin dio berriro galdea;
neguaren iluna barnean gordea,
gaurtik goiti artzaina denen erregea.

Haur batzu etxetarik dira ateratzen,
artzainak xahakotik diote eskaintzen;
bainan ardiak jada hasiak urruntzen,
makila finkatuz du Pettanek segitzen.

Aments bat bezala zaut hau heldu gogora,
amentsetan banoa bortuetan gora;
berriro artzainekin gintaizke gu xora,
berriz etor baladi gure haur denbora.

Egun apez berri

Euskaldun laborari eta pilotari,
Ttotte Saldubehere da egun apez berri.
Igandean bizia eman du Jaunari,
Urruñan hasiko da apezgo lanari,
gu ere hortaz gaude egun otoizlari.

Etsaminak zituzten aurten iragaiten,
orai pausuan etxen ditugu ikusten.
Kuraia guti baitu geroak emaiten,
gazte horientzat dugu otoitz bat egiten,
urrun joan gabe lana aurkitu dezaten.

Nola ahantzi ere gure herritarrak?
Kezka ainitzen jabe baitira bakarrak.
Nekatu ditu asko hoin denbora txarrak,
Jaunak igor ditzala iduzki pindarrak,
egin ahal ditzazten aurtengo belarrak.

Maitasunik ez dago gu baitan sobera,
izaitekotz jendea ardura minbera.
Baztertu urgulua ta ehortzi herra,
herriko besta hotan gaiten alegera,
goxotasunaz denek baitugu beharra.

Armendaritzeko elizan, 1980.07.12

Oiartzungo omenaldirako

Mattini 1981-eko ekainean Oiartzunen egin omenaldirako Ernest Alkatek bidali bertsuak.

Omoreak Oiartzunen baldin badu oiartzuna,
zuek guztiekin dago Alkaten iluntasuna.
Ezin bertzeak hartze du gaur zordun baten maitasuna,
goretsi nahi baitut nik ere Mattinen handitasuna.

Mattinek axal gutti du bainan nasaia da mamiz,
gorputz nekatu batean bihotza du beti irriz.
Zenbat euskaldun poztu dituzu itxaropen eta argiz,
eguneroko kezka guziak omere onaz estaliz?

Agur, hegoko anaiak, agur Mattin maiteari,
guri geiegi emanik pentsa dezala berari.
Jaunak luzaz begira dezan bere xokoan kantari.
Euskal Herriak hartu guziak itzul ditzan etxeari.

Besta on deneri!

Gure bihotz barnetan zer dugu senditzen?
Afrikako berriaz gira gaur argitzen.
Munduaren nigarrak nork ditu aditzen?
Ez bagira noiztenka bertzetaz orroitzen,
gure fedea zertan dugu baliatzen?

Ogi goseak hilik libertate galdez
ikusiak ditugu hoinbertze irlandes.
Poloñan, Afganistan, auzoen bildurrez;
Salbadorren, Libanen itoak odolez;
Jauna, oihuz daudener ez, otoi, erran ez.

Bakantzak jinak dira, zer goxotasuna!
Udako iduzkiak badu oihartzuna.
Euskaldun bihotz onak ote du entzuna
norbait etxeratzea dela ontasuna,
errespetatzen badu gure nortasuna?

Herriko bestak dira, heldu zaut gogorat,
ongi joanen direla esperantza daukat,
deskantsua on baita zernahi bezenbat.
Gure etxe xokotik juaitean bestarat,
orroit berriki galdu dugula gazte bat.

Nitarat gabe egun bazen predikari,
nahiz ez giren aski mintzatzen elgarri.
Elgar maitatzekotan gauden otoizlari,
behatzen badugu gaur gure Jainkoari,
erran nahi derauku: Besta on deneri!

Armendaritzeko elizan, 1981.07.12

Ezkila berria

Hiru ehun bat eta berrogoi ta hamar
urteri hurbiltzean ezkila da zahar.
Sortu berriak horri nola lekua har?
Gaztea irriz eta zaharrak du nigar,
nahiz ez duen harek esker txarrik behar.

Ezkila bat Aiherran dugu bataiatzen,
bainan xahar maitea zendako baztertzen?
Agertarazi duen biziraino deitzen,
gerla, hiltze, sortze ta guziak aditzen,
harek egin lanez gu orroitu gaitezen.

Agur bat hartze baitu ezkila berriak,
harkitzu Aihertarren ongi-etorriak.
Bizitzeko nahia baitauka herriak,
beha zazu zer dion zure gazteriak,
kantatuz herriaren gose-egarriak.

Herriko mezulari hor gau eta egun,
sortu berria den hau maitatu dezagun.
Zeruari begira, bizitik ez urrun,
asteazkenean hau dut ametsetan entzun:
Mattin joan zitzaukula erran nahi zaukun.

Bakotxaren bizia aintzina baitago,
Aiherratik Jaunari otoitzean nago:
mundu guzia baita sosaren esklabo,
ezkila berri huni nuke erran gogo:
jo dezan sort dadien maitasun gehiago.

Herria, 1981.08.06

Doinua: *Xarmagarria zira*

Zonbat laborari nik nigarrez ikusi,
handimandi batzuek nahian iretsi.
Bainan halarik ere nahi dute bizi,
errexegi delakotz juaitea ihesi.

Etxetiar guti gaur edo gutiegi,
lurraren erostea gostatzen geiegi.
Zorteak ez eginik sosdun edo haundi,
heiek ere lukete etxen bizi nahi.

G. F. A. M.-ko taldea ari da lanetan,
Galarreta etxeaz lotu da Arrutan.
Dirua ezartzea holako obretan,
hobea da ezinez Banko faltsuetan.

Duda-mudetan egun batzuak badaude,
Jean-Pierre Mendibur-i egizue galde.
Arrutan langile da kasu horren alde,
laborari etxe bat galtzerat utz orde.

Zenbat lur salduko da Euskal Herri huntan,
edo zenbat joanen lan zerbaiten faltan?
Laguntza ezar otoi laborarietan,
bihar eta etzi guk zerbait jatekotan.

Armendaritze, 1981.12.22
Herria, 1982-01-21

Mattin zendu zenean

Xalbador zenak ziona irriaren giltza,
Mattinen aurpegia zoin bekan zen hitsa!
Gaur ere gaiten otoi zurekilan mintza,
juana zirela ezin sinetsiz gabiltza.

Egutegia, 1982



Mattin eta Xalbador, bertsutan

Aments bat egin dut

Euskal Herri eder batetaz egin izan dut amentsa,
ez dela nehoiz bururatuko nehork ez dezala pentsa.
Zer zoriona euskaldun seme bakotxak sendi baleza
gau ezti batez amentsak neri utzi dautan esperantza!

Amentsak zuen beribilean joan nintzan bidez bide,
herri seinale erderazkoak norbaitek zituen gorde.
Euskara batu garbi eder bat zagon erdararen orde,
lehen aldikotz ikusi nuen bidea neure haurride.

Bakezko bizi eder bat zoan hiri eta herrietan,
euskara baizik etzen aditzen bakotxaren ezpainetan.
Euskal Herria libratua zen, bere haurrak belaunetan,
herria ukatu zuten denak zoatzila nigarretan.

Arraboteak beteak ziren gaztez eta pilotariz,
ostatuetan entzun zitaiken kantu xaramela ainitz.
Lehengo etxe xahar ederrak zagotzin elgarri irriz,
ikurriñaren pare zirela gorri, berde eta xuriz.

Laborariak ikusten ziren pentze eta alorretan,
langileak ere goizetik arrats zirela lantegietan.
Denak gogotik zauden lanean, xede berak bihotzetan:
indar haundi bat egin dezagun herria azkartzekotan.

Jenden artean ez zen senditzen ez urgulu ez herrarik,
lehenagoko etsaia ere errespetatzen zelarik.
Gureak ziren seme martirak maitasunez estalirik,
Euskal Herria askatua zen eta gerlak ehortzirik.

Gure herriak orai artean zonbat odol du ixuri,
horrela luzaz bizi laiteken eni etzeraut iduri.
Gaurko aments hau agertzen bada herriaren salbagarri,
Euskal Herriko seme alabak, egin zaitze amenslari.

Herria, 1982.02.25



Alkat eta Azpillaga bertsutan, eta bi lagun adi

Bazkoa dugu eta bete da eliza,
zerbaiten esperantzan guziak gabiltza.
Amodioa baita biziaren giltza,
urrez espos direnak Jaunak lagun bitza,
Iparreko Battitta, bai eta Katixa.

Bekan ikusten dira holako kasuak,
horra zergatik diren hanbat ospetsuak.
Maitasun seinaleak beti berdintsuak,
zerbaitek laguntzen tu maitale kartsuak,
Bazko argiak edo bihotzeko suak.

Pena emaiten deraut hunen ikustekak:
xaharren trufatzaile ardua gazteak.
Xahartu nahiz gaude batzu ta bertzeak,
atsegin egin beza hunen entzuteak:
elgar maitatu bainan ez konda urteak.

Mende erdi batean bide dute egin,
biziaren zorion kezka guziekin.
Atseginean egun baitira gurekin,
Jainkoari guziek dezagun galdegin
luzaz begira ditzan biak elgarrekin.

Gaurko mundua dago amodio gosez,
herra nagusitu da maitasun eskasez.
Egungo esposeri goresmen bihotzez,
maitasun hedatzaile has gaiten otoitzez,
Jesus ere hil baitzen gu guzien maitez.

Herria, 1982.05.13

Gizontasun osorik oraino badea,
galtzen ari delarik nun nahi fedea?
Gu denen esperantza nun dago gordea?
Jainkoari dezagun helaraz galdea
laster eraikitzeke mundu bat hobea.

Libaneko aldea, Polonia ta bertze,
zonbat herri daudenak libertatez gose!
Justizia eskasa bolboraz da ase,
hemen ere batzuek hoinbertze kurutze,
askotek kondenatzen ditugunak aise.

Udaberria hor da udatiarrekin,
onhartzen ditugula errespeturekin.
Guri junta ditezen dezagun galdegin,
elgarrekin kartsuki gaur otoitz bat egin,
beharrezko euria laster etor dadin.

Lan dorpean herriko bi pilotariak,
aurtengo bestak ere dira etorriak.
Ahanzkizue kezkek, sortaraz irriak,
baztertu alderdiak eta haurkeriak,
goxotasun puxka bat har dezan herriak.

Armendaritzeko elizan, 1982.07.11

Orroit gaitezen zoin ttikia den bizia eta mundua...
Anai bat segitzeko bete da kaperaren ingurua;
sofritzen dutenen soleitzea baitzen zure helburua,
lurrean frogatua zinuen nola irabaz zerua.

Biziaren beldurra bazuen eta bihotzeko hotza,
zure atearen joitekotan nehor ez da izan lotsa;
orai zeruan diren guziak zurekilan ditene goza,
harrokazko gorputza zinuen, balusezkoa bihotza.

Hoinbertze erakaspene baituzu bihotz barnetan ezarri,
zuk erakatsia egun denek ezin eskeini elgarri;
zure maitasun iturri hortaz oraino gaude egarri,
ai zu bezala bagine denak herriaren zerbitzari!

Zure bizitza iragan duzu betidanikan xumeki,
zure bihotz onaren berria euskaldunak gaur badaki;
Jainko Jauna nik gomendatzen dut, zugarat doa umilki,
bertzentzat bizi izan den batek bakarrik hiltzen badaki.

1982.11.21

Eguberriko oihua

Urte guziet bezala dugu Eguberria ospatzen,
Ainitzendako arrats huntan da esperantza bat loratzen.
Jainko Jaun onak gaur baiterauku Salbatzailea igortzen,
gu baino gaizkiago direnez balin bagira orroitzen,
mundu ilun hau argi dadien denak entsea gaitzen.

Rusia eta Amerika gaur nagusi dira munduan,
dirua eta arma guziak dituztelakotz eskuan.
Urrundanikan manatu eta bertzeak daude guduan,
bainan bertzerik galda dezagun Eguberriko oihuan,
herri guziak bizi ditezen elgarren errespetuan.

Lehen zen baino hobeki bada mende huntako xaharra,
gazte batzuen bizi moldeak sortarazten daut nigarra.
Ohartu gabe galtzen baitute behar luketen indarra,
zoin nekez ari diren lanean laster itzaltzen pindarra,
bainan zuk, Jauna, ez bakarrik utz, badute zure beharra.

Noiz nahi eta nun nahi ere itxuraz dira aldatzen,
batean hola, bertzean hala askotan gira mintzatzen.
Bati kausitzen dugula edo bertzea dela kolpatzen,
sortu zeraukun Salbatzaileak denak baigaitu onhartzen,
ahal bezenbat entsea gaiten giren bezala agertzen.

Herritarrentzat, euskaldunentzat hauxet galda ditakea,
denen amentsa litaike segur, bainan hanbat da nekea.
Bazter ditzagun pozoin guziak, bazter sua eta kea,
Jesus Haurrari elgarrekilan egin dezagun eskea,
jende bakotxak ardiets ditzan ogia eta bakea.

Armendaritzeko elizan, 1982.12.24, gauerdiko mezan

Egunkari handi bat, oso ezaguna,
Euskal Herri barnera sartua zaukuna,
edozoinen etxean, iduri laguna,
bainan hastiatzen du jende euskalduna.

Egun batez heldu zen gure etxeraino,
kanporat ezin eman, han dago oraino.
Bere predikuetan ez da oso sano:
urrungoak hobeak etxeokak baino.

Gure hizkuntzan ere hitzño bat edo bi,
berehala horier botatzen dut begi.
Zure joka moldean ez zabilta garbi,
gaizki idaztekotan ez euskaraz segi.

Gutarterat nolazpait baitzinen sartua,
biek dugu geroztik elgar onhartua.
Gure hizkuntzak hartze du errespetua,
nahi baduzu izan doi bat maitatua.

Ikastoletan barna gabiltza oihuka,
gurea den euskara ezin dugu uka.
Zure frantsesarekin ez ginio truka,
gure alderat beraz ez zaitela trufa.

Euskaldun langileak badauzkatzu etxen,
bainan euskaraz guti diezu galdetzen.
Deusik ez emaitkotz zendako eskaintzen?
Zure purruskekilan ez gira asetzen.

Laster muga guziak erortzen badira,
zonbat geldi ditaizke zuhauri begira?
Euskaraz zatiño bat emozu argira,
eta oraiko hutsak zuzenduko dira.

Orai arte zonbat hitz moztu eta hautsi?
Euskaldunak ez ziron deus zuzenik kausi.
Nik ez dautzut eginen geiagoko auzi,
euskaraz idaztekoetz, dakitener utzi.

Emazteaz

Aurtengo Euskalzaleen Biltzarrako sariketan.
Emazteaz lehen prima eremana duen kantua

Nahi ala ez sinesten baitut norbait badagola Jainko,
kreatzearen mixterioa ez dut gordean utziko;
ene ustean, ez zen Jainkoa holako obran hasiko,
emaztekoa ez egitekotz gizonaren iduriko.

Hain segur ere pentsatu zuen, gizonkia kreatzean,
lore bakar bat ez zela aski berak egin baratzean;
emaztekoa ezarri zion berehala sahetsean,
mila lokarri landatu nahiz bakotxaren bihotzean.

Berandu gabe hasi gaitezen emaztea goraiatzan,
orai artean baztertuetan ardura gelditzen baitzen;
gizonak duen indar faltsua ez baldinbadu agertzen,
aitor dezagun hori duela ezintasunez ordaintzen.

Gizonak ez du emazteari behar den giderrik uzten,
nolakoa den bere laguna ez baitu ongi ikusten;
baketzailea den emaztea ez da gudukari hasten,
bere bihotzak erakatsirik umilki denen jasaiten.

Emaztekoa ona zagola ikusi zuen Jainkoak,
gizonak kanpoaz azkar badira barnez baitira flakoak;
bakarrik utziz guzien jabe izanen ziren otsoak,
beren indarra hautsi ez balu emaztearen gozoak.

Berak amenstu erreinu hura andreak hartu baitio,
emazteari gizonak usu botatzen du mendekio;
onhartu behar badauka ere entzutea du hastio:
bi mila aitek ez daukatela ama bakar bat balio.

Ezin ditaike gizona altxa emaztekoa apalduz,
nik ere hori ez dut apaltzen ta gorago ezin ikus;
Jainkoak lehen egin bezala elgarrekin ditzagun utz,
uztarri berak ereman ditzan ildo on berari buruz.

Emaztekiak mintzatzeko nik izan badut atsegina,
dohain guziak ezin aztertu, hori gauza bat jakina;
ez zinitudan gaur goretsiko maitagarri ez bazina,
naizen gizonak deituko zaitu biziaren erregina.

Herria, 1983.06.30

Airea: Xalbadorren Esperantzarik gabeko amodioa

Orai artean gizonen soaz emaztea zen ikusten,
bainan ohartu gabe begiak lanbrostatuak zituzten.
Emaztearen edertasuna horrela zuten itsusten,
hanbat sofrituz baita gizona bere urgulutik jausten,
dena beretzat nahi duenak guti du bertzeri uzten.

Mundu huntako bizia noizbait emazteak du loratu,
Jaunak Adami eman lagunak merezi du errespetu.
Suge tzar batek enganaturik eginik ere bekatu,
mila mespretxu gizonen gatik geroztik ditu pairatu,
nun behar zaion bekatu hori barkamenduz lurperatu.

Lehen lehenik emaztekiak handia du nortasuna,
gizonek ezin hartuzkoa du deraukan umiltasuna.
Neurri gabeko bihotz batean ahantziz iluntasuna,
familiako iguzkia da, etxekoen osasuna,
hortaz umexurtx den etxe batek salaturik dut entzuna.

Goxotasunez iduri duzu hego aldeko haizea,
badakizula nola ezezta bihotzak duen gosea.
Zure laneko eguna beti dorpea eta luzea,
eritasunak jotzen bazaitu gizonarentzat galtzea,
zutaz gabetzen den etxaldea errex da ezagutzea.

Emaztekia gogoan hartuz askotan nigarrez nago,
gizon bihotzak nolaz ez dion libertaterik emango.
Harek hoinbertze eskaintzen eta guk eskatzen gehiago,
zikoizkeriak zilatua den leize handi bat badago,
beti gizona jaunen jaun eta emaztekia esklabo.

Ez dut aipatzen andrea eta ez dut aipatuko ama,
zure ganako zorrari buruz bide hertsitik derama.
Gizonarentzat zorion bada, zuretzat ardura zama;
kreatzearen tresna zirela ez dezagun otoi asma,
neurri onean zu eskertzeko ezin baigintazke berma.

Zapaldua da emaztekoa, gizonak arrak baitira;
denen nagusi nahi duenak bertzeak bota azpira.
Gure gogoan behar litaizken pentsa moldeak balira,
erran ginero: «Elgarren pare Jainkoak eginak gira»,
gelditu gabe kabalen gisa beti gorputzer begira.

Begi berriez nahiko zaitut gaurretik goiti ikusi,
gizonak duen urgulari agertu zaiten nagusi.
Gezurrez eta ttipikeriez zaituztelakotz errautsi,
orai arteko ixiltasuna otoi berehala hautsi,
berdintasunak sortu munduan elgarrekin gaiten kausi.

Herria, 1983.08.04

P. S.- Ernest Alkat-ek aurtengo Euskalzaleen Biltzarraren lehen saria joan zuen erdizka, beste kantu batekin, emazteaz. Bainan bigarren kantu hau ere sariketa berarentzat egin zuen.

Jainkoak zuen gizona egin, egin lurraren hautsetik,
kreatze horren erakaspina ahanzten dugu hargatik;
orroit gaitezen gure biziko balentria guzieren gatik
hauts bilakatu behar dugula bizitza hunen ondotik.

Zoin guti giren hautsaz orroitzen su eder bat ikustean,
dena gar eta pindar baigira gu ere gure ustean!
Egun batean sortzeak eman indar guziak haustean,
maitasunaren garra pitz bedi, gorputzak utzi hauts pean.

Aitortzen dugun sineste hortan handi dugu esperantza,
hautsik gabeko su baten pare zendako beraz gabiltza?
Gure fedea ez dadin izan airean dagon errautsa,
umiltasunak gida dezala eguneroko bizitza.

Sinesten dut, Jauna, Zutan, boteretsu zira hanbat,
hautsetik naiz bizirat jina, bizitik janean hautserat;
errauts batzuen pare baigira itzultzen gira Zutarat,
zure graziak lan egin dezan gizonetik gizonerat.

Zer urguluzko labeak diren gure izaite ezdeusak,
zonbat nigarren eginarazle gure bihotz erdi hutsak!
Jainko Jaunari eskain ditzagun mundu guziko otoitzak,
egungo gerlen sua hil dezan biharko bakezko hautsak.

Armendaritze, Astezken Hauste
1983.02.16

Bazko jin zauku beti bezala gogo bihotz altxagarri,
ilunik dauden guzier egun argia nahiz ekarri;
beha dezagun fedezko begiz urari eta suari,
garbitasuna eta argia zabal diten munduari.

Aste huntan da heriotzea gazte baten bila izan,
hoin maltzurra den eritasuna ezin zuelakotz jasan;
galda dezagun Jainko onari Bazko argiz argi dezan,
aingeruekin lo egin dezan piztearen esperantzan.

Sendi ditzagun munduan dauden nigar eta bihozminak,
hoinbertze zauri gizon batzuek bertze batzuer eginak;
eguneroko gure urratsak ez baitira beti finak,
ur saindu hunek garbi ditzala mundu guziko zikinak.

Heriotzea jasan ondoan gizon guziak salbatuz,
gaur ere Jesus agertzen zaiku, hurbiltzen da guri buruz;
su berri hunek lagunt gaitzala gure fedea azkartuz,
jaidura txarrak erre ondoan bihotz hoztuak berotuz.

Kristo Erregearen bestan

Elizarako denek badugu galdea,
bainan ardura dugu ahanzten bidea.
Edozoin estakuru daukagu hobea,
bainan beti bali da Jainkozko legea,
ospa dezagun egun Kristo Erregea.

Lan eskasak hoinbertze trixtura emaiten,
droga txar horrek aldiz gogoak nahasten.
Hoinbertze gerla bide nun nahi ikusten,
bainan oroz gainetik egun orroit gaiten:
munduaren bakea etxetik da hasten.

Supazter xokoetan dagotzi ainitzak,
han itzatuak ditu adinaren lotsak,
eritasunak edo neguaren hotzak.
Irratitik entzunez gu denen otoitzak,
laster bero ditela xaharren bihotzak.

Geroa guzientzat ilun da agertzen,
bainan haurren kantuak gaitu kontsolatzen,
esperantza herrian dutelakotz sortzen.
Haurren Erregeaz gaur orroitu gaitezen,
ikasteko hobeki elgarren maitatzen.

Armendaritzeko elizan, 1983.11.20

Eguberri denentzat ez ditaike berdin:
batzuentzat atsegin, bertzentzat bihozmin.
Egun eliza huntan gaude elgarrekin,
gaizkiago direnez dugun otoitz egin,
Jesus sortu baitzauku esperantzarekin.

Lan gabezia ainitz trixte eta umil,
heien Eguberria nigarretan dabil.
Atzo lotan zaudenak egun ezin ixil.
Kristo Salbatzailea, egon zaite hurbil,
gure Euskal Herriak ez luke nahi hil.

Haur bat eta gazte bat bertzek hilik utzi,
norbaiten haurrak ziren ez otoi ahantzi.
Zendako bat jujatuz bertzea goretsi?
Jesus Haurrak nahi du konprendiarazi
biziak errespetu duela merezi.

Denen Salbatzailea Haur sortu berria,
zertan da Palestina, zure sort herria?
Noiz arte du Poloñak egungo irria?
Bakotxak merezituz bakezko saria,
betikotz senda zazu gerlaren zauria.

*Armendaritzeko elizan, 1983.12.24
gauerdiko mezan.*

Atzokoari behatuz biharkoari so

Airea: Etxahun-Irurikoaren "Ama" kantuarena

Hogoigarrena den mende huntaz senditzen da gorrotoa,
zorigaitzeko ildo trixtean gibel alderat baitoa.
Erorkor eta aldakorra da, iduri luke ostoia,
lan gabezia daukagularik hanbat gazten min gaixtoa.

Min gaixto hori sartua zaiku Euskal Herriko xokoan,
zauri berdinak egiten ditu iparrean ta hegoan.
Bainan ez otoi lehen bezala denak utzi eta joan,
eri den amak nahi lituzke bere semeak ondoan.

Lur hunek dauzkan lau hegaletan badirade euskaldunak,
norbaitek saldu aments dixtirak bereganatu dauzkunak.
Nunbait dabilta ezin ehortziz beren urriki ilunak,
ahuleziak lapurtuz geroz esperantzazko egunak.

Horiek ere gureak ziren, egun ez bota harririk,
borroka gaiten gaurretik goiti ez dadin joan berririk.
Ez asma ere etorriko den iduzki edo izarrik,
lan gabezia ez da kenduko ukurtu gabe bizkarrik.

Euskal semeak, euskal alabak, zabilzate erdi lotan,
Madrilek edo Parisek eman amoin tzar baten asmotan.
Beha zazue zenbat lan baden gurea den Herri hontan,
hanbat ordainduz arrotz batzuek egin beharrak askotan.

Garbizkitzue ustel zorian ditugun ibai ainitzak,
berriz zutitu diru eskasez lurrean dauden egoitzak.
Doi bat antola herrietako bide hestu eta hitsak,
mendietako pinuak kenduz berriz landatu haritzak.

Zendako utzi gure legeak frantsesen aztaparretan?
Arrain hazkuntza egin lehenik, gero ezarri uretan.
Itsaso hori arraintsu bada nori gindaizke zorretan?
Euskal arraina hobe litaik euskaldunen mahainetan.

Elkartasuna susta zazue bakotxak zuen lekuan,
herri gizonen laguntza ere izan ditaik orduan.
Geroa zaila agertzen bada ez utzi bertzen eskuan,
edozein gerla irabaztekoz ari behar da guduan.

Erakaspenez argizkitzue erortzen diren bertzeak,
droga bidetik baztertu ditzan maitasunaren goseak.
Ezezta ere adin bateko ezinduen oinazeak,
gazten loreak onhartu ditzan xaharraren baratzeak.

Hala beharrak ekarri gaitu mundu nahasi batera,
leize hortarik gaurko gazteak nola behar du atera?
Batzuek lanik ez dute eta bertze batzuek sobera,
elgar laguntzen ikas dezagun bihotzetik bihotzera.

Herria, 1984.08.30

Xenpelar saria rentzat eginak

Arrosa usteldua usainduz

Esperantzan egon ginen
hobeak zirela jinen;
gure amentsak ez zituztela sozialistek hilen.
Nolakoak ote diren
gaur goiti dugu jakinen;
ez dugu ere lanik izango berexteko finen.

Hoinbertze aldiz entzunik,
beren gisarat erranik,
gizonak dauzkan eskubideak zauzkatzen lehenik.
Andaluzak galdeginik
hiru euskaldun juanik,
ungarriz egin demokrazian ez bila gizonik.

Euskaldunak hola salduz,
heien tratua onhartuz,
ez dira gure herri gizonak betan hasi oihuz.
Ohoreaz edo diruz
ixilduak estakuruz,
anaitasunak ez du biderik horieri buruz.

Mintza gaiten sozialistez,
oilaskoz edo ahatez,
guzier ezin kausituz dira ito borondatez.
Arrosari egin kaltez,
lursagartu ene ustez,
erdi ustelak usteldu dira ustelduen maitez.

Madrilek hasi ildoan
nola Parise badoan,
bi aldetarik Euskal Herriak Judas du ondoan.
Aberria dut gogoan,
askatasuna asmoan,
tortura pean anaiak eta gabiltz erdi loan.

Español demokrazia
Franco-rekin ikasia,
ainitzek hori lagundu nahi, hortan da guzia.
Doblean du nagusia:
armada ta polizia,
bien artean euskaldunentzat dorpe da bizia.

Nun daude egun gureak?
Madril aldean gordeak;
Ameriketan edo Afrikan galduak bertzeak.
Hoin luzea den epeak
zabal ditzala ateak,
kartzeletarik etxera ditene gure erregeak.

Gure herria estekan,
lanik ere ezin ukan,
euskara ere ainitzek dute botatu errekan.
Etsitzen baigira bakan,
segi dezagun borrokan,
Euskal Herriaz egin ditugun amentsen ferekan.

Arima onen beldurak,
faltsukeri ta gezurak
ez ahal ditu inharrosiko gudari hezurak?
Gerlaren obra maltzurak
estali beharko lurak,
libertatea nahi duenak etsaiak segurak.

Frantses edo espaiñola,
nornahiren parabola,
zendako ahantz Euskal Herria gurea dagola?
Gernikan dagon arbola,
zainetan dugun odola,
nahi ala ez ezin ditugu ukatu nehola.

1984.10.11

Bozkariozko mezularia

Bozkariozko mezularia etorri da Eguberri,
nahi bailuke bake zuzen bat hedatzea herriz herri.
Zendako beraz gizon bihotzak daude ahul eta eri,
bidea ezin aurkituz edo faltsukerian igeri?
Zure argia, Jesus Haur ona, zabal zazu guzieri.

Gure ustean maluros gaude goiti buruz behatzean,
bainan ez gira ainitzen gisan egarriz edo gosean.
Hiltzen ari den Etiopiaz ixtant batez orroitzean,
edo Xiliaz edo Poloñaz libertate eskasean,
denak Jesusen espero daude Eguberri arratsean.

Zonbait bertsutan ezin dezaket mundu osoa aipatu,
ez eta ere, bixtan den gauza, Euskal Herria baztertu.
Lan gabezia, bortizkeria gutartean dira sartu,
eta gu denak ohartu gabe amentsetarik lokartu,
Zu aldiz sortzen gero hiltzeko bertzeak nahiz salbatu.

Eguberritik Eguberrirat hoinbertze zauzkigu juaiten,
horiek utzi erakaspenez aberastuz bizi gaiten.
Ainitz baitira ere direnak mespretxu pean egoiten,
zikinduentzat Jesus Haurari laguntza dut galdegiten,
bertzen gezurrer tu egin eta fedean iraun dezaten.

*Armendaritzeko elizan,
gauerdiko mezan,
1984.12.24*

Kanpotiarren salatzeaz

Podorean badira iduzki ta izar,
diotenak zer dugun egin behar bihar.
Anaien salatzeak sortzen mila nigar,
bihotzdunak ez daki zoin den kanpotiar.

Ez buru ez buztanik ez dauka legeak,
zapalkuntza itsuan zoin diren trebeak!
Ez ditzagun baztertu batzuen galdeak,
kanporat diktadore eta erregeak.

Askatasun ta ogiz bada gabetua,
etsaieri salatu, hauxe da tratua.
Anai bat balinbada nitaz behartua,
ez diot ukatuko neure teilatua.

Norbaitek eskatua.

Errespetua

Errespetu eskasa zabaltzen sobera,
bide on bakarrean ezarriz nor bera.
Gure alderat beti ez gaitezen lerra,
elgar errespetatuz urruntzen da herra.

Zuzentasuna

Zuzentasunaz ditut amentsak eginak,
bortizkeria dakar obratu ezinak.
Batzu beti garbiak, bertzeak zikinak,
heriotzean baizik ez gaude berdinak.

Libertatea

Hitz gozo aberatsa da libertatea,
bakotxak behar luke hortarik partea.
Errexago litaike gizon izaitea,
balaki idekitzen guzier atea.

Amodioa

Amodioa ere on da aipatzea,
helburu berarekin urrun behatzea.
Loratu laike laster denen baratzea,
baginaki aztertzen zer den maitatzea.

Esperantza

Etsimenaren auzo dago esperantza,
berari galdez denak ardura goatza.
Pizuegi bazauku biziaren latza,
bihotz barnetik hori ez dezagun kasa.

Fedea

Arimaren zeruan fedea da izar,
gizon guzien baitan bada mila pindar.
Jainkoaren hitzetan har dezagun indar,
mundu hau urosago izan dadin bihar.

Nortasuna

Nortasunik ez bada bizitza debalde,
ez nehoren kontra ta ez nehoren alde.
Zerbaiten hobetzeko prest balinbagaude,
agert gaiten nun nahi ahalgerik gabe.

Idekidura

Berekoitasunean itorik urguluz,
lagunez orroitzea ez bazterrerat utz.
Zorionez goazen geroari buruz,
gure gogo bihotzak bertzeri zabalduz.

Orai artean pena dolorez ardura kantari nintzen,
gu baitan dauden dohain ederrak ez bainintuen piztzen.
Bazko urari begiratzean esperantza da finkatzen,
Jainko Jaun ona, berriro ere eskatuz naizu mintzatzen
lagunt ditzazun heriotzeri bataioak nagusitzen.

Lan gabeziak aspaldi huntan hunkitzen du gazteria,
gure ondorat heldu zauzkula hoinbertze bortizkeria.
Gogoan ere hartu dezagun xaharra eta eria,
orroitu ere batasun faltan dugula usu herria,
ilun daudener emazu, Jauna, Bazkoko argi berria.

Batuendako bakantza bide, bertzentzat bildotx jatea,
gorputzarentzat ahanzten dute arimak egin galdea.
Zonbait ikusiz zoriontsu da naski gure eskualdea,
bainan bertzetaz orroitu gabe Bazko saindurik badea,
gizon guzier emazu, otoi, ogia eta bakea.

Eskual Herrian familietan bada ainitz trixtezia,
bertzen penetaz trufatu nahiz baginuke gutizia.
Ortzegun sainduz gu salbatzeko eskaini duzu bizia,
esperantzari zabal dezagun egungo otoitz guzia
argi ta urez handi dadien maitasunaren hazia.

Armendaritze, 1985-eko Bazkoz

Bestak jitean

Bestak jitean aitek ta amek gazte ta haurrak gogoan,
beti aldean ezin atxiki, ezin utz beti kanpoan.
Hemendik hurbil ama gaixo bat bertze mundurat da joan,
bortz haur utzirik negarrez eta miseriaren altzoan,
esperantza bat, Jauna, emazu horien bihotz xokoan.

Beste hoinbertze berri txar dugu aste bat barne jakinik:
hil izan zuten haur baten ama preso zela eremanik.
Ber berak etxen bertze hiru haur gosea ezin jasanik,
auzo guziak elkor ta itsu, etxen zirenak juanik,
zerbait egizu, Jauna, denentzat, baina haurrentzat lehenik.

Bestetan nolaz aipatzen ditut nigarrak eta trixturak,
jendetan ere aurkitzen dira otsoak eta zakurrak.
Elgar maitatu nahi badugu bazter ditzagun beldurrak,
bestetarat jin etxen utzirik behako ilun maltzurak,
omere onak azkartu ditzan Armendaiztarren loturak.

*Armendaritzeko elizan,
1985.07.14, herriko besta egunean*

Trixezian delakoan
Colombia dut gogoan,
bainan hoinbertze gauza itsusi dauzkagu ondoan.
Beldurra ere golkoan,
etxen ez bada auzoan;
esperantza bat, Jesus maitea, emozu gaurkoan.

Eriz edo gosez frango,
Hego Afrikan berexgo,
hoinbertze gerla, hoinbertze herra beti bortitzago.
Jesus, dautzut galdegingo,
zailegia ez badago,
zuzentasuna eta bakea noiz diren izango.

Gure artetik hoinbeste,
urte berean zoazte,
etxean utziz nigarrak eta zonbat bihotz hauste.
Nola zahar, nola gazte,
ez ginituenak uste,
zeru gainean Eguberria gozatu bezate.

Lanik gabe gazte hanbat,
gutartean ere zonbat,
bizian ezin sartuz dabilta kezkatik kezkarat.
Ahantzi nahiz ixtan bat,
juanen baitira bestarat,
egizu, Jauna, denak osorik sar ditene etxerat.

1985-eko Eguberri, Armendaritzeko elizan

Gure mendi ederrek dute arrakasta,
ihiztariek ere egin nahi besta.
Bihotzean baitute plazerraren kezka,
larrazken baketsurik batzuentzat ezta.

Badelakotz paatxa ta berdin ezkurra,
usoek gelditzeko ahanzten beldurra.
Gizonek tirokatzen dituzte ardura,
bidaia ez dezaten uroski burura.

Negua senditzean urrun badoatzi,
bizitzeko sortuak eta nahi bizi.
Ihiztariari nola konprendiarazi
plazerra ezin dela hiltzeaz erosi?

Batzuetan ainarak, ondotik usoak,
gure ganat etortzen nolako multzoak.
Neguaren dorpeak urruntzen gaixoak,
gainerakoan dira gu idurikoak.

Sasoin ezitia maite, negua hastio,
mendi ta oihanentzat dute amodio.
Hegaztinen bizitzak baluke balio,
bolbora ezartzean miletan kario.

Izar batzu iduri uso ta ainarak,
heldu dira alaituz euskaldun bazterrak.
Hoin baketsua dagon beren primaderak
erre bitza betikotz gizonaren herrak.

Ongi etorri, Urte Berria

Ongi etorri, bihotzez agur zuretzat, Urte Berria,
esperantzaren amentsa dugu zure baitan ezarria.
Gure artetik haiza beldurra, urrundu bortizkeria,
zuzentasunaz egin bakean sar dadin Euskal Herria.

Kontsola zazu bere haurretaz kezkan dagon burrasoa,
kuraiak ere lagunt dezala eria eta preso.
Berriz sar bedi gure etxerat hasarre zagon auzoa,
anaitasunak zabaldu dezan bere izaite osoa.

Bozka urteak ez dira ere denentzat irringarriak,
batzuek maite beren buruak, bertze batzuek herriak.
Denek gogoan har ditzatela jenden gose egarriak,
izan ditezen gizonak ere gizonen zerbitzariak.

Eliza ere egon dadila bere herriari hurbil,
egungo gazten esperantzari ateak zabalduz umil.
Maitasunezko hitzak ez bitza batzuendako erabil,
lagundu gaitzan Euskal Herrian eskuz esku gaiten ibil.

Armendaritzeko elizan, 1986.01.05

Parisen girenak

Martxoaren 20-ko euskal bestarentzat

Euskal Herriko ume Parisen girenak,
bide berdintsuetan iraganak denak;
batetaratuz gure atsegin ta penak,
zerurat doatzila xede hoberenak.

Elgarri hurbil bainan kasik urrunean,
zoin bere xokoan ta zoin bere lanean;
maitatzen dugun besta jin da azkenean,
egun bat gozatzeko anaitasunean.

Gutartean batzutan xixta ta erasi,
«hi bahiz ta ni banuk» pindarka doatzi;
daukagun batasuna ez kolpa, ez hautsi,
ta elgarren onhartzen dezagun ikasi.

Orroit gaitezen ere bertze euskaldunez,
preso direnez eta eri ta xaharrez;
orroit ere herrian maite ditugunez,
euskaldun besta huntan denek bat eginez.

Armendaritzen, 1986.02.02

Batzuk fedea sakelan dute, bertze batzuek elizan,
nahiz guziak sortuak giren zerbait sinesteko gisan.
Kezka ttipiek ere ardura lotsa arazten bizitzan,
orroitu gaiten Jesusek zonbat guretzat dituen jasan,
zerbaitetarat entsea gaiten piztearen esperantzan.

Garizumako denboran berdin aments berriak eginak,
bainan zoin laster baztertzen diren xede onak eta zinak!
Beti bertzeak makurrak eta gu zuzenak eta finak,
uste dut denak ahulezian izaiten giren berdinak,
ur saildu hunek garbi ditzala gu bakotxaren zikinak.

Bihotz barnerat hartu dezagun Bazkoko erran nahia,
bi mila urtez eskaintzen dauku Jesusek bide garbia.
Ordukoentzat egia zena oraino ere egia,
munduak egun gorputz ederra bainan ilun aurpegia,
armenugarra itzal zazu ta eman bakezko argia.

Guziak goaz beti aintzina, naski erran gabe doa,
nahiz gaizkirat juaiteko ere beti prest dugun gogoa.
Zonbaitek denak soberakin ta bertzek eskas jatekoa,
gizon izena duen bakotxa egizu hobeagoa,
denek gozatu dezagun zure piztea eta Bazkoa.

1986.03.29, Bazko gaua, Armendaritzeko elizan.

Herri urrats gogoan

Mila kezka ta pataska,
hola bizi da *Seaska*,
esperantzaren indar berriak oraino badauzka.
Zatoz gurekilan lauzka,
euskara dezagun aska,
bide luzea daukagu eta goazen urraska.

Duda izpirik ez ukan,
maiatzak duen hamekan,
Senpereraino etor gaitezen kantuz errepikan.
Bertsu, dantza ta musikan,
zangoak bustiz errekan,
ikus dezagun gure hizkuntzak geroa nun daukan.

Zu, ikastolako haurra
edo burraso suharra,
ez etxean utz aitatxi eta amatxi xaharra.
Ekarri zuen indarra,
badugu denen beharra,
salbatzekotan Euskal Herria ta gure euskara.

Etorkizunari zina
zazpi haurridek egina,
denek begiak zabal ditzagun ordua da jina.
Seaska-rren gaurko mina
ez da sendatu ezina,
herriarekin urratsez urrats elkartzen bagina.

Herria, 1986.04.24

Ainitz eskualde ikaran daude izotz, horma ta elurrez,
Orroit gaitezen beraz guziak eriez eta xaharrez.
Hoinbertze jende burdin bidetan etxerat sartu beharrez,
bertze hoinbertze gutarik hurbil bizi nahi ta beldurrez,
kontsolazkitzu, Jauna, guziak egungo mezu ederrez.

Gure xokoa baztertu eta bertzez orroit daitaieka?
Zuzentasuna karioa da, fama txarra da merkea.
Sobera usu baztertzen dugu gu baitan dagon fedea,
Jesus maitea, guzien partez egiten dautzut eskea,
euskalduneri emazu, otoi, ogia eta bakea.

Bizi moldea dorpea dago, handia da larderia,
etsitua da xaharra eta oihuz dago gazteria.
Langileria kezkatua da, berdin da laboraria,
halarik ere Eguberri da eta gaiten bozkaria,
Zutan sinesten duten guzier, Jauna, emazu irria.

Armendaritzeko elizan, 1986.12.24

Panpi Laducheri

Airea: Pilotarien biltzarra kantuarena

Hogoi eta hamabi urte,
Panpi, ditutzu bete;
oraino zaude arras gazte,
ta luzaz egon zaite.

Azkaineko seme Panpi, guziz ezaguna,
pilotari hoberena agertu zaukuna.
Xapeldun handi da bainan nolako laguna!
Ospa dezagun alaiki urteburu eguna.

Trinketean hasi zinen ta plazan segitu,
hemen gaindi hoberenak errexki garaitu.
Bertzalderat juan zinen, handiak aurkitu,
haste hartan sofritzeak fruituak eman ditu.

Suerte txarra ere naski izana askotan,
espaldatik besoraino ez bazen zangotan.
Borrokatuz hain gogotik ezker paret hortan,
garaipena zagon beti esperantzaren bortan.

Hurbiletik ginituen segitzen urratsak,
guretako zaudelarik berri aberatsak.
Batzuetan ximiko bat hartu du bihotzak,
ez guk nahi bezain laster obraturik amentsak.

Españaiko xapelketa irabazi duzu,
ipar aldeko batentzat kasik ez zen haizu.
Ainitz jende errabian utzi baititutzu,
ongi presta zaite berriz ta kasu eman zazu.

Indarrean otsoa eta zaluan erbia,
asko aldiz ere duzu egin axeria.
Bien kontra ere zira jokatu berria,
bainan kasu: lau besoek badute larderia.

Arras urrun zabaldu da zure oihartzuna,
aitaren bide onetik ibilki duzuna.
Ikastolen alde ere galdatu zaitzuna,
onhartu duzu agertuz zure euskaltasuna.

Gora dago, Panpi, zure fama ta omena,
jakina dut bazterretan erraiten ez dena.
Kantaria ere zira, botza zoin ozena!
Ta bestaren egiteko ez zirade txarrena.

1987.07.11

Ongi etorri, Jesus maitea

Ongi etorri, Jesus maitea, gure agur beroenak,
berriro ere sortu baitzira salbatu nahian denak.
Salbatu otoi azken urtean zure ganatu direnak,
eta argirat aterazkitzu gau ilunean daudenak.

Aberetegi xume batean pobreki zira sortua,
ospetsu eta handiendako baitzaukaten ostatua.
Geroztik ere molde berean ibilki baita mundua,
lagunt gaitzazu zuzen dezagun handi ttipien gudua.

Euskal Herrian ere merke da kezka edo arrangura,
biziarentzat, geroarentzat nor nahik badu beldurra,
«Bertzeak txarrak, bertzek obenak» mintzo baigira ardura,
erakats nola menpera daiken gure mihi luze hura.

Denentzat ona izan dadila heldu den urte berria,
gaurko mezuak gu baitan sortuz bakearen egarria.
Bazterturikan lehengo herrak, ahantzirik alderdia,
batasunean ezar dezagun herri hunen gazteria.

*Armendaritzeko elizan,
Eguberriko gaueko mezan. 1987.12.24*

Egiari bihotzez egiten dut agur,
bainan egian ere jendea da uzkur.
Bide onena dela Alkat beti segur,
erran behar dut bada: ez gelditu beldur,
gezurrak betidanik zangoa du labur.

Hainbertze auzi bada nun nahi gaur egun,
bakotxaren bizitza ezartzen da ilun.
Egiaren bidea hertsu da ta urrun,
bainan denek egia har dezagun lagun,
betiko gezurtiak salatu ditzagun.

Gezurra merke dela nun nahi ohartzen,
bainan gutarik gutik hau dute onhartzen.
Gezurra entzutean ni ere oldartzen,
egia laguntzea dautzuet galdatzen,
gezurrarekin ez da deus ere salbatzen.

Eiheralarren, bertsulari-txapelketan,
1988.03.03-an, kantatu bertsuak.

Herria, 1988.03.10

Diario de Navarra, 1988.04.03

Esperantza gogoan

Airea: *Dama gazte xarmant bat*

Nun nahi entzuten da: «Zoin trixte zirezten!»,
nahiz urrunekoek gaituzten miresten.
Ari gira batzuen prediku iresten,
ta gure esperantzan ez dugu sinesten.

«Denak gaizki doatza» betiko leloa,
bertzea beti ergel ta buru beroa.
Kontseilu emaiterat segurki ez noa,
bainan gure gain dago guharen geroa.

Bakotxaren etxean edo herrietan
biziaren gostua itotzen penetan.
Eskualdun odoletik badugu zainetan,
ez gaitezen sobera fidatu bertzetan.

Auzoan salda ona, ederra mahaina,
ortziralea gabe jaten da arraina.
Ahul izana gatik har dezagun gaina,
altxatuko baitugu guhaurek eraina.

Hoinbertze gertakari gaur Eskual Herrian,
batzuek nigarretan, bertzeak irrian.
Etsimenduak gaitu hartuko azpian,
esperantzik ez bada ezartzen bizian.

Bortizkeria dela ta lan gabezia,
droga ere jendea beldurtzen hasia.
Eritasun bat ere oso berezia,
orroit ederra dela hargatik bizia.

Eskualdunen alderat merke zapalkuntza,
ez dezagun bertzeri galdatu laguntza.
Bihar berde ditaik egun dena beltza,
atxiki sinestea eta esperantza.

Aitatxi, amatxia, aita edo ama,
gaztearen bidea bizitzak derama.
Has gaitezen arintzen biharkoen zama,
esperantzaz eginez geroaren arma.

Armendaritze, 1988.03.07

Kanta dezagun Bazkoa

Piztea baino ederragorik gizon bizian badea?
Gauza txarra da beti ageri, gauza ederra gordea.
«Zer ari gira bizitza huntan?» egiten dugu galdea,
Kristo ere zen kondenatua, hesten zioten atea,
bainan pizteaz aldatu zuen handimandien legea.

Batzuk ez dute nahi bizian arrangura edo lanik,
denak eskurat nahi ditugu, guhaurek guti emanik.
Erromano ta juduek ere asko bazuten jadanik,
Bazkoa ere ezin da goza erdi lotan ta etzanik,
Berri Ona da gureganatzen Jainko Semeak erranik.

Denek azkarrik daukagulakotz biziaren egarria,
esperantzaren iturriraino bihotza du ekarria.
Atseginerat bihur dezagun bizitzaren larderia,
alegrantzia zabaldu nahiz hunat bildu da herria,
kanta dezagun Bazkoa eta pizteak duen berria.

Eriak eta xaharrak ere beren etxean maluros,
lan gabezia edo kartzelan zorionik ezin eros.
Kontsolamendu ta esperantza denek behar dute Bazkoz,
etsimenduan dauden guziak agertu ditela airos,
urostasunak lagun gaitzala denentzat Bazko delakotz.

Armendaritze, 1988.04.03, Bazko eguna

Germena eta Luis

Airea: Galerianoarena

Aire xahar batean noa kantatzera,
ezteiak dira eta gaiten alegera.
Mende erdi bat badu josirik batera,
kantuz zela Hazparne, laguntzat Aiherra.

Pesenian zen Luis, Garraldan Germena,
zoin ote zen lehenik agradatu zena?
Ezkondu ziren biak, zer bide zuzena!,
urrun heda zadien Garat-en izena.

Zelai ez da Hazparne nahiz izan bortan,
ez gaiten berriz sartu auzi xahar hortan.
Etxe horren geroa segurtatzekotan,
laborantzan gogotik lotu ziren Lordan.

Bien amodiotik zazpi haur sortuak,
nahiz ainitz herritik diren airatuak.
Denetarik badela gira ohartuak,
bainan uroski biga etxean lotuak.

Erran bezala biek lantzen dute lurra,
petrola ez duenak nuklear tzar hura.
Bertze baten burua airean ardura,
ta Anitak utziak Frantxuak zerura.

Ama eta aitari denen goresmenak,
ahanzkitzue egun griñak eta penak.
Zordun gelditzen gira gutiz gehienak,
ez baitziren errexak altxatzeko denak.

Mende erdi batean maitasun osoan,
elgarren uztarran lotuak ildoan.
Zuek egin guziak ditugu gogoan,
ainitz ikasi dugu guk zuen ondoan.

Leial elgarri eta leial etxeari,
amodio berean bermatuz lanari.
Elgarrekin dezagun galda Jainkoari
eman dezan bizitze eta osagarri.

Esker beroak eta milaka zorion,
luzaz nahi ginuke zuekilan egon.
Ainitz zor duen haurrak huna gaur zer dion:
holako ait'amarik ba ote da nehon?

Azken bertsu bat ere denendako on da,
Emile, Peio, Maite, Tan, dezazuen konda.
Paxkal handituz doa, Xabina lo ez da,
gostuan egon zaizte, biziko da Lorda.

1988.04.03

Europari begira

Airea: *Antton eta Maria*

Europari begira baitago mundua,
euskaldunentzat ere jina da ordua;
bakotxaren gain baita geroko kargua,
elgarrekin dezagun eraman gudua,
Euskadiz egin gabe ahate maingua.

Borroka berdinean gutiz gehienak,
gu bezain asto daude dirudun daudenak;
ipar eta hegoa uztar gaiten denak,
pentsatu gure gauzak direla onenak,
ahaterik ez baitu petrola duenak.

Elgartu gaiten laster Euskadi maitean,
Europarat sartzeko guziak batean;
mila bide dauzkagu elgarren artean,
arnoan eta gasnan edo ahatean,
guri dago joitea geroko atean.

Egun hasiak gira bihar segitzeko,
asko lan baitaukagu bururat heltzeko;
hasi gaiten elgartzen elgar maitatzeko,
gure artean dauden mugen baztertzeko,
herri hunek hori du aski salbatzeko.

1988.06.22

Herriko erretor aldatze

Airea: *Antton eta Maria*

Frantxua Garat adixkideari

Eskerren landarea noizbait dadin lora,
kantu hau eskaintzen dut Lapurdi xokora.
Agurtzen dut lagun bat eta erretora,
ez baitu alferretan iragan denbora;
orroitzapenak zauzkit etortzen gogora.

Norbait zinela denek ginuen entzuna,
eskola handikoa, guziz jakintsuna.
Apezaren larruan zer gizontasuna!
Xinpleziari duzu lotu maitasuna,
gora agertuz beti zure nortasuna.

Gizona gizonekin urrun zadin joan,
zu laster jarri zira xumeen ondoan.
Beharra zutenekin loturik ildoan,
ez zira nehoiz sartu handien zepoan,
ta are gutiago burgesen lerroan.

Fama txarrak askotan dituzte hedatu,
herria bihotzetik baituzu maitatu.
Daukazun oneziaz ainitzak behartu,
zaude ziren bezala, ez bester behatu,
zuzena izaitea ez baita bekatu.

Ainitzen izenean har gure eskerrak,
euskaldunki atxikiz euskaldun bazterrak.
Zorra dautzu herriak, zorra du euskerak,
bakar batzu badira oraino minberak,
zendako aipa daizke? Mintzo dira berak.

Ezpeletarat juanik baditugu penak,
bainan kargua dauka merezi duenak.
Hor ere baditaizke pozoina dutenak,
fedez lagunzkitzu izaiten onenak,
aski bihotz baduzu maitatzeko denak.

Ardi txarrak ez baitu artzain on beharrik,
gora mintzo zirenak mintzatzen apalik.
Frantxua, ez zerautzu faltako ahalik,
badakigu, hor ere ez zira bakarrik,
ta gu denen ateak dauzkatzu zabalik.

Suerte on, Frantxua, beraz Ezpeletan,
oraino mila gauza dauzkat ezpainetan.
Kantatuko ditugu adixkidek betan,
“Bakeaine” hortarat jiten girenetan,
urruntzerik ez baita lagun leialetan.

Herria, 1988.10.20

Urte betetze batentzat

Airea: Antton eta Maria

Ezpeletako Darraidu auzapezaren andrearen berrogoi urteentzat

Omore onarekin has gaiten kantatzen,
maite dugun lagun bat dugula laudatzen.
Haitzaren itzalpean Itsasun sortu zen,
onddoen gisa ere han hasi beltxatzen,
berrogoi urte ditu airoski ospatzen.

Enbata haizearen perekaz gozatuz,
Aberri Egunaren besta ziron ikus.
Janarien usainer sudurra luzatuz,
Darraidou kozinera espos lagun hartuz,
Ezpeleterat joan zen Euskadiri buruz.

Euskadin bizi dena dago herrikoa,
geroaren pizteko baluke gogoia.
Biperra ona baita Ezpeletakoa,
horrekin molda bitza tripotx ta axoa,
egin dadin andre bat ehun urtekoa.

Berrogoi urte ditu lehen aldiz ukan,
nahiz holako gauzak hobe diren bakan.
Ez beti lanarekin gelditu estekan,
entzun lagun taldeak zer asmo deraukan,
egin dezagun besta irriz ta kalakan.

1988.11.29

Droga gogoan

Airea: Xalbadorren *Esperantzik gabeko amodioa*

Mila hizkuntzen artean ere egiten bada hautua,
mundu osoak ezinbertzean hitz bakar bat du batua.
Aments faltsuen iturria da droga dutena deitua,
hoin garbia zen Euskal Herrirat zorigaitzak du sartua,
itxaropenak zabal dezala hasterat noan kantua.

Diru hutsaren morroiak dira droga horren nagusiak,
gizontasunak dituen mugak dituztelarik hautsiak.
Anaiak hilez dituzte beti zuzentzen beren auziak,
bihotzak duen maitasunetik sosak ditu biluziak,
bainan errexki saretan sartzan ahulak diren guziak.

Maitasun faltan, lan eskasian laster bilatzen urtzoa,
loa arina dagoenetan amentsak baitu gozoa.
Beti bertzea bide txarrean, anaia edo auzoa,
etsimenduak lanbrostatzen du drogatuak duen soa,
ezin ukanen amentsetan du suntsitzen bizi osoa.

Drogatuaren ezinbertzea nahi izan dut aditu,
gaztetasunak eman argia nola ote zaion histu.
Ustelkeriaz egin munduan mila arrazoin baditu,
zuzentasuna ta justizia nahi luzke berriz piztu,
altxagarritzat droga hartzen du, gero ezin da zutitu.

Herritarretan, etxekoetan, gutik dute konprenditzen,
beren ustean ez delakoan bide beretan ibiltzen.
Gordean duen bortizkeria amentsez badu arintzen,
nuklearrari edo gerlari gitarraz badu agintzen,
porruak eman askatasuna ez baitu nihun aurkitzen.

Biziak duen handitasuna ainitzek egiten diruz,
nortasunaren jabe ez dena betikotz leizean sartuz.
Zuri mintzo naiz orai, gaztea, osoki errespetatuz:
ez dugu nehoiz deus aldatuko aments xoroak xurgatuz,
bainan biziko mail guzietan egunero borrokatuz.

Zainetaraino senditzen duzu libertatezko gosea,
nahiz txarra den aztertu gabe guzien kondenatzea.
Bilatzen duzun zorion hura ez dago ezinbertzea,
lehen pausua hauxe ditaik: lagun batzu aldatzea,
eta usteen etsai direnak lagunentzat onartzea,

Naski geiegi agertzen da gaur ospetsuen parabola,
onart dezagun nahi ala ez droga gu baitan dagola.
Izpiritua nunbait daukagu, pozoindatua odola,
batzuekako politika da, bertzentzat aldiz alkola,
eta ez dea drogaren pare purua edo futbola?

Euskal Herriko buraso onak, gizon eta emazteak,
zer ekar diro etxekeeri gure begien hesteak?
Denak ahulak, denak erorkor, batzuek ala besteak,
ez kondenatu, bainan zabaldu maitasunaren ateak,
altxa ditzagun guk egin hutsez erori diren gazteak.

Hau edalea, hura alferra, bertzea aldiz ergela,
gazten aldeko maitasunak du apirilaren epela.
Guziak aldiz guri galdezka ezin eginez bertzela,
elgar lagunduz joka gaitezen gizondu gaiten horrela,
sekula santan ahantzi gabe denak drogatzen girela.

Herria, 1988.12.22

Argia, 1988.12.25

Luc Minaberry gogoan

Euskal Herria maitatu eta zerbitzatu duen Paristar bati

Parise utziz etorri zinen Euskal Herriko xokora,
euskaldunekin iragan nahiz libro zinuen denbora.
Guzien kezkek ta arrangurak bildu ondoan gogora,
bihotz barnetan erain zinuen maitasunaren bolbora.

Luc Minaberry, lan gabeziak egiten zaitzun zauria,
ta penarekin ikusten ere bazoala gazteria.
Ez nahiz hola hiltzerat utzi maite zinduen herria,
bertzen alderat idoki duzu zuhauren nahi berria.

Bihotz barneko bizi nahia bertzeri duzu emanen,
ahal guzia herri hunentzat gogotik duzu eginen.
Zure izena ahanzteraino euskaldun zira izanen,
hemen zelakotz zure kafira eta bizi nahi hemen.

Zure lanak ta zure erranak nun nahi ziren agertzen,
herri eder hau mugi arazten zinelarik entseatzen.
Ikusi zaitut ere askotan euskal bestetan aurkitzen,
zure andreak maitaraziak baitzinituen maitatzen.

Paristar askok gure herriaz dute hanbat estakuru,
denen nagusi agertu nahiz, izan nahiz denen buru.
Zinakiena bertzer eskaini, hori zinuen helburu,
zerbitzari bat galdu du eta nigarretan da Arberu.

Eguberri batez

Meza batetan kantatuak

Ainitz eskualde ikaran daude izotz, horma ta elurrez,
orroit gaitezen beraz guziak eriez eta xaharrez;
hoinbertze jende burdin bidetan etxerat sartu beharrez,
bertze hainbertze gutarik hurbil bizi nahi ta beldurrez,
kontsolazkitzu, Jauna, guziak egungo meza ederrez.

Gure xokoa baztertu eta bertzez orroit ditaieka?
Zuzentasuna karioa da, fama txarra da merkea.
Sobera usu baztertzen dugu gu baitan dagon fedea,
Jesus maitea, guzien partez egiten dautzut eskea:
eskualduneri emazu, otoi, ogia eta bakea.

Bizi moldea dorpea dago, handia da larderia.
Etsitua da xaharra eta oihuz dago gazteria.
Langileria kezkatua da, berdin da laboraria.
Halarik ere Eguberri da eta gaiten bozkaria.
Zutan sinesten duten guzier, Jauna, emazu irria.

Martxelin Zubiriri

Airea: *Ttiki ttikitik aita ta amak*

Urte buruak urte guzietz, bainan zoin arrado ehun,
ainitz sofritu duten jendetan bakarrik baita ezagun.
Bildurik hemen familiako adixkide eta lagun,
Martxelinekin egun eder hau airoski ospa dezagun.

Uztaritzeko herri maitean sortua zira, Martxelin,
ezkontzaz aldiz Ezpeletako Xerrenda alderaino jin.
Eiherazain bat laguntzat hartuz izan zinduen atsegin,
bainan bizia ilundu zaitzun senarra galtzarekin.

Bi alabaño bazinituen, zu alarguntsa gaztea,
ez zen hain segur gauza errexu bizia irabaztea.
Lana beharrez ostatuetan joiten zinuen atea,
ohorekilan egin nahian zure bi haurren haztea.

Ostatuetan zerbitzuan ta gero etxeko lanetan,
hiru behien artatzen edo baratzeko alorretan.
Baratzekari horiek gero zuk saltzen merkatuetan,
zer eltzekari onak jan diren zuri esker bazterretan!

Jainko Jaunari eskaint ditzagun zure lanak, zure penak,
ohoragarri, etsenplu bide guretzat baitira denak.
Gaur bezain ongi aurki zaitzala ehun eta batgarrenak,
ta anartean hartu, Martxelin, zorionik beroenak.

Ezpeleta, 1989.01.15

Ernest Alkatek idatzi eta Pierre Itoiz-ek kantatu bertsuak.

Eliza ere usu galdezka dabila,
bertze ainitzen gisa, bide onen bila.
Entzun eta barkatu ene hitz umila:
artzainen nagusia kontura dadila
buru batetik dela ibiltzen makila.

Eri eta xaharrak lagundu ditzagun,
oihuz dauden gazteak bihotzetik entzun.
Xangre, droga ta sida gure ganik urrun,
giltza pean direner eman askatasun,
eta gu denen baitan geiago maitasun.

Ona ekar dezala bozken aipatzeak,
laster ez ditzen sortu suak ta haizeak.
Bihotza du galdatzen karguan jartzeak,
ez beza nehor gora bertzen apaltzeak,
ez eta ere hantu ohore goseak.

Lur ikara, ixtripu, hoinbertze dolutan,
gerla dela medio herri ainitz sutan.
Laguntza galdatzeko zoin gure kasutan,
Jauna, gaude otoitzez fidantziaz Zutan,
bihotzak berrizkitzu garizuma huntan.

Armendaritze, 1989.02.11

Botzak Angelun

Airea: Xorteko laguneri edo Antton eta Maria

Omore onarekin bilduz zonbait lagun,
heldu zauzkigun bozkak aipatu ditzagun,
hobeki bizi diton kaskoin ta euskaldun,
Herriko Etxe hori guretu dezagun,
gizon onen beharra baitago Angelun.

Angelu hontan alta bizi lorietan,
itsas hegian edo pino azpitan;
lantegien amentsak zoko guzietan,
aza, porru ta kuia nasai baratzetan,
gainerako guziak auzo herrietan.

Hurbil da Miarritze, hurbil da Baiona,
baliatu dezagun bakotxaren ona,
elgarrekin asmatuz denen zoriona,
gureztat egon dadin gurea dagona,
atzarri euskalduna, atzarri kaskoina.

Primadera hitzeman, eskaini negua,
hori da politika bainan lehengua.
Zatozte gurekila, jina da ordua,
kentzen ahal baitugu Bitorri kargua,
bertzela da Angelu betikotz galdua.

Herria, 1989.03.02

Esker onez Imanoli

Airea: *Dama gazte xarmant bat*

Kotxeko permisa edo karneta kendu zidaten ezer gertatu gabe,
poliz gizon baten errana gatik.

Hamahiru urtekin izan nintzan Paben,
bideko jakintzetan agertuz bigarren.
Hogoi ta hemezortzi baititut eginen,
kantatzerat banoa bihotzeko penen.

Guziz hiri ederra Paueko hiria,
orai arte neretzat zoin maitagarria!
Bainan poliz gizonak badu larderia:
berdin gorri ikusten berde den argia.

«Gorria erre duzu» dautate erraiten,
nahiz eta frogarik ez dutan izaiten.
Egiak utzi eta gezurka has gaiten,
zuzenak ez du Pauen berea emaiten,

Egiz edo amentsez argia errerik,
norbaitek egin duke han irri ederrik.
Ibiltzeko ez daukat gaur eskubiderik,
ta berebila ere jarri da trixterik.

Galde batzu egiten hasi naiz horrela,
hola gaztigitzeko zer asma bertzela?
Irulegi arnotik nerekin nuela,
uste zuken Ikako gazte bat nintzela.

Zuzen ibili behar, ez dago dudarik,
horren ondorioz dut nik lana galdurik.
Poliz gizon horrentzat nago oharturik
hil eta ez daikela zeruan sarturik.

Egin dutan huts hori izanez egia,
gaztiguana ez deraut egin alegia.
Poliz horri beltzatu nezake begia,
eztitzeko ez banu Imanol Egia.

Imanol eta Koxe, esker onak hartu,
ez nadiela usu zuetaz behartu.
Ene hasarrea da bihurtuko kantu,
bainan poliz gizonik ezin dut maitatu.

Armendaritze, 1989.04.02

Ezpela-ren itzalean

Airea: Ttiki ttikitik aita ta amak

Ezpela taldearen 20-garren urte muga

Ezpela gure talde ederra sortu zen Ezpeletatik, kanpoan ere saltoak hasi Normandia eskualdetik. Lehoina bezain borrokalari ainitz egin du geroztik, gaur hogoi urte ospatzen ditu, arras gazte da oraindik.

Lagun arteko adixkidantza orhatuz bihotz xokoan, kantu ta dantzak erein zituzten ezpel ostoen ondoan. Berrogoi eta hamar hurrekin badago fruitu altzoan, baratze hori lantu dutenak atxik ditzagan gogoan.

Jeanot Nesprias dantza munduan ez dago gizon ahula, Haristoy jaunak gazten alderat bazauzkan mila karkula. Erramusperi «badakit kantuz» ez otoi erran sekula, ta, Maurizio, xixtuz jo zazu, hogoi urte ditutzula.

Denbora txarrak histu zituen *Ezpela*-ren koloreak, ta baratzea laster airostu haur ttipien omoreak. Lehengo hurren hurrak hor dira, hartu denen ohoreak, Ezpeletari utzi biperra, ezpela eta loreak.

1989.04.20

Eskola sartzea gogoan

Airea: Luzaideko izarra

Beren bakantzak ezin ahantziz haurrak sartuak eskolan,
eta jadanik burraso batzu hasiak dira karkulan.
Mirakulurik aurten ere ez, guzientzat lan eta lan;
denen bizitza dorpea baita, ez otoi etsi sekulan.

Segi gogotik, gazte maitea, ta berdin zuk ere, haurra;
onen lerroan izaitekotan erakuts zure indarra.
Egun daukazun pindarra daike geroarentzat sugarra,
Euskal Herriak baituke bihar eskolatuen beharra.

Bere haurrentzat nor ez da ari dena galde eta galde,
nere bihotza beti zabaltzen ikastolakoen alde.
Ingles, español edo latina, izan zaizte denen jabe,
bainan horiek otoi ikasi euskara ukatu gabe.

Eskolan sartu haur horietaz erdi amentsetan nabil,
bihar herri hau zuena daike balinbazirezte abil.
Jakintza asko bila zazue, xendra guziak erabil,
edo bertzela biziko zaizte beti bertzen esku makil.

Herria, 1989.09.28

Biperrari

Biperra da ospatzen egun Ezpeletan,
gostuz ez bada hitzez dugu ezpainetan.
Jauna, eztiki gabiltz fedezko lanetan,
biperretik emazu gure bihotzetan.

Gu denen baratzeak jartzen dira irriz,
biperrari eskerrak, berdez edo gorriz.
Elgarrekin bermatuz egin daike ainitz,
gurea den herri hau ezagutaraziz.

Baratzetan, etxetan ta berdin elizan,
goraipatzen biperra zoinek bere gisan.
Bizitasuna ezar herriko bizitzan,
biper besta ez dadin besta xoil bat izan.

1989.10.25

Bizia, bizia,
sortuz geroz bakotxak horren gutizia;
ez litaik nekea horren ikustea,
ez balitz hoin errexa begien hestea.

Zerua urratzen da euria uztean,
ta lurra betetzen da zerua hustean;
haziak sortzen dira lurra urratzean,
euriak bizia baitu bere bihotzean.

Biziaren iturri da, zer daik bertzela?
urratzen denean amaren sabela.
Bainan agertzen denean haurraren ez ontsa,
berriz ere urratzen da amaren bihotza.

Gaur ere kantuek zerua urratzen,
Jesus Salbatzailea baitzerauku sortzen.
Lurreko muga guziak nai ditu urratu,
guziek dezagun elgar hobeki maitatu.

Maitasunaren mendia urratzen denean,
zuzentasuna jartzen da herraren menpean.
Zuzenaren mezulari baitzinen agertzen,
aberetegi bat bakarrik zaitzuten eskaintzen.

Abere baten moduan, Jesus, sortu zare,
urrikalmenduzko bihotzik ez zen urratu batere.
Egun ere axola guti jende xumeentzat,
askok daukate anaiak hartzen aberetzat.

Bizia, bizia,
sortuz geroz bakotxak zure gutizia.
Bainan lur huntan dagoena hoin dago nekea,
presondegi egin da zu zinen harpea.
Zabal zazu gu ganat daukazun ospea,
mundu ilun huni eman ez zuzen den bakea.

Prediku, soinu, kantu, maitasun, bihotza,
Abendua da bainan zer egun airosa!
Esker onez Jaunari helaraz otoitza,
bekantzen ari baita gaztetan ezkontza.

Eskualdun gazteria, bi hitz zoin ederrak,
bainan ainitz joanak gelditu beharrak.
Maita zuen herriak, etxe eta lurrak,
norabait saldu gabe hemengo indarrak.

Bizi berri bat naski ezin juja egun,
hortarako behar da ainitz umiltasun.
Bertzeak errespetu, mintza eta entzun,
denentzat izan dadin etxen goxotasun.

Goresmen laborantzan baitzirezte hasten,
etxearen segidan duzue sinesten.
Hiriaren amentsek egun guti hazten,
haurrak eskolatzean etxea da husten.

Amodioz troxatuz haurren gutizia,
elgar maita zazue, hortan da guzia.
Bertzen zerbitzurako balia bizia,
baztertu gabe nehoiz Jainkozko grazia.

Errepika:

Ama maite Maria, har gure otoitza,
zure graziez lagunt egungo ezkontza.

Luro hazpandar pilotari ohiari

Airea: *Pilotarien biltzarra*

Zorionak, goresmenak Luro handiari,
Noizbait hunen sortzailea izana denari.
Pilotari gisa luzaz hunen zerbitzari,
bai eta ainixko urtez diruzain ordezkari.

Xixteran ta esku huska zuen afizio,
erakutsiz borondate eta amodio,
Balentriak aipatzea lukete balio,
hunek eginak baititu hoinbertze desafio.

Bazterretik entzun ditut berri ttipi zonbait,
lehen ere zaudelakotz berri guzien goait,
nolaz Lurok altxatuko dauku gure *Noizbait*,
ezkerrik ez du batere eta kakola doi bat.

Txikitoren garraitzerat ez zen menturatu,
ta Sarako gazte batek parioa hartu.
Jorajuriak hogoi ta lau Lurok akabatu,
hobeagoko norbaiti beharko apailatu.

Zerbitzari jaun apezta ez zen gizon hitsa,
gure Lurok izanen du norekila mintza.
Batek nahi korona ta bertzeak kalitza,
orduan ere apezak izanen azken hitza.

Plazaz plaza ta sanoki urteak doatzi,
Patziz deitu plekari bat ditaikela kausi.
«Ni banuk ta hi bahiza?» biak ziren hasi,
ta uste dut Lurok zuen partida irabazi.

Ez pentsatu dituztala guziak erranen,
edo berdin liburu bat ginuke eginen.
Desafioz desafio, azken edo lehen,
gure Luro handiari esker eta goresmen.

Geroztik ez du biziak ainitz gastatua,
mila gauzen pairatzeko mundurat sortua.
Hala ere norbait, *Noizbait*, zutaz orroitua,
nola ahantz lagun on bat hiletarik piztua?

Errepika:

Noizbaiti eman duelakotz laguntza ta sokorri,
noizbait eskainiko ditugu goresmenak Lurori.

Airea: Pasaiako herritik

Pasaiako izanez zu ere hangoa,
mugaren zabaltzeko eskutan gakoa.
Zuri esker beroen kantatzerat noa,
lagundu baigaitutzu, Nunzio Laboa.

Amentsen zeru hura guretzat estali,
denetaz gabetuak gaituzte bidali;
zure etxean dugu aurkitu famili,
itxaropen argia ez zaigu itzali.

Juan Jose eta Koldo orroit dira egun,
Juan Karlos eta Anjel dituztela lagun;
Panamá-ren uztea ezina zitzaukun,
ez bazina agertu hoinbertze bihoz dun.

Zure laguntza ez dut inoiz ahantziko,
Laboa dut urrezko hitzez idatziko;
Benezuelan gaindi orain naiz biziko,
Ama Euskal Herriaz aments egiteko.

Mila uhain gogoan, zaitugu eskertzen,
Pasaiako porturat noizko geran heltzen;
anaitasunez beti ibili gaitezen,
Euskadi maitearen betikotz salbatzen.

1990.03.14

Jean Luis Caussade eta Haika gogoan

Airea: Markesaren alaba

Goxoki sartzen zinen suhalde erdira,
botz ezti bat eskainiz gure beharrira.
Ezin on-hartuz orai erotuak gira,
gu utzirik, Jean Luis, norat juan zira?

Alaba eta biak nola ta zergatik,
Jauna, hartu dituzu euskal baraztetik?
Hizkuntza zerbitzuan ari zen gogotik,
holakorik ez, otoi, eraman hementik.

Opa dezagun bake Jean Luis ta Haikari,
indar eman dezaten utzi dutenari.
Guk ere esperantza Demisei ekarri,
lotu ahal dadien berriz biziari.

Alaiki joan eta gorputz etxeraten,
oporren sasoin huntan ardura gertatzen.
Lagun ditzagun denak nigarren txukatzen,
eta ikasi elgar hobeki maitatzen.

Zigorak guretako ainitzek eskainka,
herria ta hizkuntza aintzinatzen mailka.
Sofritzen duten asko bihotzetik ai-ka,
agur zu, lagun Jean Luis, agur, lore Haika.

1990.07.15

Hogoi bat urte doi doia eta gauza gutirentzat lotsa,
Limoges hirian uste gaberik entzun nian hire botza.
Gorputza beti lanean bainan alfer alferrik bihotza,
egun goretsi nahi ginikek egin duzuen ezkontza.

Ez du aspaldi mintzo ginela emaztea eta biak:
batzuendako kargudun batzu zaudela maitagarriak;
predikuekin guk ezin ase gose eta egarriak,
askoz geiago balio dauka eguneroko ogiak.

Adixkidea, hik ez gaituk gu bakarrik asetzen ogiz,
hik bota solas arin goxoek guretzat balio ainitz;
hoinbertze gauza entzuten dituk berextea zoin den bortitz,
behar den hura dener eskainiz, behar ez dena atxikiz.

Zuen ezkontzaz gure bihotza arras lorietan dago,
berantarekin bier ditugu goresmenak eman gogo;
ogi eskasez norbait ez bada zorionean izango,
andrea, otoi, ez bakarrik utz ogi onaren esklabo.

Gure musuak emazteari, merezi ditu nik uste,
ogiarentzat gauean ere badelakotz buru hauste;
elgarrendako atxik zazue maitasun eta bertute,
pentsatuz nola laiken mundu hau denek ogia balute.

1991.01.19

Irrati eta telebistatik ditugu berri ilunak,
egi, gezurrak, ondo nahasiz gu ganatzen zauzkigunak.
Nahiz askotek naiago izan urrungo gertakizunak,
elgarrekilan ikus dezagun zertan dauden euskaldunak.

Aspaldi huntan gure etsaiek herria dute zatitu,
bertzek eraiki muga faltsuak ondorioak baditu.
Bateratzea gauza zaila da, hortaz ezin da harritu,
etorkizuna salbatzekotan beharko elkar aditu.

Orroit gaitezen baditugula borrokalari zintzoak,
arkume baten modurat noizbait eraman ditu otsoak.
Kartzelan dute gelditu behar aste ta urte osoak,
lasaitasuna eman bezote garen anaien mintzoak.

Iparraldea eta hegoan badira kartzelatuak,
gure hiltzea nahi dutenen zepo beltzean sartuak.
Abere batzu bezala daude zango besoak lotuak,
sendi bezate gure ganikan ez daudela baztertuak.

Asma dezagun zoin luze diren kartzelatuen egunak,
ikusi gabe beren haurtxoak, ikusi gabe lagunak.
Zer itzaropen sortu lezake kartzela baten ilunak,
nolaz zulorat ereman ditu herriaren maitasunak?

Zigorrarekin bakartasuna, gose, egarri eta hotza,
zoritzarreko tortura ere ez da denentzat arrotza.
Bizi langintzak ontu ditezen egin dezagun otoitza,
ez dadin beti harri gelditu agintarien bihotza.

Askatasuna lortu nahian lotu baita borrokari,
gure laguntza anaitasunez behar diogu ekarri.
Pentsa dezagun lagunari ta negarrez dagon haurrari,
horiek ere bakarrik daude aztaparka biziari.

Gaizkirat ere lerratzen baita gure buru xoil ergela,
euskaldun batzu entzuten dira: terrorista, kriminela.
Ahanzten dute kartzelatuek herria maite dutela,
ta berek hori saldu nai dute Judasek Jesus bezela.

Jainkoak gaitu euskaldun egin juan deneko aspaldian,
bainan gu denak suntsitu nahiz zonbait daude errabian.
Orroituz nola Kristo hil zuten Golgota deitu mendian,
Euskadi zauku berdin aurkitzen bi lapur txarren erdian.

Kurutze hortan gu salbatzeko bizia eman duzuna,
kartzela zolan ez otoi utzi herriko etorkizuna.
Otoitz kartsu hau izan dadila etsipenen oihartzuna,
maitasun sari ukan dezaten gizonek askatasuna.

1991.02.05

Manex zenari

Airea: Pilotarien biltzarra

Bizi osoa eman duzu gazte eta haurreri,
horientzat ez zira hilen zu, Monsieur Etcheverry.

Herri huntan lotu zinen errient lanari,
gu bakotxak giniola zoin den pilotari.
Geroztik mila laguntza ditutzu ekarri,
pilotaren maitasuna bihotzetan ezarri.

Beren jauntzi xurietan berriz zugaratu,
galdu eta zonbat nigar diezu xukatu.
Denen partez mila esker ta huntaz orroitu,
horien gero sanoak zorrak izango ditu.

Ez ditut, ez, nik ikusten guziak xapeldun,
bainan bide txarretarik ditezela urrun.
Mezu eder hori dautzut hanbat aldiz entzun,
haurretan nahi zinuen ezarri gizontasun.

Nola agur hunendako bakarra ez nizan,
gauz on guzientzat ezin aipatzaile izan.
Herri hunen eskerra har otoitz baten gisan,
Denek bat eginez segi betiereko plazan.

Armendaritze, 1991.03.23

Airea: Iparragirrearen Hara nun diren

Orai dela urte bat pasa, 90-eko uztailean, hasi zen afera hau ez da oraindik jukatua izan, euskaraz mintzatzea eskatu baitzuten. Azkenik, Paueko dei ganbarak zera erabaki du: Txatarrasek euskaraz mintzatzeko eskubidea badu, Espainian hizkuntza ofiziala delako. Xan eta Amaiak aldiz ez. Auzia azaroaren 27an iraganen da Pauen.

Gauza zuzena dudarik gabe Euskal Herrian euskaraz, bainan ainitzak trufatzen dira heiena ez den mintzairaz. Justiziaren izen faltsua aipatzerat noa beraz, juje handi ta gizon ttipiak, zertaz zaretan aberats?

Urte bat pasa hiru lagunak hor dabilta auzietan, beren hizkuntza nahi baitute erabili ezpainenetan. Ikus moldeak desberdin daude jauntto hoinen buruetan, batzuek euskara zuzen Espainiako lurretan.

Txatarras, zira espainiol, beraz; Xan ta Amaia frantsesak. Nungoak zizte zuek, jujeak, izaiteko hoin trukesak? Zorokerirat itzuli nahiz politikero amentsak, herra biderat sartzerat doaz legearen urrats mentsak.

Nola haurñoak bere amaren bularra duen xurgatzen, euskaldunak du bere hizkuntza molde berean mintzatzen. Zuek aldiz gu etsaien legez baigaitutzue jujatzen, ari zirezte baketsu batzu bizi guzikotz armatzen.

Faltsukeriak, tranpakeriak ta hoinbertze ustelkeri, iduri luke zuen lanean burutik zaretan eri. Zonbat prediku ta laudorio kanpoko herrialderi, eta guretzat mintzaira ere bihurtzen da bortizkeri.

Zapalkuntzaren txakur itsuek badituzte hainbat ahal,
horiek egin tranpakeriak goratik ditaizke itzal.
Xan ta Amaia, berdin Txatarras, ez otoi esperantza gal,
auzitegirat joanen zarete, bainan bururik ez apal.

Gure mintzaira ta nortasuna nahi dizkigute kendu,
zonbat populu munduan barna ez dira horrela zendu?
Gure arteko batasunaren behar handia da heldu,
laguntzaileak baginituzke petrola izan bagendu.

Europak ere aditua du euskaldunen oihartzuna,
ohartua da hor hasten dela herri baten ontasuna.
Gauza batek nau harriarazten, alta ez naiz jakintsuna,
zoin barnakor den herriko jaunek daukaten ixiltasuna.

Segi aintzina, lagun Txatarras, segi, Xan eta Amaia,
ez asma ere gurea denik auzi faltsu horren gaia.
Goiz edo berant, nahi ala ez, aldatuko da etsaia,
mintza zaitezte euskaraz eta ez sekulan gal kuraia.

Zuentzat deitu jauntto jujea banu orai bekoz beko,
horra ohart bat umil umila nik zuhauri erraiteko:
sortzean ukan zure mintzaira ez geiago mintzatzeko,
ez litakea aski arrazoin sekulakotz oldartzeko?

1991.11.14

Loiolako Iñazio

Loiolako Iñazio santua sorturik bostehun zirala-ta, bertsu txapelke-ta bat ere antolatu zen. Nik hauk igorri nituen.

Mundu guzirat zabaldu zuen argi eta amodio,
gizon bizitzak berari esker hartu du asko balio;
ni ere noa luma hartzerat umil bezenbat serio,
gure hizkuntzan goraipatzeko Loiolako Iñazio.

Bortz mende ditu laster beteko sortu zela Azpeitian,
hamahiru haur izana gatik aberatsen familian;
ama gazterik galdu baitzuen gazterik lotu bizian,
haundia zuen nortasun hura gora agertu nahian.

Arevalo-rat abiatu zen morroi zintzo ta noblea,
ezpata ere ibiltzen zuen salbatzeko ohorea.
Xehetasunik argiratzea norbaitendako on dea?
Erran dezagun gaztean ez zen bertzeak baino hobe.

Urtetik urte munduan ere gertakariak zabaltzen,
ahulezia eta indarra gerlaren bidez agertzen;
Nafarran ere gure Iñigo hasi zen bertzen laguntzen,
kolpatu eta bere bizitza sekulakotz aldatu zen.

Heriotzea aurrean dauka bainan da borrokatuko,
garai berean lagunek dute Iruña eskuratuko;
Iñaziok du liburuetan izaitea aldatuko,
lurreko edo goiko errege laster baitu hautatuko.

Zerbait haundi du egin nahia, ibilki da amentsean,
mila zorion senditzen ditu sainduetaz orroitzean;
berriro ere borrokan dabil asean edo gosean,
erabakirik ezin du hartu duda muden ohantzean.

Bere buruaz ez da seguru, beti dabila galdezka,
argitasuna bilatzen eta ez daki nori zer eska;
atzokoari begiratzean etortzen egungo kezka,
hoinbertze gudu eraman behar zuzen ibiltzerik ez ta.

Borondatea badauka bainan nola zuzendu gogoan?
Nola eraman argi ta garbi hasterat doan ildoan?
Zerbait gaixorik badu hain segur: burua edo zangoa;
ez daki zuzen zer egin bainan aukeraterat badoa.

Jerusaleme hiri sainduko amentsa dauka berekin,
hoinbertze gauza asmatzen ditu bainan ez daki zer egin.
Nola uztartu biharko gauza atzo iraganarekin?
Huna idazten hasten zaukula otoitz kartsu batzuekin.

Nola aldatzen zaukun Iñigo hura hoin gizon ergela,
hasten da gauzen argi ikusten, beretzat hobe horrela;
amentsak egi bihurtu behar, ezin da egin bertzela,
konturatzen da Jainkoa ere modu hortan mintzo zela.

Kanpoan eta barnean ere sendi du udaberria,
Jainko Jaunaren erreinu hortan sortuko baitu herria;
bozkarioak urruntzen dako neguaren larderia,
muinetaraino sartzen baitzaio Jainkozko argi berria.

Kilometroak iresten ditu fedezko hegalekilan,
dudarik ez da bide berri bat orai duela hatxeman;
arma guziak bazter utzirik bertze jantzi batzu eman,
Monserrat-eko komentuan da, sartu zauku Kataluñan.

Bere hautua egina bainan berekin zama pisua,
frantses batekin aztertuko du xede zintzo mamitsua.
Nola berexi bekatu latza eta fedearen sua?
Aitormen on bat egin ondoren bilatzen du deskantsua.

Aitormenaren ondotik baitu hartzen Krixtoaren gorputza,
egin beharren egitekotan bihotza garbi ta hutsa;
gaitz trixte batek ez du beldurtzen, fedea dezake bultza,
Santa Luziko artategian badu nahiko laguntza.

Sainduak dauzka bere gogoan ekintzak eta mitoak:
karitatea, umiltasuna beti direa zintzoak.
Bertek bezala zergatik egin? Hola dira pailazoak,
ekintza txarrak agintzen dazko urguluaren mintzoak.

Bere bizitza oso osoa Jainkoari eskainirik,
ekintza onen egitekotan ez zaio falta indarririk;
duda mudetan balinbadago ez du kezkatze beharrik,
badaki bere Nagusi onak ezin du utzi bakarrik.

Nola zerbitza Nagusi ona barur mehe egin eta?
Bere gorputzaz ez du axolik, galdua du horren arta.
Zer senditzen du hola jokatzuz? Zer du: ohorea falta?
Penitentzian sartuko zauku, erituko ere baita.

Pobre bizia hautatua du, hasten da eskelaritzan;
Izpirituko laguntzailekin nahi luke beti izan.
Gogoratuaz etsaia dela batzutan aingeru gisan,
galdezka dabil: «Zer eginen duk gelditzen zaukan bizi
tzan?».

Uste gaberik berriz sartzen da duda muden erreinuan,
bozkarioa eta trixtura nahasten zaizko orduan.
Zer du: Jainkoak bakarrik utzi? Min du bere urguluan,
huna berriro eritasuna zainetan eta buruan.

Aitormen on bat egin nahi du iraganak gogoratu:
Ni bezalako trixte batean Jainkoak zer diro ikus?
Lagun nezazu gogor egiten indarrak eneganatuz,
Jaunak nahia nitara bedi amentsetarik esnatuz».

Bertzek harentzat otoitz eginik piztuko zaio gogo,
kreazioko orroitzapener emanen du behakoa;
argia zaio berriro heldu argituz bere ildo,
hemendik goiti gauza guzitan ikusiko du Jainkoa.

Mila otoitz ta kezken artetik azkartzen zaio argia,
molde berrian ikusiko du Jainko Jaunaren nahia;
aldatuko du bere bizia, janaria ta beztia,
gizonen ganat etor dadien Jaunaren erabakia.

Izpirituko begi bihotzez nolako hartu emanak,
Jainkoarekin dudarik gabe ikusi eta erranak;
argizko lumaz idazten ditu Iñaziok bere lanak,
gizon zintzoen bizitzarako baliatuko diranak.

Amodioa heda daitaie izanez bihotz zabala,
hori dagola beharrezkoa ohartzen da berehala;
argitasunak gaudituko du noiztenka duen itzala,
fedean asko elkartu diten Trinitatean bezala.

Manres herrian egonaldia dorpea eta gozoa,
Jainko Jaunari eskainiko du bere bititza osoa;
Jerusaleme dauka helburu, harat itzultzen du soa,
Erroman gaindi ibili nahiz hartuko du itsasoa.

Aita Saindua ikusi eta noizbait Jerusalemera.
Asko gauzetan sofritu zuen, haundia baitzen lanjerra;
egon nahian ezin gelditu, bortxatua itzultzera,
betikotz bere bihurtu zuen pobreziaren ederra.

Ez zelakoan Jaunak nahia handik ere itzuli zen,
bidean berriz ikasi zuen pairatzen eta sofritzen;
fede haundiko gizon haundia ez baita hola gelditzen,
latina eta zuhurtzi bila huna ikasle Parisen.

Parise utziz Barzelonarat jakintzak bere pausua,
lau lagunekin zabalduko du fedetik datorren sua;
bide berriak erakatsiaz hedatuko da kutsua,
kartzelak ere ilunduko du argituen deskantsua.

Salamankarat abiatu zen bainan han ere kartzela,
Berrikuntzaren irakasteak dena aldatzen zuela;
asto bizkarrez iges badoa, ezin du egin bertzela,
berriro ere Paris aldera lehen izan zen bezela.

Asmatu obrak bizi izanez jakintzan badoa gora,
jaun Iñazio ditaikela laster, bere alde du denbora;
hoinbertze indar, hoinbertze fede azkenean diten lora,
fede bereko lehen lagunak etortzen zaizko ondora.

Ondotik ere ikasle gelan batzuek onhartu behar:
battu frantsesa, mendiko seme, bertzea aldiz nafartar;
Iñigok egin obrari esker lagunduko dute elgar,
lehen fedezko morroi taldea sortuko delarik azkar.

Ez jan, ez edan, neguan hotzez, zinez dago pobrezia,
bartzertzen zuten handimandien ohorezko gutizia;
elgarri lotuz gizonen eta Jesu Krixtoaren bizia,
sei lagunentzat huna etortzen apezgoaren grazia.

Mundua ere aldatzen baita nola gizonen gogoia,
Elizak nola bete lezake gaurko eta biharkoa?
Molde zaharra ezin da segi, berria da sortzekoa,
bertzen aldean jar gaiten edo sort dezagun berexgoa.

Parise hortan lagun taldean emendatuak badira,
erituko da Iñigo eta berriz ere Azpeitira;
Italiako asko herritan gero ibiliko dira,
Jerusaleme ta Erromari aments berean begira.

Hiri saindua debekatua gelditu ziren Erroman,
Aita Sainduak ere entzunez nola egingo zuten lan;
elgarretarik desegitea erabaki baitzuten han,
jesuisten talde bereziari han zioten gorputz eman.

Talde hortako elizgizonak ez ziren bertzen berdinak,
fedea lagun kezka guziak bihurtzen ziren arinak;
pobrezian ta umiltasunez beren botuak eginak,
Iñigok laster eskutan hartu guzien etorkizunak.

Haren etxea zabaldua zen zapalduak zireneri,
gosez ta hotzez heldu zirener, emagaldu ta bertzeri;
begi bihotzez ardura hartuz gertakizun haundieri,
mundu osoa galdezka zagon mezulari berrieri.

Erroma hortan lau Aita Saindu Iñaziok ezagutu,
beraren obra ta ariketak oso zuzenak agertu;
biek onhartu, batto laster hil, azkenak aldiz beldurtu,
beti Jainkozko laguntzarekin aurrerat zuten jokatu.

Arta haundiez eremaitean aspaldi hasi gudua,
uste gaberik ahantz ditaike eguna eta ordua;
hau hurbiltzean Polanco-k zuen galdatu Aita Saindua,
bainan aurretik Iñigok zuen utzia gure mundua.

Mila bortz ehun berrogoi eta hamaseieko urtean,
Uztaileko azken egunak agurraren egitean,
bere lagun eridatzi behar betiko borondatean,
«Ene Jainkoa!»errana zuen azken hatsa emaitan.

Mila lagunek ekarri zuten aldakuntza Elizari,
pobrezia ta umiltasuna betikotz josiz elgarri;
Iñaziok du fede mailean oldar berri bat ekarri,
Jesu Krixtoaren bizi lotuz gizonaren bizitzari.

Garai hartako bizi dorpean behar zen fede azkarra,
ezinbertzean mugitzen baita gure Eliza zaharra;
jesuista askok gaur ere dute agertzen beren sugarra,
asko herritan bada hargatik Iñigo baten beharra.

Iñazioren sortzeak laster beteko ditu bortz mende,
nolakoa zen, zer egin zuen denak harrituak gaude;
beraren obra ta ariketak nehoiz bezain azkar daude,
guk bizi dugun gizarte hunek hura izan baitu alde.

Jesuistak daude egun nun nahi, bereziki Amerikan,
asko herriek ez dutelakotz bakerik sekulan ukan;
aberats diren zapaltzaileri bihurtzen dira borrokan,
askatasuna ez dadin ustel diktadurari estekan.

Gaur egun ere ikaran daude Amerikako bazterrak,
batzuek dute itxaropena elizgizoner eskerrak;
San Salbadoren sei hil dituzte bake eraile suharrak,
horiatarik zonbait zirela Iñigoren herritarak.

Bortz mende dira iragan bainan mundua da nahas mahas,
gizona denetz abere tzar bat kezkatua nago arras;
onaren alde denak alferrik: ezin burura, ezin has;
Iñazioren pobrezi hartaz nola agertu aberats?

Azpeitin sortu seme jatorrak gauzak zituen aldatzen,
behar berean aurkitzen gira, berriro naiz konturatzen;
bere lagunak munduan zehar berdintasun predikatzen,
Erroman dagon Ama Elizak dituela kondenatzen.

Bide zuzena non ote dago: nor aurka eta nor alde?
Erantzun onik ezin dut eman, hitz egiten dut debalde;
batzuk fedea dute gorroto, bertze batzuek seinale,
bainan batean edo bertzean asko agertzen hiltzaile.

Hoinbertze mezu harturik zure izpirituko altzotik,
zuretzat dira gaurko bertsuak arlote baten ahotik;
mundu hobe bat eraiki nahiz kantari naiz Nafarroitik,
errazu zer den egin beharra, eginen baitut gogotik.

Jaun Iñazio, onhartu zazu egingo dutan eskea,
bekatorosa saildu denari zuzen izan ditaikea:
soldado izan batek badaki zer den sua eta kea,
otoitzez edo armaz egizu Euskal Herriko bakea,

Agur, adixkideak, ta ongi etorri,
hemen bilduak gira esposen sokorri.
Eskerrak Jainkoari ditzagun igorri,
zoria emanik Arlette ta Pantzori.

Kezkak izaiten ditu haurrak dituenak,
burasoeri ere gure goresmenak.
Ahantzi arrangurak eta bazter penak,
egun hunek baititu sariztatzen denak.

Burasoen ondotik haurrak aipatuko,
esposen familian agian sortuko;
euskal nortasunari egin gabe uko,
Baigorriren bizian daudela lekuko.

Lekuko izanetan falta zombait lagun,
Christoffe eta Monika airatuak urrun.
Beñat, zure musika ezin bada entzun,
gu denen bihotzean hor zaudete egun.

Urrats handi ederra dago ezkontzea,
bainan batzutan heldu ortzi ta haizea.
Ez dadin nehoiz histu zuen baratzea,
aski da gaur bezala elgar maitatzea.

Ez uste bainan gutarteraino zorigaitzak du sartua,
bi gogoeten egiteko da hasterat noan kantua.
Horri lotuak zenbat arrazoin, bakotxa ezagutua,
elgarrekilan azter dezagun mende huntako gudua.

Drogaz mintzo naiz eta goazen egiten duten herrira,
laborariak milaka naski erdi gosean badira.
Jaun ospetsuak urrundarikan daude horier begira,
bakarrik laizke beren landetan azaburuak balira.

Hoben gabeko laboraria bizi da bertzen esklabo,
bertzek errana egin behar ta ukanarekin egongo.
Jaunttoak aldiz diru gosean, gero ta aberatsago,
gainerateko gauza guzia diru erreinua dago.

Jin gaiten orai pozoin txar hori hartu behar duenari,
norbaitek noizbait han ere baitu esklabogoan ezarri.
Lanik ez eta dirua behar, lotuko da ohointzari,
erori eta sosa beharko libertatearen sari.

Libertatean utziko dute bainan eskas du dirua,
laguntzailea ez dauka urrun lehenagoko debrua.
Batzu ta bertzek gal-araziko gorputza eta burua,
xakur lanean hasi beharko, huna hunen helburua.

Lan berri hortan hasterakoan eroriko da artetan,
lehenagoko laguntzaileak hor daude holakoetan.
Amentsez aments ibiliko da beti bide faltsuetan,
bainan oihuka ez da hasiko Baionako karriketetan.

Hoinbertze gazte ikus orduko baititugu kondenatzen,
ohartu gaiten ainitz direla drogatuez baliatzen.
Ez dira nehoiz oldartzen eta behar orduan bozkutzen,
gazteriaren odol sana horra nola den xurgatzen.

Munduan barna drogaren kontra batzu hasi dira gerlan,
nehor ez dela zintzoki ari ezin dut hargatik erran.
Diru zikinak ez du usainik zerri handien sakelan,
pena da bainan droga ez dute kendu nahiko sekulan.

Beti norbaitek baliatzen du drogaz egin porru salda,
gaur egunean Jainkoa nor den holakoeri ez galda.
Xehetasunik ez dut emaiten, bertzela naike asalda;
horrela bizi direnetarik gutartean ere bada.

Familietan nahi ala ez bada ainitz buru hauste,
eskola gatik seme alabak utzi behar baitituzte.
Gazte maiteak, azkarrik egon, badaukazue bertute,
merkatu hori laster hilen da zuek nahi badezute.

Patin zenaren ehorzketan

Biziak behar duen indarra nasaiki duzu eraina,
gauza xumeak eder agertzen zuk bazinuen dohaina.
Agurtzen zaitut, Patin maitea, agurtzen “Eiherazaina”,
irin xuriez apain dezagun orai zeruko mahaina.

Maite zinuen lagunartea, maite zinuen bizitza,
xumea zinen sortzeaz bainan nortasunez aberatsa.
Ene otoitz hau Jainko Jaun onak oraino aditu beza:
“eiheraño” bat baldinbaduzu beira zazu Patinentza.

Mundu hunetan hobenik gabe bakar bat ere badea?
Denak desberdin gira ta horrek edertzen du artaldea.
Jauna, zurekin har zazu Patin, egiten dautzut galdea,
elgarrekilan goza dezagun bakearen “eihaldea”.

Biper bestan

Errepika: *Ama maite Maria*

Gazteria urruntzen dela Elizatik,
bertzek Eliza dela urruntzen bizitik.
Otoitzez hasi gaiten gaur Ezpeletatik
Elizak ez dezan gal bizitasunetik.

Diru zikinaz gose, hoinbertze artista
gure gazteriari xixta eta xixta.
Droga tratulant hauiek ditzagun gomita
biperra landatzerat, belarrak utzita.

Kirolak agertzen du trixtura daukala,
futbolak erakutsi bere mail apala.
Buruzagirik bada aditu dezala:
ez nehor eros ta sal biperrak bezala.

Lana eta dirua eskas ta sobera,
bizi moldea doa gaur buruz behera.
Kinka txar hortarikan gaitezen atera,
denen baitan zuk, Jauna, emazu biperra.

Ezpeletako elizan, 1993.10.24

Pariseko euskaldunentzat

Airea: Antton eta Maria

Urte bat itzali da, bertze bat da sortu,
lanari behar dugu berriz ere lotu.
Eguberri Urtatsez bihotzak berotu,
herriko ohidurez bagira oroitu,
ditugun lokarriak ez ditzagun moztu.

Parisen bizi gira hoinbertze euskaldun,
batzu arrotzak bainan geienak ezagun.
Dauzkagun erroetaz oroitzean egun,
Urte Berri on bana opatu dezagun,
Elgar gure kazeta daukagula lagun.

Etxen anaiak zuen hartzen laborantza,
laster senditu nuen lanaren eskasa.
Urruneko eltzeaz nolako solasa,
Parise beti eder, beti aberatsa,
merke erosi nuen horren esperantza.

Gure denboran nekez ginen ausartatzen,
burrasoeri denak xintxoki behatzen.
Mutil ta artzaingorat ginduzten bialtzen,
Parisen aldiz lan bat, mirakuilu bat zen,
ikus arte antzara moskoaz alatzen.

Bainan zendako ilun agertu guzia?
Indarrez betea zen gure gutizia.
Batzu erdi ikaran, bertzek ausartzia,
Parisen ere dugu osatu bizia,
gure aitek ez zuten dugun aisezia.

Denbora batez naski hiria zen modan,
hangoak ikustean zoin ederki udan.
Gure Euskal Herriaz egon nintzan dudan,
orai etxea hutsa, ardirik ez bordan,
han nagusi nintzan ta hemen naiz arrandan.

Hiriak ez du orai ainitzik miresten,
lan gabezia baita hor ere ikusten.
Lehen bezala nork du amentsa iresten?
Gauza ttipi batzuek gaituzte berexten,
elgarri hurbilago otoi egon gaiten.

Gure sorleku hartan zer da gaur gertatzen?
Laborari gaixoek hatsa dute galtzen.
Hamalau liberetan bildotsa da saltzen,
ez harritu gazteak badira oldartzen,
nahiz laster dituzten kartzeletan sartzen.

Ez naiz oso gaztea ta ez naiz zaharra,
hau da egingo nuken galdera bakarra:
ni hangoa eta zu euskal paristarra,
Euskal Herriaz atxik euskaldun pindarra,
elgarrentzat badugu *Elgar*-en beharra.

Zuen nortasunak daut emaiten zorion,
nahiz ta arras guti ni zuekin egon.
Entzun herritar batek bihotzez zer dion:
Agur, neska ta mutil, andre eta gizon,
izan zaizte ontsa, ta guzier urte on.

Armendaritze, 1993.12.20

Bertsu hok emanak izan dira Apezpikuaren inguruan euskaldunek ukan dugun martxoko 13ko mezan.

Meza eder bat egun euskaldunendako,
erakutsiz fedea ez dugula flako.
Otoitz egin dezagun, bainan norendako?
Gizonkia kabaltzen hasi zaukulako.

Urrunekoa beti hobeki senditzen,
Bosnia aldean gaur gogoak ibiltzen.
Auzoak ta anaiak ari elgar hiltzen,
eta mundu guzitik nehor ez mugitzen.

Teilaturik gabeak dauzkagu hoinbertze,
eritasun ta droga zonbat ezinbertze.
Presondegian ainitz libertatez gose,
ezjakinean zonbat nigar ta oinaze.

Baionatik zauzkigu etorri artzainak,
zerurako ildoan ditugun itzainak.
Izan bitez denentzat gidari bikainak,
mugarik ez baitauka Krixtoren mahainak.

Herria, 1994.03.24

Argazkia eta ispilua

Sujeta: zure argazki bat, duela hamar urtekoa, eskuratzean batetik, eta bestetik zure buruaz ispilu edo mirailak emaiten dizun itxura ikusiz, zer diozu?

Alkatek:

Orai pixka bat zahartzen hasi lenago gazte nintzena,
ispiluari begiratzean haundi dago nere pena.
Bainan gezurrik ez du esaten moldatzen baitu zuzena,
argazki horri nago galdezka: Alkat, hi ote hintzena?
Geroztik nitan aldatu dira gizona eta gizona.

Bainan zendako argazki hura zokotikan nik atera?
Hura ikusi ta ez nitaik airos eta alegera.
Lenagokoan eskasa nuen ta oraikoan sobera,
bainan, entzule, nago hargatik gauza hunen aitortzera:
Alkatek orai burua dauka tripa horren arabera.

Gaurkoarekin konpondu behar, ahantzi baitut lengua,
orduan nintzan udaberria, orai bihurtu negua.
Bainan nik nola alda nezake dudan itxura gaurkua?
Nere gorputza mehartu nahiz haundi nuke urgulua,
argazki hura erreko dut ta puskatuko ispilua.

Herria, 1994.03.31

Euskara hizkuntza ta Euskadi herria,
ospa dezagun egun gure aberria.
Bihotzez maitatzeko atxiki tirria,
gutartean azkartu dugun lokarria.

Abertzale izaiten bada mila bide,
ez dezagun bakar bat ez balioz gorde.
Segi hasi ildoan herriaren alde,
anai dena etsaitzat nehoiz hartu gabe.

Aberri Egun huntan ez ahantz bertzeak,
kartzelan libertatez daudenak goseak.
Zerk ditu arinduko denen kurutzeak?
Anaiki ta bihotzez hetaz orroitzeak.

Batzuk beren herria dutela ukatzen,
bertzek berena nahi ta ez eskuratzen.
Euskaldunak euskaldun gelditu gaitezen,
ikasiz beti elgar hobeki maitatzen.

Armendaritze, 1994.04.03

Laka bertsulariaren amaren ehorzketako mezan

Gorputz ttipia, bihotz handia, finezian zinen dena,
hainbertze gauza pairatzekotan, Gaxuxa, sortu zinena?
Bertze mundura segitu tuzu senhar, seme ta errena,
orai zeruak eman dezala lurrak eman ez duena!

Estitxu, Miren, bai eta Maider, hurbiltzen naiz zuen gana,
ahantzi gabe bertze kusiak, baita halako andana.
Atzo goizean amatxirekin amentsetan naiz egona,
erran daut zuer erran nezadan: «Oporretan naiz joana».

1994

Airea: *Trixte bizi naiz eta*

Biga nigarrez eta batek furfuria,
odol gaixtoa zuten askok ixuria.
Pasatu dena ez da bertzen iduria,
astotegian sartu da zaldi zuria.

Zaldi xuri eskolan Uhart zagon buru,
laborarien lagun aldiz Iturburu.
Egun izango dute mila estakuru,
zaldi horren putarrez ez ziren aiduru.

Iholdiko herria aipagarri naski,
zaldi xuri horrekin ez ditaik gaizki.
Putzu batekin zuten edertu handizki,
orai hotel batekin ez dukete aski.

Egun arte herrian ikaran egon da,
karguaz estimua ditaik emenda.
Pisuegi den gauzik ez segidan galda,
denak izango ditu eskualduntzen bada.

Zaldixuri jaunari milaka zorion,
zerbaiten esperantzan nahi dugu egon.
Gizon txar bat ez daike sekulan zaldi on,
heia zaldi xuria izanen den gizon?

Hemeretzi ehun ta lau hogoi hamalau,
bertsu hauk moldatzeak arras xoratzen nau;
elgarrekin egonik hanbat egun ta gau,
mende erdi bat hola ezin ahantzi brau!

Urepele kaxkoan baitago Kintua,
Gartxabalian zinen, Rosali, sortua;
Iholdiko alderat noizbait airatua,
Jan Pierra zinuen hor ezagutua.

Jan Pierra sortzetik Armendariztarra,
Bazterretxean zinen etorri beharra:
suerteak emanik, bai, elgarretara,
bien amodioa izan da azkarra.

Bizitza guzietan gora ta beherak,
eskasa batzuetan estaltzen soberak.
Urrezkoak izanez, zer eztei ederrak!
Horien ospatzeko gauden alegerak!

Familia eder bat duzue altxatu,
denak gogotik dira biziari lotu;
batzueri nezake gauza bat eskatu:
andre baten hartzerat ditezen ernatu.

Izanak ditutzue hoinbertze pairamen,
gaur egun bezelaxe izan dira lehen;
horien ospatzeko ez baigira hemen,
biharkoari buruz gira denak joanen.

Zuen aldean dago famili guzia,
Azolako xokoan sanoki hazia;
mendiak ere badu gauza berezia,
harri gainean ere sortzen da hazia.

Bainan zendako debru aipatu harria,
Azola dagolarik hoin xoragarria?
Zuen etxeak badu denentzat irria,
eta bakotxarentzat ongi etorria.

Jan Pierra ta Rosali, konten gira denak,
berriz gogoratzean zer orroitzapenak!
Zuen baratze hortan loratu direnak
doatzi eskaintzerat beren goresmenak.

Handia delakoan gure atsegina,
bestaren egiteko badugu aizina;
iraunkorra delakotz amodio fina,
atzokoa utz eta so egin aintzina.

1994.11.03

Hoinbertze urte, hoinbertze urtez

Hoinbertze urte hemen naizela, hemen kartzela hotzean,
egun batean Euskal Herria sartu baitzait bihotzean.

Hoinbertze urtez neure bizitzaz eman izan dut balore,
eta gaur egun nago horrela: ez gizaki, ez abere.

Hoinbertze urte argi bilatzen ilunbearen gerizan,
argi garbirik ez baita sartzen gudari baten bizitzan.

Hoinbertze urtez epaiketa bat dugula idurikatzen,
maitasunaren auzi handia ez baitakite epaitzen.

Hoinbertze urte kartzela huntan handimandien menpean,
zuzentasunak ez du tokirik etsaiek eman epean.

Hoinbertze urte kartzela dela bihotz onen aitzakia,
bainan ez pentsa bera dagonik gizon sanoen tokia.

Hoinbertze urtez ilunbe huntan eman nautela bakarrik,
zuzentasuna dagon herrian ez da kartzela beharrik.

Errepika:

Hoinbertze urte, hoinbertze urtez kartzela ilun hotzean,
herria maite, herria maitez min hartzen dut bihotzean.

Ardura trixtezian daukagu bihotza,
bizitzeak ere gaur emaiten du lotsa;
bainan elgarrekilan eginez otoitza,
esperantza osoan biak ditene goza,
Jaunak lagunt dezala egungo ezkontza.

Airoski bazoazte geroari buruz,
bide dorpea dela oraidanik ikus;
etxe eta herriak bazterrerat ez utz,
urostasuna bila bihotzak zabalduz,
zuen buruak ahantz bertzetaz oroitzuz.

Etxean izan bedi oi goxotasuna,
familia osoan denene batasuna;
etorriko denean haurrene ontasuna,
erakatsi bizia ta gizontasuna,
loreztatu dadien zuen maitasuna.

Esperantza badago gaurko esposetan,
bakeari lotua gure otoitzetan.
Zonbat gerla munduan justizia faltan!
Zauri guziak senda ditene gure baitan,
maitasun hitza atxik gogo bihotzetan.

Aita-ama maiteak, elkartu zaitezte,
zuen lagun berriek ez bainaute maite.

Uroski bizi ginen denak elgarrekin,
zerbait gaizki zoala ezin nuen jakin.

«Ez dugu elgar maite» erran zinautaten,
geroztik zer duzue elgarri erraiten?

Biak berexiz geroz nabila aldizka,
nik betan maitatzen ta zuek ni erdizka.

Mila gauza eskainiz baduzue arta,
presentak ala zuek ez dakit zoin hauta.

Ahantzia duzue zuena naizela,
horrela ibiltzeko pilota bezala.

Orai baditutzue, bai, lagun berriak,
enetzat ez direnak zuen iduriak.

Bi ama ta bi aita biga soberakin,
lauak maitatu nahi ta nola ez jakin.

Berextean hobenik ez baitute hurrek,
berriz uztartu edo maita otoi lauek.

Gaurko mendean hola behar bada bizi,
aita-ama maiteak, haurrak ez ahantzi.

Behako idor hori nun dago sortua?
Amentsaren munduan iduri sartua.

So ilun horrek zerbait nahi du eskaini,
ona ala zarra den ezin dut konprendi.

Asmatu ta so egin, entzun edo galda,
asko oihuka daude: «Jesus jauna nun da?».

Esku xuri ta beltzak elgarri tinkatzen,
bainan zoinek ote du bertzea garbitzen?

Zonbatetan ez dugu izan atsegina
bertzeri botatzeko guharen zikina?

Karga handia eta bidea luzea,
bakotxaren bizian bada kurutzea.

Soka bat ikustean beldurra da sartzen,
beldur dagona aldiz ez da aintzinatzen.

Mila kargen azpian ainitzak erortzen,
horien laguntzeko gu zoin nekez lotzen!

Ezin badugu ere beti irabazi,
elgarrekin dezagun xutitzen ikasi.

Guk ere usu hartzen eskutan makila,
zapatzaile itxuran ardura nabila.

Bertzen herra maizegi gure bilakatzen,
sanoak izan nahiz bertzeak usteltzen.

Gizon beraren baitan sobera kolore,
gu ere batzuetan bihurtzen traidore.

Egun ilun dorpetan nahi dut sokorri,
nahiz ezin den beti amarik etorri.

Bide onerat dauka amak bere soa,
ikusi duta haren behako gozoa?

Nik ere badut herra, ni ere saltzaile,
gutirentzat askotan naiz itze sartzaile.

Bertzendako ardura agertzen otsoa,
ainitzetan goizegi altxatuz mazoa.

Lagunen so ezta bazauku agertzen,
ikas dezagun otoi hobeki behatzen.

Nornahi gure ganat etortzen nigarrez,
xukatzaile bat gutan aurkitu beharrez.

Zapatzaile bat berdin gordetzen gu baitan,
zapaldu behar dena hura da bertzetan.

Ikusiz behako bat edo behako bi,
hobenik ez duenak ezin du konprendi.

Azkarren urgulurat ez gaitezen lerra,
adixkidetan ere sort laiteke herra.

Bortizkeri ta herra egungo auzia,
ez laike holakorik balitz justizia.

Daniel Mutuberria gogoan

Airea: Pilotarien biltzarra

Errepika

Agur, goresmen ta zorion guziek Danieli,
euskaldun zintzo bat bezala baita beti ibili.

Berrogoi eta bi urte ditaizke kondatu,
Aldudeko kaxko hortan zinela zu sortu.
Dakigunez ttipidanik artzaingoan lotu,
artaldeaz arduratuz pilota zerbitzatu.

Makean doi bat egonik Arbonarat joan,
artaldea bihotzean, pilota gogoan.
Miarritzen laster sartu hiri mutilgoan,
den onena jartzen baita errecki alfergoan.

Munduko xapelgo hortan errege zinela,
Diribarne lagunarekin ez pare mottela.
Jaunarena ere noizbait lagun zinuela,
“jestu” batek erran zuen: «Izorra ditezela!».

Sakelan sartuz esku bat ta bere erhiak,
ez ditugu kondatuko azken balentriak.
Adinaren estakuru dira ezarriak,
hargatik ainitz zor dauka zuri Euskal Herriak.

Hoin ederki zuk pilota beti zerbitzatur,
zure nortasun handia nun nahi agertuz,
etsenplu ederragorik gutik dezake utz,
pilota utz zazu otoi eta has zaite kantuz.

Armendaritze, 1995.01.18

Adartza

Bertzaldeko aire ezti batean

Eskual Herriko xoko baten
edertasunik pollitena,
orai artean sanorik
begiratua deraukutena.
Berari dugu egun batez
ebatsi Adartza izena;
Arnegiko kaxko hortan
mendi eder bat maite duguna,
guhauren bizi guzian,
musikak sortu auzian,
gazteen dantza jauzian,
aspaldi huntan zaitut laguna.

Adartza izena harturik
gabiltz musika bihotzetan,
gure arbasoek utzi
aberastasun ederrenetan;
dantza jauzi eta mutxiko
edo halaber fandangotan,
elgarrekin josta araz
xahar gazteak gure plazetan;
betiko kezkak utzirik,
trixturak ere galdurik,
goazen alegerarik
kantu eder bat ezpain xokotan.

Adartzaren musika ona
balin baduzue maitatzen,
ibiliko gira luzaz
eta gogotik zuen alaitzen,
zuek, gaztek, bait gaitutzue
hanbat amodioz laguntzen;
eta horrela ez zaiku
gure musika nehoiz zahartzen:
usaia onak atxikiz,
lagunak kantuz ikusiz,
geroa dukegu irriz,
has gaiten beraz horren moldatzen.

Heletatik Luzaiderraino
ta Hoztatik Lekunberrira,
alaitasunaren mutil
omoretsuak izango gira.
Heda dadila herriz herri
gure musikaren dixtira,
esperantzaren izarra
sar dadiela bihotz erdira
kantuen pitzaraztera,
herrien dantzaraztera,
gurekin otoi atera,
Adartzarekin lagun bazira.

Armendaritze, 1995.02.07

Intsumituen alde

Apirila erditan ta hamabostean,
Donibane Garazin guziak batean,
hiru hogoi ta hamar izenen artean,
sartu zaitez zu ere, sar borondatean.

Intsumituen alde ager maitasuna,
begiratu dezaten beren nortasuna.
Erakutsi diezegun guk elkartasuna,
salatuz armadaren zigorren lizuna.

Esperantza ta aments armadak aurtiki,
bainan gurea beti dezagun atxiki.
Oihu hau nahi nuke botatu goraki:
bertze guziak libra ta Kittu ez hunki.

1995.03.21

Ama Euskal Herriaz

Daniel Xalbador eta Ihidoy-rentzat, Ameriketara kantatzeko

Ama Euskal Herria ginuen guk ukan,
bizia ereiteko mendi ta errekan.
Bainan batzuk ez nahi gelditu estekan,
bertze herri bat zuten egin Amerikan.

Ama Euskal Herritik airatu ainitzak,
hango bizi moldeak baitziren bortitzak.
Hemen erein haziek eskaini emaitzak:
loreek fruituak ta fruituek zuhaitzak.

Herri mina izanez beren bihotzean,
lanean hasi ziren hunarat heltzean.
Kantuaz ta pilotaz usu orroitzean,
lagun hoberenekin hasteko musean.

Euskaldunak jokoan baitira trebeak,
batzu arras onak ta bertzeak hobeak.
Egiak ta gezurrak mede ta dobleak¹,
erakutsi astoak eta erregeak.

¹ Medeak edo mediak, museko itxura bat da. Musean botatzen da gezurra, bainan izaten dira egiak ere. Medeak: hiru karta berdinarak, bi tanto balio dute. Dobleak: hontan lau karta, bi berdinarak eta beste bi berdinarak (biko, bosterko, zazpiko...), eta hauk lau tanto balio, kondatzen hasita. Eta badira astoak, batekoak, erregeak... Musak aldiz zama... asko, karga, balioa. Xuberoan paketa, kopuru handia. (E. L.)

Hamabortz herrialde, musak aldiz zama,
euskaldunek munduan bildu dute fama.
Neure kantu xumeak berekin darama,
orroit Euskal Herria daukagula Ama.

Musari esker gira guziak elgartu,
euskaldun nortasuna nahian finkatu.
Anaitasunez gaiten guziak jostatu,
ta gure sort herria nehork ez ukatu.

1995.09.12

Maurice eta Maddi Sorhuet-i

Airea: Antton eta Maria

Behatuz zeruari edo “Urrutira”,
aurten ez da denbora itzultzen eurira.
Berdintsu gabiltz egun zueri begira,
lanorik ez dutenak horrela baitira,
zuen iduzkiak du handia dixtira.

Goresmenak bihotzez, Mauriz eta Maddi,
urrezko kaden batek josirik elgarri;
maitasuna izan da biziko uztarri,
Maddi zure eta zu bertzen zerbitzari,
herriari emana kenduz etxeari.

Bizi aberats batez nola daike goza?
Goxotasunarekin ordaintzean sosa.
Lanari lotu behar izan gabe lotsa,
herritarra lagundu ta berdin arrotza,
mediku ttipi bat zen orduko ahotza.

Hogoi ta hamar urtez herriko auzapez,
karguan egon zira aise edo nekez.
Leporaino asea jitez eta juaitez,
bertze batzu oihuka uraren beharrez,
ta familia nahi altxatu ohorez.

Maurizi buruz egun herria zorduna,
Dohaztik¹ ezin ahantz zuk egin duzuna.
Eskaini nahi dugu gure maitasuna,
alanbre beraz josiz biziko laguna,
hori ez baita naski izan xitroduna.

¹ Dohazti hori Dohaztiri edo Donaztiri da, Maurizen herria. Saint Esteben frantsesez. (E. L.)

Atzokoari beha gabiltza batzutan,
bainan zuen bihotza gaurkoaz da sutan.
Hainbertze gauza eskas prediku txar huntan,
milesker handi bat dut mihiaren puntan,
ni ixiltzen naiz eta zuk segi bertsutan.

1995.09.01



Armendaritzeko eliza

**Espos batzuentzat
Jean Claude eta Helene**

Airea: Hazparneko dama gazte bat

Luhuso hortan sortua,
Bidaluneko fruitua,
Lekornen dagon Iturraldean da zure hautua.
Helenek daut aitortua
nolaz duen maitatua,
haurrider kenduz duela Jean Claude beretzat hartua.

Herri urrats egun batez,
ez ustean edo ustez,
Jean Claude ta Helene itsutu ziren elgar so egitez.
Musu bat milaren partez,
amodioz elgar jatez,
elkartu ziran Irunberria amentsekin betez.

Gerorako esperantzan
erizain ta laborantzan,
sanoa dagon familia bat nahi dute izan.
Osagarrizko bizitzan,
maitasunaren baratzan,
amentsez aments punpa ditela pilotaren gisan.

1995.09.12

Eguberri, Eguberri

Oxalde taldeak kantatzen duena

–Aita, lasterka heldu da Eguberria,
aurten zer izango da ene oparia?
Batto gostukoa dut, zoin xoragarria!,
telebixtan ikusi joko bat berria.

–Zu, seme, zu, alaba, ene ontasuna,
bakotxaren galdea dut ongi entzuna.
Opari ederrena dugu osasuna,
eta familiako bake oihartzuna.

–Joko bat nahi dugu elektronikoa,
Mirentxu auzokoak badu holakoa.
Gure ikasketentzat da beharrezkoa,
laguntzaile jartzen da beharrez Bankoa.

–Ixil zaitetz, Katixa, ta ixildu, Pettan,
aments xoroak dabiltz zuen buruetan.
Opari ederrena daukat ezpainenetan,
bakea sortu bedi mundu ilun huntan.

Haurrak ez otoi beha batzu ta bertzeri,
jenden baitan dagotzi hanbat xorokeri.
Beha sofritzen duten anai guzieri,
ta nolakoa daiken hoi en Eguberri.

Eguberri, Eguberri,
dena kantu, dena irri;
herriz herri izan gaiten bakearen mezulari.

1995.12.19

Egun, aste ala urte lasterka doatzi,
ohartu gaberik ere joanki ainitzi;
maitasunez amentsetan ongi dadin bizi,
senargai bat opatuko dugu Mari Añezi.

Pimentton ala Xanfarin zoin nahi du izan?
Ozpinkeri eskaintzen da Bernardette arizan;
senarra du kozinerra: «Nik hau ezin jasan:
noizko dauka errezeta seme bat egin dezan?».

Xintxo, ezti ta gozoa hor dago Pantxika,
egin nezazko gogotik bi hiru kilika;
biziari, herriari lotuz ausikika,
euskaldunen bihotzetan sortzen dauku musika.

Jojo ere hor daukagu xintxotasun handiz,
paregabea litaiketronpatzen ez balitz;
noiznahi ta edozoin gai ongi erabiliz,
Baigorriar on bezala da lagun eta bortitz.

Pantzo ere nola bazter? Gogo bihotzetik
omorea pitzarazten ari da gogotik;
zerrikeri egiteko trebe aspalditik,
ez da osoki zerria, bainan badu zerritik.

Petzero sail horrekin guk egiten irriak,
omorearen beharra baitauka herriak;
Pantzok ditu gure ganik hartze opariak,
aurten eskaintzen dazkogu Betrelaño berriak.

Omore ona gaur egun erosten kario,
hortarako Pantzorentzat dugu amodio;
halere batzutan bere trufa guk hastio,
petzero handi batean nik gogotik sar nio.

Errepika

Irulegiko irratiko guziera urte on,
ekar dezala bakotxari osasun ta zorion.

1995.12.24

Urte berrikari

Urte bat da akabatzen,
bertze bat ere agertzen,
iraganari gutiz geienek dugula behatzen.
Gauzak direla aldatzen,
hoinbertze lagun airatzen,
hemen girenek ikas dezagun hobeki elgar onhartzen.

Herra, gerla ta auziak
bizi baitira guziak,
gaur egun ere ikusten dira gauza itsusiak.
Argitu dezan biziak
lurperatu maleziak,
denak hobetzen lagun gaitzala Jainko Jaunaren graziak.

Zu, eria, zu, xaharra,
etxen gelditu beharra,
esperantzaren orde zardura daukazu nigarra.
Berriz pitz bedi pindarra,
Eguberriko izarra,
Jainko Jaun ona, emozu, otoi, falta zaioten indarra.

Familia ta herria,
bakotxa maitagarria,
horien ganik heldu baitzaiku bizi iturria.
Familiari bozkaria,
entzun ere, gazteria,
Urte Berriak guzien baitan sortaraz dezan irria.

Iholdiko elizan, 1996.01.01

Euskal Herri erdian herri bat pollita,
berari egingo dut egungo bisita;
ttipia delakoan sendikorra baita,
zato enekin, otoi, onhartuz gomita.

Mendi eta erreka ederki egina,
Zizaleko harpeak bere atsegina;
Karrika mendian da heldu onddo fina,
eta zoinek dezake ahantzi Elina?

Zubiberri, Larrondo, Xuhikoa berdin,
Harrimurrietan da ura beti urdin;
Belokoitzeko ttintak ez du egiten min,
Pardiondokoan zonbat boketa da egin?

Hiribeheren barna Herla ta Bordeta,
Plaza ta Burguxilo, aldean Xarpota;
Mendihita zoin dago, nun aldiz Basoita?
Gure Armendaritzek badu nun zer maita!

Gaztelu bat badugu, ederra zen lehen,
agian berriz dute berdina eginen;
herriko ixtoria hor duzu jakinen,
arbasoen berri ta nundik heldu giren.

Gure Armendaritze da maitagarria,
azkar bezain sanorik hor laboraria;
lanarentzat urruntzen bada gazteria,
herriarekin badu bere lokarria.

Pilotak aspaldian badauka ohore,
antzerki ta kantuak nahiko balore;
herriak bizi nahi orai ta gero're,
bainan gazte guziak ezin ukan bere.

Ohantze pollit huntaz gaiten denok goza,
herria maitatzeko ideki bihotza;
geroa ez dadien agertu zorrotza,
maitatzen segi eta ez gaitezen lotsa.

Armendaritze, Armendaritze, ene ohantze gozoa,
zorionean, zoritxarrean aurkitu dutan altzoa.

1996.02.01



Laharraga gure etxea, Armendaritze

Jeanine begiralea eskertzerat noa,
Bizente eta Patxik baitute gogoa.
Mattin ere gurekin erran gabe doa,
hiruentzat baitzira on bezain sanoa.

Zilarrezko altzoa, urrezko bihotza,
zure ezpainetan da ama baten boza.
Badakizu sendatzen daukagun ez-ontsa,
nahi ginuke luzaz zurekilan goza.

Batzutan omore txar ohetik jaustean,
uroz izana gatik zer ezinbestean!
Erdi koskan aitamak hoin goizik uztean,
bainan penak airatzen zure ikustean.

Lan guzien artetik irri batekilan,
ahal duzun guzia guretako eman.
Hiruek milesker bat nahi dugu eman,
ez dugu ahantziko guk Jeanine sekulan.

Elinak hogoi urte

Hogoi urte ditu betetzen Elinak,
osagarria dauka holako adinak;
hortakotz ainitz jende hunaraino jinak,
batzuen balentriak baitira jakinak.

Aspaldian hasiak zauzkigu lehenak,
Etcheverry zenaren ikasle zirenak;
guk aipatzen ditugu beti hoberenak,
ezin baitira eman guzien izenak.

Pilotaren zeruan batzu dira sartu,
ukan dohainez ere ongi baliatu;
bertze ainitzek ezin bide bera hartu,
nahiz eta *Denek bat* ongi zerbitzatu.

Trinketak hogoi urte ta gaude begira,
hemen hasi guziak gurekin balira;
gure herri ttipiak ahulegi dira,
hoberenak goizegi urruntzen baitira.

Elkarte ttipi batzu handi bilakatzen,
herri amodioaz gazteak ohartzen;
Elinarekin betan zahartu gaitezen,
ikas dezagun doi bat haurren balakatzen.

Elinak hogoi urte, loriatu gaiten,
pilota ospatzeko urrats bat da aurten;
ahal dena eskaintzen entseatu gaiten,
elkartasunak baitu *Denek bat* egiten.

Xan Urbiztondo urrundu zauku, utzi du bere herria,
hoinbertze urtez izan ondoan guzien zerbitzaria.
Maite zituen bazter alaiak, etxeak eta herria,
Jauna, Zurekin har zazu otoi heldu den hargin berria.

Bihotz oneko gizon sana, umila bezain prestua,
bertzer atsegin egiteko zen mundu huntarat sortua.
Gaitz trixte batek menperatu du, hori ezin onhartua,
zorte hobe bat gure ustean baitzuen merezitua.

Maitatu ditu kantu bertsuak, maitatu ditu lagunak,
eta hoinbertze haren alderat gelditzen dira zordunak.
Gure euskara miresten zuen ohoratuz euskaldunak,
nolaz lehenik urruntzen dira beharrezko ditugunak?

Zorigaitzean ni egun Saran ezin aurki zurekilan,
«milesker eta agur bero bat» bekoz beko ezin erran...
Maitasunaren palotea utz ta dezagun esku eman,
zuk apainduko duzun zeruan elgar ikus dezagun, Xan.

1996.04.30

Herria astekarian agertu ziran bertsu hauk, aitzinetik honela erranez:
«Urbiztondoi Xan "Ihitia", 48 urte.

Gizon langile, ixila, ofiziale arraroa bere hargintza, harripikatzaile lane-
tan. Erran ditake gure elizak itxura ederra balin badu, Xan zena lan hortako
partalier artex eta kartsuenetarik izan dela, gure Jainkoaren aintzarentzat.
Jende osteak du beroki eskertu. Alkat bertsularia, bere lagun mamiak ere, nahi
izan du agurtu zenbait bertszuz; bera ezin etorritz, Roger Idiart Ainhoko erreto-
rak ditu abestu».

Iholdiko xokoan bazterrer begira
xori batzu noiztenka ibiltzen baitira,
ikusirik betea zagola kafira,
ixtant bat gelditzerat ausartatu dira.

Xori hoiek ez dira jinak urrunetik,
lehena hurbildua zauku Donoztitik;
bertzea mendiz mendi heldu Bitiñatik,
azkena etorria da Irisarritik.

Ez dira luzaz egon, ez, kafirari so,
barnekoak baitziren pollit eta goxo;
berak ere agertu onak bezain xintxo,
laster uztartu dira ttorttoila ta urtxo.

Beren hegalez orai guziak airatzen,
nahiz batto kafiran oraino gelditzen;
aita-amek artoski guziak artatzen,
ohantzerat ardura itzuli ditezen.

Batzuen zorionaz gu bozkariatu,
guzien goresmenak ditzaztela hartu;
azkena ez dadila goizegi airatu,
kafira sano hori ez dadien hustu.

Armendaritze, 1996.05.22

Zazpi probintziak

Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoa
Arabarekin betan aipatzerat noa.
Lapurdi, Baxenabar eta Xiberoa,
hor da gure sustraia, hor gure geroa.

Xuri, gorri ta berdez bakotxa da beztia,
zeru beraren izar bainan zazpi zati.
Oihu egin dezagun guziek norbaiti,
anaiak bezalaxe bizi gaiten beti.

Hego eta Iparra berexi zituzten,
beren mozkina xoilik zutela ikusten.
Hedoi ilun hortarik hasi gira jausten,
bihotzetako mugak ditugula hausten.

Ama beraren haurrak odol berekoak,
lurrari eskainiak hain segur Jainkoak.
Eskutan har ditzagun biharko gakoak,
euskaldun egon diton euskal herrikoak.

Berexgoak baitira kasik ahantziak,
batetara ditzagun zazpi probintziak.

Agur pilotazale ta pilotaria,
Donibanek derautzu ongi etorria.
Zurea izan bedi gaur gure herria,
xapelketa hunetan gaitezen loria,
pilota gorestekoko bozkaria
eskaint plaza gizonek daukaten irria.
Aupa neska mutilak, gazteri berria,
zuekin ohoretan da Euskal Herria.

Pilotarien maitez da gure agurra,
xapelgo hau dezaten kantuan burura,
xoraturik ezarri etxean den haurra,
sariez loreztatu sort herriko lurra.
Zu gure izarra, gu zure hura,
Gernikako haritzak eskaini ezkurra,
nortasuna erakuts garaituz beldurra,
bihotzez bihotz dadin punpatu mundura.

Ezkilarekin betan dezagun gaur kanta,
gorestekoko herria goretsiz pilota;
iragan aspalditik gure egin baita,
jelosian daudenak asko daude alta.
Zu, pilotari ona, urrun bota,
zuri so da aitatxi, zuri so da aita;
daukazun nortasuna erakutsi eta
izanen da irrintzin eta esku zarta.

Armendaritze, 1996.05.29

Heleta

Airea: Manex Pagola

Mixel Etcheverryrentzat

Heleta, Heleta, zu neure sort herri polita,
goizero entzuten dut zure ganako gonbita.

Landa ta pentze eder ainitzen erdian,
geroko esperantza da laborarian;
lano pean badago alha iduzkian,
neretzat pollitena dago aspaldian.

Plazaren inguruan hoinbertze ostatu,
pilota eta dantza, antzerki ta kantu;
Bestaberri feiretan bazira agertu,
ez zitia Heletak bihotzetik hartu?

Guri begira ere Jondoni Bixintxo,
kpera pollit bat da erreka bati so;
graziak eta ura baitzaizkio gozo,
heletarra dabila sano bezain zintzo.

Nola nik mendi bati ez egin agurra,
berari so bihurtzen izan naizen haurra?
Xoragarria zira zu, neure Baigura,
soinean duzularik jantzi xuri hura.

Biziak banabila itzul eta bira,
toki paregabeak nun nahi badira;
murgiltzen naizelarik amentsen erdira,
maitasunak narama Heleta herrira.

1996.10.29

Treina

Haurrentzat egina

Bidez bide xixtuka nork ez du ba entzun
trein handia pasatzen haizearen lagun?
Sugearen iduri, kolorea ilun,
jende ainitz berekin eremaiten urrun.

Zalu zalua doa, zer treina azkarra!
Ez du entzuten ere nik egin agurra;
oihu egiten dakot: «Har nire negarra,
burdinbidean zauden nagusi bakarra!

Zonbat jende ditutzu bildurik altzoan?
Batzu jarririk daude, bertzeak leihoan;
zuri begira nago galde hau gogoan:
Nun hartuak ditutzu eta norat johan?

Gauean ere berdin baitzaitut aditzen,
maite dutan sugeaz hasten naiz orroitzen;
gau eta egun hola baitzira ibiltzen,
ez zireia sekulan bidean lokartzen?

Maitatzen zaitut ainitz, ezin dirot uka,
bainan zendako beti zoaza lasterka?
Geldi zaite neretzat bederen noiztenka,
zure gorputz luzea dezadan pereka.

Doinua: *Mari Solt eta Kastero*

Euskara gure delako
borrokan gabilta asko;
gure haurñoek esperantza bat izan dezaten biharko,
elgarrekilan berriro ere laguntza egin beharko.

Laguntza horren beharrez
urte guzian nigarrez:
alde guzitan eskatu bainan etortzen dena ezer ez,
asetzen ere hasiak gira batzuen solas ederrez.

Euskara maite maiteak
iragan ditu mendeak;
beraren alde xuti zaitezte, bihotz oneko jendeak,
euskaldun garbi geldi ditezen Euskal Herriko semeak.

Laguntza ez da berria,
urtero da ekarria;
Hegoak eta Iparrak dugu urrats hortan lokarria,
salbatu nahi dituztelakotz hizkuntza eta herria.

Poza badut bihotzean
oihu hunen botatzean;
goazen aurrera berriro ere herriaren salbatzean,
etorkizuna argi dadien bakotxaren urratsean.

Bost urte huntan gabiltz ezkerraren pean,
amentsetan bederen ari da lanean;
pena hartuko dugu juanen direnean,
hoberikan ez baita naski eskuinean.

Bere gisan ezkerrak ainitz du eginik,
euskaldunen alderat bixtan da lehenik;
Madrileri batzuek baditu emanik,
orai eskuak dauzka garbitu ezinik.

Hizkuntzaren alderat mintzatu zen gora,
nahiz alferrik zaukun iragan denbora;
arrosaren ederrak ezin gaitu xora,
diru faltan denari ez eskain bolbora.

Hitzeman ere zaukun departamendua,
guri hitzeman eta nori du saldua?
Obratzeko orena balitz hurbildua,
ginaukan esperantza ez laike galdua.

Kultur etxeaz ere ginen lorietan,
aspaldian baiginen horren beharretan;
zintzo izanen ziren urrats guzietan,
podoreak ez hartuz beren eskuetan.

Solasen iturriak nasaiak zituzten,
ainitz erran zutela ez dute ikusten;
lantegiak dituzte hil zorian uzten,
gure herriak aldiz ari odol husten.

Aurtengo bozkak daude guziz nahasiak,
ezker eta eskuina ezkontzen hasiak;
nork entzunen dituzte gure garrasiak,
berdin finak baitira ospetsu guziak?

Euskaldun ainitz daude eskuinari hurbil,
gure geroa aldiz mainguka badabil;
karguduner mintzo naiz ahul bezain umil:
zerbait egin zazue, ez dugu nahi hil.

Ezin bizian denak begian nigarra,
giro hortan errexki sortzen da aharra;
batetara dezagun daukagun indarra,
guziek dugulakotz elgarren beharra.

Eskuin eta ezkerria harrika elgarri,
hutsak botatu nahiz batek bertzeari;
beti berak baitira gose ta egarri,
berexgoak ahantziz pentsa herriari.

Bakotxa bere alde ari da karkulan,
anaitasunik hola ez daike sekulan;
herriaren onetan egin dezagun lan,
herrak bazter ditzagun obra onekilan.

Ez nago ezkerrean, ez naiz eskuinean,
osoki ezin jarriz baten izenean;
zintzo batzu karguan jartzen direnean,
prest naiz edozonekin artzeko lanean.

Lore xuri pollit bat

Kantu xapelketan sarizatua

Lore xuri pollit bat, nik ez dut bertzerik
haurren garbitasuna aipa lezakenik.

Iragan urtean zen izan eskandala:
gizonki batzuk haurren bila zabiltzala.

Amak erranetarik hasi naiz ulertzen
nola diren helduak hurrez baliatzen.

Beljikat ez joan egiaren eske,
han gertatuak hemen gerta bailitazke.

Bahitze, bortxaketa, zonbat zapalkuntza,
dirua lagun zonbat Julie ta Melisa!

Hoinbertze itsuskeri, hoinbertze pairamen,
heriotza sarizat batzuek ukanen.

Idek otoi begiak, ilundu kopetak,
sala ditzagun gizon gaixtoen jostetak.

Nik ez dazkit guziak, ta beharbada hobe,
zer egin dezakegu haur gaixoen alde?

Beha zuen haurreri etxen ta auzoan,
ez ditene eror bihotz gabeen zepoan.

Armendaritze, 1997.01.18

Jean Mixel ta Mirentxuri

Mendibururen alabaren espos egunarentzat

Jean Mixel ta Mirentxu, milaka zorion,
egun zuen aldean nahi dugu egon.
Nola Lekorneri bat urruntzen zitzaion,
beha kantuño hunek zuentzat zer dion.

Autobusean egin lehen behakotik,
Heletako feiretan aurkitu geroztik.
Huts une ttipi bat ta eskolan ondotik,
ez zirezte aspertu elgar maitatzetik.

Eskola ez hoin maite, loreak artatu,
hori duzu, Jean Mixel, ogibide hartu.
Mirentxu asurantzen sailean da sartu.
Iana badaukazue ta bozkariatu.

Urrats handi eder bat duzue eginik,
fruituak sort ditela zuhaitz honen ganik.
Lekorne ta Heletaz maitasun izanik,
orai arte bezala ez ahantz lagunik.

Familia berri bat sortu zaiku hemen,
espos ta etxekoer bihotzez goresmen.
Etxenikak gaur goiti bat eskas izanen,
Ospitalea ere irriz has dadien.

1997.04.28

Serora beltxen bestarentzat

Aita Andres Hubert ta Joana Elixabet,
seroren esker ona eskaintzen dizuet.

Bi presuna handi egun ditugu aipatzen,
Joana Elixabeten biziak orroitzen:
Aita Andres Hubert-ek zuela laguntzen,
Serora Beltxak deitu taldea sortu zen.

Berrehun urte dira ospatuak aurtan,
mezu paregabe bat daukutela uzten;
lan eta otoitz ainitz zutela egiten,
hauien etsenplu onaz denak orroit gaiten.

Biziaren bidea gazter erakutsiz,
joste ta kozinatze eta gauza ainitz;
eri eta xaharren soleitzen ibiliz,
bertzeri eman dira borondate handiz.

Orai gauza guziak doaz errekarat,
lana eta fedea ttipituak hanbat;
bokazioneak ere ez lehen bezenbat,
emaguzue, otoi, grazia berri bat.

Eskerrak gutarteko serora beltxeri,
laguntza ekarririk batzu ta bertzeri;
bihotzak idekirik haur eta gazteri,
Jainkozko esperantza heda guzieri.

Besta xume hau egun urte berrikari,
zorion hau dezagun eskaini elgarri;
gurekin betan egun lotu otoitzari,
luzaz izan gaitezen zuen zerbitzari.

1997.05.16



Jose L. Gorrotxategi eta Alkat. Erdian Xanpun

Gora pilota! Gora pilotaria!

Zato, adixkidea, zato Baionarat,
pilotaren munduko kopa ospatzerat.

Trinket eder bat bada hor berri berria,
nagusiak derautzu ongi etorria.

Mundu guzia hemen zaiku elkartuko,
maite dugun pilota harturik lekuko.

Arbasoen bidetik lotuko gaztea,
goretsi nahiz bere lurralde maitea.

Jo zazue pilota, jo mila moldetan,
punpa dadin airoski denen bihotzetan.

Amenstu kopa hori ez sekulan uka,
berekin du euskaldun maitasun hurrupa.

1997.05.21

Ikus arte, Erramun

Airea: Irrintzina kantuarena

Erramun Caracotche apez ohiari

Bertsuen gaiak heldu zauzkit aste bakotx,
batzuetan goxoak, bertzietan xorrotx.
Egun aipatu behar artzain eta bildotx,
urrundu zaukulakotz Erramun Caracotch.

Iholdirat jin zela bederatzi urte,
apez ta pilotari sano bezain gazte.
Geroztik bere saila ederki du bete,
joanen zitzaukula ez ginuen uste.

Xokoa ezagutu duzu pausuz pausu,
zonbait herritan hola egin behar kasu.
Gozoki ta eztiki lana bete duzu,
ainixko ikusi ta entzunik baduzu.

Gaur egun ez da errex apezen bizia,
desberdina delakotz artalde guzia.
Bakotxak nahi bere arta berezia,
beharrik bazinuen duzun xinplezia.

Zuk eginak ez ditut denak aipatuko,
agerian baitira herria lekuko.
Guzien izenean zaitut eskertuko,
orroitzenak dira luzaz geldituko.

Gurekin iragana atxikiz gogoan,
sartu berria zira Jutsiko xokoan.
Oztibartarrekilan geroko ildoan
errex ditaike hemen ibili ondoan.

Apezak gaur ibilki batetik bertzera,
xuhurtzen ari dira urtetik urtera.
Lanak balinbazaitu itotzen sobera,
Iparlatzetik zato gure ikustera.

Bertze bat heldu zaiku, eskertu dezagun;
suerte dutenetan gabiltza gaur egun.
Goazen denak aintzina euskaldun fededun,
ikusi arte eta milesker, Erramun.

Armendaritze, 1997.09.02

Bertsu hauk *Herria* astekarian agertu ziran.

Ameriketako anai arreberi

Agur, anai arrebak, agur, euskaldunak,
goraintzi derautzue sort-herri urrunak.
Elgarri uztarturik herri maitasunak,
bat egin ditzagula desberdintasunak.

Artzaintzan asko urte mendian egonik,
nigarrez ere zonbait oren iraganik,
hemen zarezte orai erroak eginik,
inoiz ahanzi gabe nundik zaizten jinik.

Zuen bizitza ere geroztik aldatu,
bertzen ildo berean baitzirezte sartu.
Euskal Herrian ere gauzak kanbiatu,
elgarrekin denetaz gaiten solastatu.

Bihotzez euskaldunak zarezte egonak,
euskara atxikirik hartu zorionak.
Guk ere sail berean borondate onak,
nahiz ta kontra ukan otso ta lehoinak.

Guk han bizi behar ta zuek bizi hemen,
elgarren berri laster dugula jakinen.
Bestan eta kantuan bat dugu eginen,
euskarak gutartean hola du iraunen.

Herri berari buruz gabilta oihuka,
ez dezagun gurea ez saldu ez truka.
Odol bera dugula ez dezagun uka,
gozatzeko euskaldun maitasun hurrupa.

Armendaritze, 1997.09.17

Entrenazailea naiz eta badut pena,
kantuz agertuko dut sendi dutan dena;
gibelka ari gira ta galtzen omena,
merezi ote dugu ñapurrak izena?

Hoinbertze gauza eder eginik badugu,
bainan lehengo mitxa itzalia zaigu;
ezin etorri eta zonbat estakuru,
taldearen galtzea ote da helburu?

Borondatearekin betiko berdinak,
beti berek beranta edo ezin jinak;
berriro izaiteko jokolari finak,
etxean utzi kezakak ta buruko minak.

Ez dadin zerbait hautsi sokatira huntan,
lotu berriz lanari ta ez egon lotan;
ezkondu hoiak ere nekeak askotan,
soberaxko laketzen emazten altzotan.

Polliki mintzatzerat naiz gaur entseatu,
zuetarik bakotxak zerbait beza hartu;
ahulduz bagoatzi otoi konturatu,
elgarrekin dezagun taldea salbatu.

Ñapurrak taldea zen azkar ta ederra,
bainan abiatua da buruz behera;
lot lanari ta ekar behar den biperra,
berriz merezitzeko guzien eskerra.

Armendaritze, 1997.11.17

Urdazubiko herri ttikian ikusi zuen eguna,
idazkari bat paregabea aurten omentzen duguna.
Axular zuen izen ordea, horrekin zen ezaguna,
Pedro Dagerre Azpilkueta apez argi euskalduna.

Hiru mende ta erdi badauzka urrundu zela mundutik,
idatz lan eder asko utziak Saran sortu eskolatik.
Idazle talde bat laster lotu berak zabaldu ildotik,
nola harritu bere izena bizirik bada geroztik?

Orduan ere argiz jauntzia elizgizonen leloa,
salbatu nahiz hizkuntza eta nortasunaren erroa.
Gaur ere dugu xurgatu nahi zure maitasun beroa,
zuk *Gero* deitu liburu horrek ez dezan saldu geroa.

2017-garren Herri urrats

Irun eta Hendaia bateratuko direla amenstua

Irudaian baiginen sartuak goizetik,
jendea zen milaka edozoin aldetik.
Ainitz irrintzinaka jaustean treinetik,
hegaztinak zirela heldu nun nahitik.

Guk autoa ginuen doi bat urrun utzi,
dakigu lehen ere zer dugun ikusi.
Herriko mera nuen bideko nagusi,
nik aldiz janaria, xahako ta guzi.

Kirol tokirat buruz ikusiz hoinbeste,
hertzainek bazuketen asko buruhauste.
Buruzaikiak aldiz mikroetan tente,
Philippe Bidart eta Antton Etxebeste.

Ongi etorri zuten guziera egin,
erranez: «Herri urrats behar da Euskadin.
Gora euskara eta segi elgarrekin!».
Lurra ikaratu zen hango txaloekin.

Ikusi ginituen asko gauza eder,
luzaz behatu nuen bertsulari gazter.
Gitarrak ibiliaz eskuin eta ezker,
bertsu onak ziren ta musika halaber.

Harri altxatzaileak ziren urrunago,
lau ehun ta bi kilo batek egin gogo.
Rusoa zela edo nik dakita nungo?
Nik Peru zaharra dut askoz maiteago.

Rock musikan direnak munduko xapeldun,
Inglaterratik jinak Irudairat egun.
«Guk ere nahi dugu agertu euskaldun»
gure hizkuntzan batek garbi erran zaukun.

Merari erran nuen: «Zer da gauza hura?».
Kurutze handi bat zen, burdin edo zura.
Apezpikua han zen ziola ardura:
«Herri urrats ona da juaiteko zerura».

Denak jakin nahian galda eta galda:
«Dantzari talde on hau nungoa ote da?».
Lituani aldetik jina zauku barda,
buruzagia dute Gorbachev alaba.

Euskara laguntzeko zonbat ikusgarri:
dantzari, musikari, bai eta kantari.
Parisetik goiz hartan jin zen Etcheverry,
Mixel edo Phipip den ez galdatu neri.

Maitia ta Alfaro agurtu nintuen,
hogoi ta hamar urtez ikusiak hemen.
Eskerrak dazkotegu berriro erranen,
hok gabe ez baitzuen *Seaska*-k iraunen.

Hamar urtez Euskadi aldatu da arras,
nortasun sanoetaz orai da aberats.
Zahar, gazteak, segi, orroitu geroaz,
gora gure euskara, gora Herri Urrats!

Gaztetasun osoan denen alai garri,
euskaldunen artean hasten naiz kantari.

Atzokoari beha geroa gogoan,
zuekilan nahi dut urrunago joan.

Nere aita ta ama hartuz sahetsean,
bi herrialde eder dauzkat bihotzean.

Portuges ta euskaldun, hauxe ontasuna!
Ez dut ukatu nahi neure nortasuna.

Mundu xume batean sanoki haziak,
oparirik ez dauku eskaini biziak.

Gure kezka guziak goraki kantatuz,
lagun xintxo tartean bizi gira urus.

Eltzean sartuz penak eta zorionak,
kozina hobetzen du kantari dagonak.

Maitasuna dezagun eskaini elgarri,
bakearen lortzeko bilaka kantari.

Denak harmak eskuan herrari oihuka,
kantatzen dakienak bertzerik badauka.

Dolar, libera ta euro zenbat gerlarentzat!
Kantu bat aski laike bake on batentzat.

Bidez bide ez bada korrikaz korrika,
badoatzi guziak umiltasunean.
Batzuetan oihuak, bertzetan musika,
euskara daukatela beren ezpainean.

Iraganez mendiak, mugak ta ibaiak,
elgarri josten dira gorputz eta buru.
Bazterrean lagunak ta berdin etsaiak,
hizkuntza dutelarik guziek helburu.

Iduzki eta euri, berdin gau ta egun,
gaztetxoan aldean agertuz xaharrak.
Gure indar guziak batera ditzagun,
denen beharra badu gaur gure mintzairak.

Zonbat kritika eta zonbat arima hun,
euskara ta euskara, euskara zendako?
Goazen elgarrekilan egonez euskaldun,
hizkuntza bat baita ta gurea delako.

Errepika

Korrika, bai, korrika hizkuntzaren alde,
atzo zonbait ginen ta gaur milaka gaude.
Korrika, bai, korrika zato, adixkide,
gure seme alaben bidean baigaude.

Eritasuna zendako?
Zendako eritasuna?
Zendako eritasuna?
Eritasuna zendako?

Zonbat haur ta zonbat gazte
hemendikan bazoazte.
Hilabete edo urte,
epe laburra da trixte.

Ixtripu ta minbizia
ta gainerako guzia,
heriotzaren auzia
dago ezin sinetsia.

Droga ere aipagarri,
burrasoen nigargarri,
gazteriaren galgarri,
zoinek du hunat ekarri?

Aitatxi eta amatxi
oraino nahian bizi.
Sofrimendu ta garrasi,
ez zinduten ba merezi.

Bizi labur trixte huntan
gabiltzala nigarretan,
osagarriz amentsetan,
ardurenik debaldetan.

Medikuari zer galda?
Ta Jainkorik balinbada,
sendatzerikan ez bada,
sofritzea ez emenda.



Armendaritzeko eliza

Hiru urte ta erdi egona gurekin,
denbora labur hontan ainitz dugu jakin,
Urruntzen zirelakotz badugu bihozmin,
bainan begiratzeko guk zer dugu egin?

Ez naiz egun hasiko gaindizka laudatzen,
hastetik baitzintugun arras estimatzen.
Zure hitz xume denak gintuen xurgatzen,
ebanjelioa zen loreberrizatzen.

Fedezko urratsetan fermu bainan umil,
zure predikuetan argi bezain abil.
Berrikuntza bat ere zu baitan badabil,
Jainkoa ta bizia elgarri zoin hurbil.

Ettxerat etortzean barkamendu galdez,
ustegaberik norbait jenatu beldurrez.
Mintzatuz bakotxaren gora ta beherez,
laster griñatzen zinen guzien beharrez.

Guziz zaila ditaike gaur egun artzaintza,
deneri kausitzea ez delakotz aisa.
Ekarri ote dugu behar zen laguntza,
ala utzi dautzugu bakartasun latza?

Zure burua beti ezartzen azkenik,
iduri zure baitan ez zagola griñik.
Zinituen guziak gordean emanik,
fedea ta herria zinauzkan lehenik.

Ordain bat izaitez dugu zoriona,
buru bakotxak badu doakon korona.
Gutartean baitzira gaur arte egona,
har gure maitasuna eta esker ona.

Sail berri bati laster baitzira hasiko,
otoitzik kartsuena dautzut eskainiko.
Juaiteak maitasunik ez baitu hautsiko,
adixkiden aterik ez zaitzu hetsiko.

Emazte arina

Adartzarentzat itzulpen bat, musika berezi batean egina

Badira munduan emazte batzu
gizonetaz trufan daudenak usu.
Horier otoi egizazue kasu,
ni horrela eroria nauzu.

Errepika

Maitea, zaitut horrela galdua,
geroztik dut bihotz arraildua.
Maitasuna zaut berriz hurbildua,
elkartzeko jina da ordua.

Batek hola maitasuna ukatu,
ta nik arima guziaz maitatu.
Orroitzapenak zauzkit gogoratu
eta bera dut madarikatu.

Zu nola ikus bertzen besoetan?
Ito nindaikie orroitzapenetan.
Gaizki eginaz bazira damutan,
utz nezazu berriz amentsetan.

Ohartuz geroz gaizki zabiltzala,
zuzendu daike hori berehala.
Ezin maitatuz gu biek bertzela,
har nezazu amore bezala.

Ez lotsa, gaztea!

Darraiduren kantua

Adartzarentzat egina

Ez lotsa, gaztea, altxatu zazue bihotza,
gazteak du beti bizitzeko gutizia eta
geroko esperantza

Jostatu zaitezte guziak, sasoin onaz balia,
uste baino goizago bururatzen delakotz
gaztetasunaren itzulia.

Dantzatu, kantatu, besta egin eta elgar maitatu,
horiek guziak bizi labur dorpe hunek
beharrezkoak baititu.

Goazen elgarrekilan plazaz plaza omorea lagun,
gaurko gazteria dagoen bezala sanoa dela
erakutsi dezagun.

Goratu musika, kantuz hasi, hustu xahakoa,
alegrantzietan dantza jauzikan jar dadin
trixte denaren gogo.

Hortzez ta haginez egizue biziari ausiki,
ez ukaitekotan askok bezala iragan urtez
sobera urriki.

Elgarrekin kantatu behar dugu euskaldun gazteria,
gaztek deraukute beti danik ohoraturik
ezarri herria.

Sanoak dira denak, alai eta osoki omoretsuak,
eskaintzen dituzte bihotz xokoetan eta gorputzetan
dituzten suak.

Maitagarria da zuk daukazun suaren beroa,
zure eskuetan uzten dugu gure biharko
herriaren geroa.

Zonbat ederra den senditzea zure nortasuna,
ohartu gaberik segur ere, bertzer bezala,
aldatuko zaitzuna.

Batzu beren lanetan edo berdin nunbait ari ikasten,
bazterrekoeri erakutsiz zer talenduak ta
dohainak dituzten.

Bertze batzu aldiz zorigaitzez lan gabezian,
etsipena eta trixtura baizik ez baitute
ikusten ahal bizian.

Aupa, mutikoak, eta berdin zuek, neskatilak!
Atera plazarat ta gogotik dantza araz
guzien aments ixilak.

Hogoigarrenean,
sasoin ederrean,
gazten indarrean,
guzien aurrean,
sasoin ederrean,
hogoigarrenean.

Gure aita ta amek sortu urratsetik,
euskara badabila bide zuzenetik.
Oztopo eta kezka guzien gainetik,
etorkizuna dator gazten mingainetik.

Atzokoaz orroituz gerorat begira,
gaztetxoeri ere eskainiz dixtira,
gure egitasmoak leialak badira,
leia huntarik ere aterako gira.

Aupa neska ta mutil, goazen elgarrekin,
borroka luze huntan badugu zer egin.
Jolastu ta oldartu omorearekin,
denak egin ditaizke hogoi urterekin.

Egunero bizitzan euskara erabil,
bera sendi dezagun gure ganik hurbil.
Lagunekin goxo ta etsaiekin bipil,
hizkuntza izan bedi gure eskumakil.

Itxaropena heldu gaurko urratsetik,
haurteri eman otoi bakotxak beretik.
Aska gure euskara, aska bihotzetik,
elaberriak sortuz ezpainen artetik.

Gora zuek, gazteak, segitu gudian,
herri hau salbatzea hartuz helburuan,
elgar aurki dezagun hogoien buruan,
gaur erainak berpiztu ditezen orduan.

Jondoni Xipireneko bestak
goza ditzagun airoski:
kantu, dantza ta antzerki,
guziak herriko artixtak,

Lekorne ta Gerezieta,
Basoita Atizanekin,
xahar gazteak elgarrekin,
elgar lagunt ta elgar maita.

Xoko bakotxak lan egiten
auzoen errespetuan,
denak bizi gaiten gustuan,
horrela luzaz bizi gaiten.

Garralda, Urtsu ta Baigura
hor dagotzi gure zaintzen,
omorean bizi gaitezen
eskaintzen daukute agurra.

Airostasun ta goxotasun
izan dadila bestetan,
hor zaizte gu laguntzekotan
zuen alderat gira zordun.

Aupa, aupu,
xahar gazteak egon erne!
Aupa, aupu,
sanorik atxiki Lekorne!

L'insolent airean

Gure haur denbora iragan orduko,
gaupasa batean elgar ezagutu.
Dantzan ere hasi ginen tinko tinko,
elgar maitatuaz arratsa bukatu.

Geroztik horrela joan dira asteak,
noiztenka bi biak, noiztenka bakarrik.
Atsegin eman ez elgar ikusteak,
kasik uztartuak ta uste librerik.

Urte bukaeran afaiterat joan,
gazte ta lorios, aments xoroetan.
Burua galdurik xanpaña goxoan,
biak galdu ginen beso arrotzetan.

Berriz hemen nago maitasun galdezka,
lore bat eskas da ene baratzean.
Zato, nere maite, zato, neure neska,
sar zaite betikotz ene bihotzean.

Errepika

Sasoin ederra da, bai, gaztetasuna,
iduri luzea ta zoin den laburra.
Ez airatzerat utz sortu maitasuna,
laster handitzen da goizik erain hura.

Gureak gogoan

Frantses aire batean

Errepika

Xalbador, Retegi,
Mariano, Dassarry,
herri zerbitzari,
gure goresgarri.

Koblak

Haranbilletekilan Aguer,
eta bertze zonbat plekari handi eder.
Julian Retegi're ez bazter,
pilotaren fama hedatu hoier esker.

Ez ahantz Xalbador ta Mattin,
alegrantzia eman dute elgarrekin.
Herriz herri irriarekin,
zoin zen handi ta zoin ttipi zoinek jakin?

Xibero aldean Etxahun,
Mariano eta Dassarry denek entzun,
gure biziaren oihartzun,
gogoan eta bihotzean har ditzagun.

Bertze askok hartze aipamen,
guzien zerrenda ez dugu gaur eginen.
Zonbait urrun ta batzu hemen,
merezi dituztenak esker ta goresmen.

Oihanen gainerik
ta landen artetik,
hirien kasketik,
nola ikusi jendea urostasunean,
goxotasunez betean, zinezko bakean?
Noiz arte bizi onean
gurea den lurraldean?

Oihanen gainerik,
zuhaitzen kasketik
ta landen artetik,
ikus ditzagun guziak sanorik daudenetz,
ala horxet dauden bizi ezin hilez,
hormatuak aize hotzez
eta erreka pozoinez.

Oihanen gainerik
ta landen artetik,
elefanteen bizkarretik,
ikus ditzagun guziak daudenetz bizirik.
Zer daiteke lurraldea aberez husturik?
Gizona bizi bakarrik
abere bilakaturik.

Oihanen gainerik
ta landen artetik,
itsaso aldetik,
sartuko gira herrian hazi eraitera,
anaitasuna eskainiz denen maitatzera.
Herriko haize (edo muskil) ederra
zoaz zazpi aldetara.

Toki xoragarria da gure herria,
mendi ala itsaso, badauka denetarik.
Lurrak mila kolore, zeruak irria,
amentsetarik ere ez da ederragorik.

Hoinbertze oihan eder Irati ta beste,
urtzo ta onddo-leku, amoros ohanze.
Bake bila hor daude xahar eta gazte,
gozatuz iduzkia, bai eta hego haize.

Ibai ta erreketan hainbat arrantzari,
amuekin margotuz urak duen urdina.
Lurralde pollit huntan nor ez da kantari?
Bihotza guziz alai ta gogoia arina.

Pentze eta alor, baratzeak ere,
biziaren seinale paregabeak daude.
Itxura ala usain ta hoinbertze kolore,
ondarearen zati gerokoentzat gorde.

Errepika

Euskal Herri pollit huntan
badugu zer erakutsi.
Ontasunak eskuetan
maitasunez gaiten bizi
gure herrian nagusi.

Amikuzeko ikastolako estrena

Egun eder bat gozatzen dugu eta bada gozatzeko,
badago ere ainitzendako lehengoaz oroitzeko.
Laguntzaileak egun trumilka eta denak eskertzeko,
bainan ez otoi hortan gelditu, bada oino egiteko.

Gauza ederra dudarik gabe toki hunen ikustea,
gauza ederra dudarik gabe euskara erakustea.
Gauza ederra hanbat hautetsi, denak bihotza betea,
berdintasuna dugu galdetzen bainan ez karitatea.

Omore ona ere haizu da, berari diot erranen,
apezpiku bat bezain ederki mintzatu baitzauku hemen.
Jaun deputatu Intxausperi dut irri batez galdeginen,
ikastola bat eraiki dezan Garazin hil baino lehen.

Prediku onak labur baitira huntan beharko dut utzi,
jeloskerian ez diten sartu Hazparne eta Garazi.
Denen borroka luzea baita ez otoi sekulan etsi,
elgarrekilan segi dezagun egun, bihar eta etzi.

Pinpirin bat bezala

Pinpirin bat bezala noa hegaldaka,
ikusiz Amerika, maitatuz Afrika,
burrasoeri kantuz, haurreri oihuka,
ez dezaten irria gerlarekin truka.

Irris pikor batentzat aharran Asian,
Ozeanian denek zangoak bustian.
Europa zahar hortan espantu handian,
denetan hoberenak agertu nahian.

Haurrak ikusi ditut hola ibiltzean,
eri ta zaurituak ta batzu gosean.
Bi Txomin ta Unai bat kartzela hotzean,
trixte nintzan Donosti xokorat heltzean.

Uros izaitekotan gu mundurat jinak,
ta zendako guziak ez gira berdinak?
Irri bilaka ditzen denen bihozminak,
maitazkitzue haurrak eta pinpirinak.

Errepika

Trixtura guzieri goratik ufaka,
trixturarik ez dezan haur batek besarka.

Menditik plazara

Adartza taldearentzat egina

Euskal Herriko xoko baten edertasunik pollitena,
orai artean sanorik begiratu deraukutena.
Berari dugu egun batez ebatsi *Adartza* izena.
Bankako mendi hortan mendi eder bat maite duguna,
 guhauren bizi guzian,
 musikak sortu auzian,
 gazteen dantza jauzian,
 aspaldi huntan zaitut laguna.

Adartza izena harturik gabiltza musika bihotzetan,
gure arbasoek utzi aberastasun ederretan,
dantza jauzi eta mutxiko edo halaber fandangotan.
Elgarrekin josta araz xahar gazteak gure plazetan;
 betiko kezkak utzirik,
 trixturak ere galdurik,
 goazen alegerarik.
kantu eder bat ezpain xokotan.

Adartzain musika goxoa balinbaduzue maitatzen,
ibiliko gira luzaz eta gogotik zuen alaitzen,
zuek gaztek baigaitutzue hanbat amodioz laguntzen,
eta horrela ez zaiku gure musika inoiz ixiltzen.
 Usaia onak atxikiz,
 lagunak kantuz ikusiz,
 geroa dukegu irriz.
Has gaiten, beraz, horren moldatzen.

Heletatik Luzaiderraino ta Hostatik Lekunberrira
alaitasunaren mutil omoretsuak izango gira:
heda dadila herriz herri gure musikaren dixtira,
esperantzaren izarra sar dadiela bihotz erdira.

Kantuen pitzaraztera,
herria dantzaraztera,
gurekin otoi atera,
Adartzarekin lagun bazira.

Une pointe d'accent airean

Herri hau da, bai, Euskal Herria,
egun batez hainitzek utzia,
zurea da ta maitagarria,
onhart otoi ene goraintzia.
Herri hau da zure sort-herria.
ez duzuna naski ahantzia,
elgarrekin gaiten bozkaria,
goza zazu ene goraintzia.

Zu Euskal Herritik urrundu zinena,
nigarra begian xoko hau utzirik,
jina da eguna baztertzeko pena,
zendako oraino gelditu trixterik?
Urtetik urtera denak hurbilago,
aldatze ederrak ekartzen biziak;
kantari heldu naiz, lorietan nago,
eskaini nahian ene goraintziak.

Munduak dituen hegal guzietan
euskaldun umeak zoin barreatuak!
Gizon ta emazte zoin bere lanetan
beren sort-herriaz beti gogoetan.
Edertzen tutzue bost kontinenteak,
herria gogoan egonez guziak,
bihotzez agurtuz batzu ta besteak,
zuentzat doatzi ene goraintziak.

Afrikan, Asian ta Ameriketan,
Europan, bixtan da ta Ozeanian,
saltzaile, koziner edo baratzetan,
lanaren munduan beti errabian.
Anai ta arrebak, gaude zuekilan,
zuekin aitatxi eta amatxiak;
ez, otoi, herri hau ahantzi sekulan,
bi musu ta dener ene goraintziak!

Sortzean berdintsuak gutiz gehienak,
gero dira etortzen kezkek eta penak.
Gaur aipatzen badira gizonen zuzenak,
agurtu nahi nuzke kartzelan daudenak.

Kartzelatu daitaie edozoin bidetik,
errex da baztertzea batzuen legetik.
Goraipatu nezazke guzien gainetik
eroriak direnak herriaren gatik.

Ondotik entzuten da soinu eta ele,
baginakien zela abertzaleen alde.
Bainan bere jokoa ederki du gorde,
otoi, zaude ixilik, kondenatu gabe.

Erortzen direnean haxe komediak,
batto ezagutzen dut, lagun ginen biak.
Emendatuz doatza lasterka berriak,
makurtzea eginen du egunkariak.

Harrapatu harek du zenbakia lehen,
huts guziak dazkote gainerat emanen.
Holako jukutriak merke dira hemen,
ta jaunttoek ez dute deus kontra erranen.

Lehen furfuri hura iragan ondoan,
denak ixiltzen dira zoin beren xokoan.
Zoinek ditu noiztenka izanen gogoan
tristezian daudenak kartzela ziloan?

Preso dagoen hura bihurtzen arrotza,
maitasun beroena berehala hotza.
Nortasun ttipikoak gutientzat lotsa,
deus egin gabe zauku lasaitzen bihotza.

Har dezagun gogoan zer daiken kartzela,
kabalen gisa asko han bizi direla.
Adinik onenean ustelduz horrela,
ez pentsa makurtua zuzenduko dela.

Frantzian ezin berex ona ta gaizkia,
batzuen ditaria bertzentzat saskia.
Bainan sosaren saltsan bazira bustia,
ez kexa, jinen zaitzu laster amnistia.

Aspaldiko denboran euskaldun presoak
ahantziak bezala ditugu gaixoak.
Ez utzi erortzerat buru ta besoak,
egun txarren ondotik jin diton gozoak.

Batzu kartzelan eta bertzeak ihesi,
nahi gaituzte denek bizirik ehortzi.
Segi gure borroka, ez dezagun etsi,
irabaziko dugu bihar edo etzi.

Agur kartzelatuak ta iheslariak,
aberriaren maitez gordean jarriak.
Zuen borroka ez du aztuko herriak,
gora Euskadi eta gure gudariak.

Hegoko anai batzu iparrearan hiltzen,
askatasun bidean zirenak ibiltzen.
Bertze batzu urrunduz auhenak ixiltzen,
eta gure artean zoin guti mugitzen!

Uhainen zapalkuntzan anai dira izan,
lurrerat heldu eta elgar ezin jasan.
Gizonki jokatuaz aingeruen gisan,
zenbat gerla sortzen den euskaldun arraintzan!

Anaitasun lekuko gure mendi gainak
usteltzen ari ditu sosaren usainak.
Pausa leku direla nasai arrazoinak,
kanpokoen indarrek ahultzen artzainak.

Mintzo dira frantsesez edo espainñolez,
guti direlakoan hobendunak denez.
Gaurko ikastoletan euskaldun onik ez,
zenbat anai kolpatu ditaiken mingainez.

Gorespen bero batzu polizari buruz,
iparrearan nola den dezazuen ikus.
Ustez denak lurpean batzu kartzelatuz,
zeren gatik gazte bat utzi dute gorputz.

Hogoi urte huntan da emana estekan,
bainan horren beldurrik nehorek ez ukan.
Nahiz denen asmoak berdintsuak dauzkan,
noizko sartuko gira amentsen Europan?

Aldakuntzaz baiginen guziak egarri,
sozialismoa zen bi aldetan jarri.
Euskaldunentzat horrek on guti ekarri,
otsoak kendu eta zerriak ezarri.

Urtean behin dugu Aberri Eguna,
Bazko argi berriak argitzen daukuna.
Asko tokitan baitzen aurten euskalduna,
noren aberria da puskatzen duguna?

Batzu Madrilek utzi diruen jabeak,
bertze batzuek armak, horra bi bideak.
Luzatzen duelakotz Euskadin bakeak,
galdera bat banuke: zoin dira hobeak?

Euskaldun nortasuna eder baizen handi,
bainan bide erditan ezin gira gelditi.
Askatasun gose bat balinbada sendi,
norekin egin daike biharko Euskadi?

Elordoi zain

Soinu: Kuntzulu

Xibaltarrek ospea historian zehar,
guk Amikuzekoa gaur aipatu behar:
Elordoiak ixurtzen ditu zenbait nigar,
ez du putzu batean ito nahi bihar.
Ezetz, ezetz, ezetz, ezetz, ezetz!
Lakua ez zauku beharrez.
Ezetz, ezetz, ezetz, ezetz, ezetz!
Natura ez kutsa nigarrez!

Hautetsiak hor dira bapo bezain eder,
izenek berdintsuak: Lasserre eta Aguerre,
haundien mutil ttipi karguari esker,
garbi ez dituztenak bota nahiz bertzer.

Beti berak nagusi ta zer mila sorgin,
bizi nahi dugula dezatela jakin;
Elordoi utz bakean bere lagunekin
zuen zikinak garbi, besterik ez zikin.

1997.11.17

Laborariari

Airea: Urrundik ikusten dut

Lan horrentzat baduzu ainitz amodio,
bainan zuk egin gauzek ez aski prezio.
Horrek ez dezan ukan zerbait ondorio,
karkulen egiteak orai du balio.

Ikusten dira zonbeit burua galduak,
kontseilari batzuez maiz akulatuak.
Hok egiten dituzte airoski konduak,
zuri saldu ondoan lurren ongailuak.

Parte bat iretsiko baitu zure lurrak,
bertzea eremanen du euri uharrak,
pozoindatuz errekek eta ur bazterrak,
biziarentzat utziz ondorio txarrak.

Baitezpadako gauza da ingurumena,
gero ta gehiago goraipatzen dena,
gaitz ainitzen gakoa eskutan duena,
zu omen zira hortaz den hobendunena.

Bazterrak sano utziz gastu gutiago,
hein batean egonez saltze hobeago,
irabazi garbia berdin gehiago,
lur lanaren geroa hortan ote dago?

Aldizkariren batean agertuak

Biga ziren

Airea: Xalbador zenaren Amentsetan

Bi andereño hil ziren ixtripuz Arrosa herrian.
Iparragirre sarian bigarren atera ziren bertsuak.

Azkenik egin euri nigarrak aments hutsetan galduak,
gazteak etxen sartu berriak, apal apalik buruak.
Amak haurrari orroitarazten ikastolako orduak,
nola asmatu bi lore gazte zauzkigula urrundua?
Beren biziko udaberritik eraman ditu neguak.

Lore guziek bezala zuten bizitzen udaberria,
alaitasuna nasai hedatuz, eskainiz beren irria.
Paregabeko baratzea zen bientzat Euskal Herria,
zabaltzen zuten oroz gainetik euskara maitagarria,
sekula santan ez zadin agort hizkuntzaren iturria.

Begiak zauzkit orai bustitzen iturriaz orroitzean,
Errobi zoan, beti bezala, bide luze ta hotzean.
Hormak zituen denak margotzen zoritxar haren goizean,
zer zinioten, gazte maiteak, zuen azken solasean?
Norentzat ziren azken agurrak betirako urruntzean?

Uda betean oso polita Arrosako herri hori,
garaztar gisa dantza jauzitan beheiti doa Errobi.
Nola onhartu bi andereño bertan zirela erori?
Hor zuendako beti badauzkat bertsu xume bat edo bi,
bainan erreka gaur nola deitu: Errobi ala Hil hobi?

Ixtripuaren iluntasuna margotzen zuen lanoak,
bi xori gazte bereganatzen ezin asmatuzko loak.
Ez jakinean beren lanetan ari ziren etxeoak,
kantuz ta oihuz zoin alegera ikastolako xokoak,
ez ziren berriz harat helduko beren bi andereñoak.

Berria laster zabaldu baitzen ixuri ziren nigarrak,
nola kontsola Lasa aldean ikastolan zauden haurrak?
Etxekoeri nola eskaini esperantzazko indarrak?
Euskal zeruan pizten zirela maite gintuen izarrak,
bi zerbitzari galtzen zituen *Seaska*-k eta euskarak.

Betidanikan edozoinentzat ixtripua da lazgarri,
nolaz orduan, nolaz horiek, galdezka gaude elgarri.
Jadanik guti agertzen dira herriaren zerbitzari,
iduri luke mundu osoa gure aurka dela ari,
berriro biga horrela geituz luzea zen zerrendari.

Urrundu dira gure artetik, bainan ez dira galduko;
hasia zuten sail ederrari ezin dute egin uko.
Urruña eta Itsasu ere hartzen ditugu lekuko,
eguneroko borrokarekin herria da salbatuko,
ta zuek erein hazi sanoak laster dira loratuko.

Seaska-k aurten hogoi urteak alaiki ditu ospatzen,
ezagutza bat hartze duela hasiak dira ohartzen.
Ikastoletan ate guziak ari dituzte zabaltzen,
udaberriko iguzkia da gela guzietan sartzen,
Lasan nigarrek busti karpetak dituelarik xukatzen.

Zuentzat egun, andereñoak, marrazki bat dut eginik,
oporretarat Garaziraino biak zireztela jinik.
Auto berri bat badut zuentzat Olentzerotan ukanik,
lore gorri ta xuri berdeak gelan baditut emanik,
zatozte laster berriz gu ganat, Bernadeta eta Monik.

Herria, 1999.09.20

Maiatz aldizkaria, ez dakigu zoin egunetan

Nahi duguna

Eskola girixtinoko erakasle batek eskatua, bere ikasleeri erakasteko.

Eskolan eta etxean ere ari gira usu kantuz,
gure gisako kezka ttipiak goxoki xaramelatuz.
Gu baitan dagon alaitasuna ezin da iluntzerat utz,
irriarekin nahi baitugu joan geroari buruz.

Hoinbertze gauza trixte badira egunero telebixtan,
bortizkeria ere ardura nagusitzen eskoletan.
Ingurumena ondatzen ari zaigu bazter guzietan,
nola irria atxiki hola gure ezpain xokoetan?

Izurriteak alde guzitan, urak badu ainitz indar,
lur ikarekin etxerik gabe askok ihes egin behar.
Burraso eta haurren artean dena kezka eta nigar,
halarik ere sanotasunez guk handitu nahi bihar.

Aipatu behar nahi ala ez azinda ta abereak,
guziak dira maitagarriak, bakotxak maite bereak.
Ero direla estakuruan milaka dira erreak,
nola ez beraz sutarat bota jauntto batzuen legeak?

Nahi duguna argi ta garbi da bakea eskoletan,
zerbait ikasi dudarik gabe ta jokatu kiroletan;
adixkidantzan egon guziak haurrak helduekin betan,
zorianaren izarrak piztuz xahar gazten bihotzetan.

Azken aldian kantatu nuen nik hemen apez sartzean,
orai hirutan hogoi urteko apezgoa ospatzean.
Elgarrekilan elgarrendako eman gaiten otoitzean,
apez berriak sortu ditezen xahar batzu ezintzean.

Jaun Etchegaray, egona zira zu luzaz gure artean,
zure kargua ere betea fede ta borondatean.
Egun guziek atsegin dute zure berriz ikustean,
apeza ere hobetzen baita bere herria uztean.

Lana doi bat goiz uzteak naski emaiten du osasuna,
eta uste dut horixe dela zuri gertatu zaitzuna.
Ondokoeri joan dadila mezu hunen oihartzuna,
bildu dezaten zure adina ta zure gaztetasuna.

Mila zorion ta mila esker, zu Etchegaray artzaina,
eta agian luzaz oraino izanen dugu ordaina.
Zuk ere segi bide berean zabalduz zure dohaina,
omore onez apainduz beti maitasunaren mahaina.

Trixterik da Hendaia, trixte Xabaloa,
Joset adixkidea hemendik baitoa.
Beti izan delakotz fede handikoa,
zeruan sartu dela erran gabe doa.

Norbait lagundu nahiz hor gaindi dabila,
ez gaitezen nekatu herrestoen bila.
Kapelua buruan, eskuan makila,
lagunen bihotzetan Joset ez da hila.

Joset ta Estefana uroski biziak,
hortan lagundu ditu Jaunaren graziak.
Ez izanikan ere amenstu guziak,
nunbait sortuko dira zuek erein haziak.

Dorpea izan badu bere pairamena,
Estefanak egin du ahal zuen dena.
Elgarrekin dezagun zatikatu pena,
kotsolatzaile hartuz bere orroitmena.

Elgarrentzat eginak bat eta bertzea,
beti zaila izaiten laguna galtzea.
Bizi berri bat naski da heriotzea,
pozgarri izan bedi hortaz orroitzea.

Zuen bizitzan asko bertzeri emana,
higadurak jendea maiz du eramana.
Gure maitasuna gaur doa zuen gana,
ikusi arte, Joset, agur, Estefana.

Zure haurrerri eskaini eta zure bizitza osoa,
maitasunekin tinkatu duzu amak luzatu besoa.
Oraino ere itzul gu ganat zure behako gozoa,
gure bihotzek entzun dezaten aita onaren mintzoa.

Penetan da Makea, nigarrez Hegia,
Koxek mundu huni du itzultzen begia;
bere xintxotasunez gaitezen balia,
Jaunari eskatzeko zeruko argia.

Hoinbertze berexgo da egungo munduan,
zu ere arizana biziko guduan.
Jainkoari errozu sartzean zeruan:
«Haurrak atxiki ditut neure inguruan».

Trixtatu behar denik ez dezagun pentsa,
hau zerurat doala ez baita amentsa.
Gu guzieri ere egizu laguntza,
Koxe, zure irrian bazen esperantza.

Hegoa ta Iparra bihotzez uztartuz,
bizi izana zira guziak maitatuz;
Koxe, zoaz bakean zeruari buruz,
hori goza dezazun Renée-ri juntatuz.

Iragaiten bazira Donapaulen gaindi,
eta zure burua ez hain ontsa sendi,
han badago etxe bat zabal bezain haundi,
beldurra bazter eta lasai zaite geldi.

Ez da etxe pollita, erran gabe doa,
ta atean jotzeko behar da gogoa.
Zure kezka guzia airean badoa,
sendituz etxeok daukaten goxoa.

Sortzean arrosa ta hiltzean elorri,
ta nor ez da bizian eritu erori?
Hor laguntza sano bat eskaintzen orori,
bere izena ere ez dea *Sokorri*?

Gizon gutixko bainan emazte taldea,
sendagintzan hain segur bera da hobia,
hala beharrez edo beti hala dea?
Sendagailu onena beren omorea.

Gorputza daldaretan, xixtaka zauria,
pairamenak bortitza bere negurria.
Atea zabal ta hor mediku berria:
andere ezti batek eskaini irria.

Etxola bati

Frantses kantu baten itzulpena

Ez dut, ez, ahantziko etxolaño hura,
gaztain ta harizpetik eginez agurra.
Usu berarekin amentsaren bestan,
iragan denborari maitasun hizketan.

Duzun ixiltasunaz jelosian nago,
bakea gustatzen zait gero ta geiago.
Mendi kasko hortan erregea zira,
artalde guzieri goxoki begira.

Egun bizi moldea azantza ta kea,
ta horren sanotzea da zinez nekea.
Laster zure ganat gaiten beraz joan,
sendatu ditene denak bai zure altzoan.

Errepika:

Goxo da etxolan supazter xokoan,
haizearen maldan, amatto gogoan.

Iholdin hasiz Irisarrirat, Heleta, Armendaritze,
Suskunetikan Landibarrerat eta hor da Iparlatze;
Izura utzi ta Arantsusi, Larzabale ta Bunuze,
Ibarla, Hozta eta Donozti, badago bide kurutze.

Bozkak hurbiltzen ari zaizkigu, denak elgarri pusaka,
bakotxak bere ikus moldean hautu nasaia badauka;
ez otoi sinets entzun guziak, ez, otoi, sobera eska,
herrian ala beren buruan nun dago batzuen kezka?

Eskuinetik ta ezkerreraino urtxoak eta beleak,
batzuk eginak erakutsiz ta bertzek eskainiz eleak;
laster paperrak ihautuko tu bideak eta kaleak,
iratzartuko ote zaizkigu euskaldun abertzaleak?

Batzuek dute beren laguntza alderdi ospetsuetan,
suge andoilak bezala dabiltz lerraka bertzen oinetan;
nik neure botza ezarriko dut egiazko gizonetan,
jokatu nahi balin badute gure herrien onetan.

Politikoen zerrenda hortan zonbat otso, zonbat zakur!
Gibeletikan kaka hire ta aintzinetik mila agur;
abertzalea, segi aintzina eta bururik ez makur,
bere sailean leial dagona ez baita nehoren beldur.

Armendaritze, 1998.02.22

Goizetik arrats arte argiaren bila,
aments xoro batean trixteki nabila.
Ez naiz osoki bizi, ez naiz arras hila,
bainan hementxet nago ahul ta debila.

Zilo huntan nau sartu herri maitasunak,
lehenago harturik horrela lagunak.
Borrokaren saritzat zer egun ilunak!
Hortarako girea sortu euskaldunak?

Egunak luze eta gauak luzeago,
noiz arte naizen hemen kezkatuik nago.
Argia gogoan ta beti ilunago,
bihotzik ez duena da hobekiago.

Bainan ez otoi pentsa nigarrez naizenik,
ez baita betirako ehorzten zuzenik.
Nitan den on guzia bertzeri emanik,
etorkizunak ez du izango ilunik.

Batzuentzat eskas, bertzentzat sobera,
nola gintaizke bada hemendik atera?
Lepoan hartu eta segitu aurrera,
egun batean norbait izango baigera.

Errepika:

Iraun, atxik, borroka, haize zirimolan,
eta otoi argiaz ez etsi sekulan.

Herria, 1998.04.22

Berriz botzak zauzkigu etortzen gogora,
ainzkoren ondotik herrikoak horra;
bat bertzea apalduz nehor ezin gora,
predikuen saltsan da itotzen denbora.

Herri handietarik ttipieneraino
bozken errabia da azkar eta sano;
lehengo bozkez zerbait aipagai duteno,
atzokoa naiago biharkoa baino.

Hamarretarik zortzi auzo edo kusi,
denek karguan nahi, nehork ezin utzi;
etxez etxe doatza salto eta jauzi,
ohoragarri baita herrian nagusi.

Bozketarik bozkarat doaz zonbait urte,
urtek ere zauriak sendatzen dituzte;
berriz haste aharran zonbat buru hauste,
batasun ttipiena puskatzen baitute.

Ikus molde guziak daude beharrezko,
gure herri politen indar berritzeko;
nork bere alderdia nausiarazteko,
ezarri lezakete herria saltzeko.

Gerorako bidea gutik du aipatzen,
lan handiak litaizke hitzen begiratzen;
bertze gisa baterat dira borrokatzen,
huts guziak dituzte elgarri botatzen.

Amak hau erran zuen, aitak hori egin,
aitatxi ere saltsan sar ditaike berdin;
xuri dena beltzatu, garbi dena zikin,
horra zer den gertatzen kargudun gaiekin.

Amentsetako botzak artoski kondatuz,
biranazka doatzi herritarrer buruz;
eskuak tinka eta begirat behatuz,
etxez etxe dabilta hoinbertze astoputz.

Batzuk maite bisita edo ohorea,
hori da boz biltzeko sortu den moldea;
dener hitzeman eta hauxe da ordea:
azken paperño hura dagola gordea.

Nehor ez da herrian deneri gustatzen,
lagun onak baititu bakotxak kontatzen;
bainan botzen gosea delarik jazartzen,
agur eta irriak dira emendatzen.

Plazaraino bazira etxetik jalgitzen,
edo merkatuetan bazira ibiltzen,
kolpu bat pagatzeko nor nahi aurkitzen,
hortan ageri bozkak direla hurbiltzen.

Herri ttipi pobreak baititugu hemen,
beharra baginuke gizon zintzo onen;
bainan batzuer nola botza da emanen,
batek erran guzier baitiote amen?

Handituz doalarik herri hunen mina,
bere alde batzuek egin dute zina;
faltsua bazter eta hauta otoi fina,
izanen da zer egin hemendik aintzina.

Herri karguaz baita hoinbertze egarri,
predikuak utz eta lot gaiten lanari;
bakotxak hau dezala buruan ezarri:
ohorea ahantziz pentsa herriari.

Denak talde bereko ez da beti ontsa,
desberdintasuna da guziz aberatsa;
herriko onarentzat uztartzea aisa,
bainan aharran otoi ez denbora pasa.

Hau ere ikusten da gure herrietan:
urguluzko obrekin itoak zorretan;
bertzeak zorren beldur erdi amentsetan,
baditaike zer egin naski arte hortan.

Erraiteko zer egin ez nindaik ni has,
kontseiluño hunekin segitzen dut beraz;
golfa eta pizinak eder dira arras,
bainan orroitu ere herriko jendeaz.

Gauza ederrak dauzka gure Euskal Herriak,
bakar bakarrik xuhur ditu lantegiak;
batzuen xede oner ez hetsi begiak,
esperantzik ez dezan galdu gazteriak.

Herriko Etxe hortan sartzen zirelarik,
agert ziren bezala ez izan lotsarik;
goraki mintza zaita ta zure baitarik,
Euskal Herriak ez du ahulen beharrik.

Kontseiluko berria, kontent zira arras,
ainitz da egiteko, denak nahas nahas;
euskalduna naiz eta zertan nindaik has
herriaren izena emaiten euskaraz?

Herriko Etxe hortan kiski eta kaska,
nundik lot ari gira buruari hazka;
diru guti ta ainitz hasiak galdezka,
lagunt irratia ta lagundu *Seaska*.

Herriaren mintzoa baitugu entzuna,
bere ganat doala gure oihartzuna;
herri huni dezagun eman osasuna,
mundurat zabal dezan bere nortasuna.

Askotek nahi dute herrian kargua,
bainan ez dute maite konduen ordua;
geroari begira prestatu lekua,
gazte guzietan otoi luzatuz eskua.

Herriko kontseiluan elgarrekin ikus
botza eman dutenak nola ezar urus;
Parise beztitzeko Euskadi ez biluz,
bainan gida herri hau Europari buruz.

Denak onak zirezte bozka egunetan,
gero doi bat aldatzen hastean lanetan;
gora herri gizonak herriko etxetan,
jokatzen direlarik guzietan onetan.

Haurren eskubideak

Berriki telebixtan ainitzek ikusi
haur batzuen geroa zonbat den itsusi;
etxekeok saldu ta arruntek erosi,
betikotzat galduak behar dute bizi.

Zonbaitek ari behar gau egun lanean
baldintza txarretan ta bertzen menean;
erdi gosean ere guziz geienean,
eta ingurukoak beti ixilean.

Aipa dezagun ere futbol mundiala:
milioiak trumilka hortan dabiltzala;
baloi baten ondotik denak tirahala,
ahantziz hori hurrek egina dutela.

Bertzetan gertatua ez zaiku hoin handi,
bainan holako batzuk daude hemen gaindi.
Hurrez baliatzea noiz ditaik geldit?
Justizia pixka bat laster etor bedi.

Zuek, erakasleak, zuek, hautetsiak,
haurrerri hurbil zaizten lagun bereziak,
belarri ta begiak ez atxik hesiak,
maitasuna du behar haur baten biziak.

Haurren eskubideak guretzat badira,
zuen laguntzarekin obratuko dira.

1999.01.27

Jemeineko borda izanari

Neure aitaxi eta amatxiren etxeko arditegi xumea lurreratu zuten,
berri baten eraikitzeko

Pattar baten kaxkoan agerian zinen,
norbait hurbilduko zen norbait zenetz jinen.
Ez derautzut geiago agurrik eginen,
nola umiltasunez desagertu zinen.

Xahartzen hasia zen zure teilatua,
xilo batzuetarik argia sartua.
Haur denboran egon naiz hortaz xoratua,
iduri izarrerri zinela lotua.

Zure idekidurak ttipi ta hertsia,
tresna batzu hor lotan zahar ta hautsia.
Atean erramuzko kurutze bitxia,
fededun esku batek betikotz josiak.

Korraletan xumeño bat zutarat sartzeko,
argirik ez zelarik ardien deizteko.
Multxo ttipi batekin laster zen beteko,
nahiz enetzat handi aments egiteko.

Aipatu behar ere ondoko haritzak,
zoritzarrez zahartzen hasiak ainitzak.
Esperantza emaiten batzuen bizitzak,
jinen ziren onddoen sekretuen giltzak.

Ondoko etxeari betitik lotua,
gaixo bordak jasan du Judasen tratua.
Zonbat urtez egonik abandonatua,
erosle berri batek du lurperatua.

Haur denboran goxatu naiz zure altzoan,
orai bi nigar xorta begien xokoan.
Nik agurtuko zaitut Jemeinerakoan,
aitatxi ta amatxi atxikiz gogoan.

Azken agur bat, beraz, borda maiteari,
edo hobeki erran borda izanari.
Mezu hau hel dadila jabetu denari:
borda horren arima eman etxeari.

Armendaritze, 1999.04.03

Maitasun beraz elgarri josiz nigarrak eta irriak,
nahi ginuzke adierazi herri huntako berriak;
zonbat pairamen jasaiten ditu Euskadiko gazteriak,
lantegietan ala etxetan noiz nahi hedexuriak¹,
ta beti berek iretsi behar handien ttipikeriak.

Borroka sano ta zuzenean aspalditik dabiltzala,
gure herria zerbitzatzeko eginez egin ahala:
atxilotuak, desterratuak, buruak apal apala,
ez bildur izan, agertu zuen mamia eta azala,
ai baginitu paillota batzu kortsikatarrek bezala.

Umiliatu eta zafratu gutien batez ez askiz,
gure herritik kentzen dituzte, eremaiten bide handiz;
etxekoentzat ta lagunentzat zoin den neke, zoin den bortitz,
eta lekuko burges handiak gibeletik erdi irriz,
zer zoriona zuek eginen, epaile xume bat banintz.

Eman zaitugu egun batean ikastolako bidean,
handitu zira eta zabilta zure gustuko lanean;
ez egon otoi notable edo etsai maltzurren menpean,
eta legezko jauntto horiek hurbiltzen zaizkitzunean,
beren esanak sarkitzu laster zerri askaren barnean.

Aupa neskatxak, aupa mutillak, aupa gure gazteria,
ez zazuela barnegi hartu gizonxkilen larderia;
segi aintzina gozatu arte zuen bizi egarria,
elgarrekilan suntsi dezagun etsaien zerrikeria,
eta eskutan izango dugu biharko Euskal Herria.

1999.06.26

¹ Hedexuriak: jandarmeak.

Mari Añez eta Jeannot-i

Uda hemen dugu ta ederra da berez,
usain eta kolore betea amentsez.
Loreen berextea ez bada hain errex,
gorets ditzagun Jeannot eta Mari Añez.

Maitasun bero batez uztartuak dira,
gero aberats bati jarriak begira.
Gaizkiago daudenak biga bost badira,
jinen diren haurrentzat prest dute kafira.

Mari Añez hasi zen irrati ildoan,
haren lan ederra du nornahik gogoan.
Sartua edozoinen sukalde xokoan,
ez bedi egon orai Azeri xiloan.

Bainan, Jeannot, ez gira hasiko ohointzan,
nahiz mintzatu nahi holakoen gisan.
Jakinez irratian nolatsu gabiltzan,
ez beti Mari Añez atxik laborantxan.

Hasia dugun saila ezin da burura,
bainan ez dauku hunek emaiten beldurra.
Batek mikroa eta bertzeak aitzurra,
uztartzen ahal dira mintzoa ta lurra.

Entzunik irratiak zuentzat zer dion,
elgarrekin lanean gaiten luzaz egon.
Egun josta gaitezen, guzier besta on,
Mari Añez ta Jeannot, milaka zorion!

1999-08-28. Herria astekarian agertuak.

Bi milagarrena da hasi den urtea,
batzuentzat amentsa ta buru haustea.
Azkenean guretzat galdezka hastea:
gizonen begietan nor da emaztea?

Laborari etxetan ta lantegietan
emaztea gaur arte beti zangopetan.
«Hau intzaxu, hura in» gizonen oinetan,
esklaboa ez dugu idatzi kopetan.

Gizon eta jaunttoak ez gabiltza gaizki,
zorrik ez dugu eta ez ainitz urriki.
Zuen matxismo hori dezagun aurtiki,
gizonen espantuez badaukagu aski.

Ohea barreatu egin gabe utzi,
baxerak zikindu ta andreak ikuzi;
galtsuin ala atorra ez jakin zoin jantzi,
inutilen izena duzue merezi.

Deusendako oihuka: «Nun da paper hura?».
Arnoa eskaintzean nahiago ura;
laguntzarikan gabe deus ezin burura,
ai, zonbat pollita den gizonen itxura!

Entzun zazue otoi aski badugula,
gure estimatzeko egin bi karkula.
Zuen mintzoa baita akerren eztula,
ez gira “neskatoak” izango sekula.

Etxetik joan orduko eder bezain haundi,
bertzentzat dena bihotz eta dena begi.
Emazteri begira ttitti ta ipurdi,
gezur eta espantuz ezin zaizte geldi.

Gero ta gehiago gabiltza bakarrik,
batzutan alegera, bertzetan trixterik.
Entzun behar duzue, jaunttoak, gutarik
gaur egun ez dugula gizonen beharrik.

Errepika:

Gure lanaren gostuz betez gure moltsak,
guk ere azkenean baditugu galtzak.

Arrain ttiki bat naiz

Arrain ttiki bat naiz ta zuen ganat jinik,
umexurtxa naiz bainan ez daukat hobenik.
Arrain ttiki bat naiz ta ez daukat izenik,
ixuri beltzak dauzkit denak eramaneik.

Ez naiz amuarraina, ez naiz izokina,
euskaldunen arterat nolaz naiz ba jina?
Ingurumena daukat beltza ta zikina,
nik jan behar batzuek kakatzat egina.

Ene sort-herria dut ustez itsasoa,
eskuin ta ezkerrerat luzatzen dut soa.
Hurbilduko zautanetz norbaiten besoa,
zikin ontzi egin da hain toki gozoa.

Mila mendetan gira urean egonak,
sanotasuna zaukan horrela zagonak.
Arraintzari ekilan gure zorionak,
horiek baztertu ta nun dira gizonak?

Zoinek bere herria ez du naski aske?
Bainan zikinarentzat auzoari eske.
Beti zerbait garesti, usteldura merke,
itsasoa ondatzen diruaren truke.

Herri agintariak maltzur ta abilak,
arrain eta xoriak ahul ta umilak.
Ez gaiten beti egon elkor ta ixilak,
geroari begira altxatu, mutilak!

Armendaritze, 2000.02.05

Irisarriko 2000 garren urteko bestak

Airea: *Antton eta Maria*

Ekainaren bian ta hiru, lau ta bosta,
Irisarri herrian egunero besta:
ostirale gauean zikiro bat hauta,
Kattalin Habansekín kantu eta kanta,
Los Kepistos musikan badaíke nun josta.

Ebiakotz arratsean, hamarretan zuzen,
kontzertu bat da ta gu denak goazen.
Ondotik Xitoekin badugu dantzatzen,
igande goiza zaíku lasterka etortzen,
erdi lotan dugula mezan parte hartzen.

Zintzurra bustitzean Hiruak taldea,
pilotarekin hasten da arratsaldea.
Bostetan kantaldia parerik gabea,
Ezpela famatua, Imanol noblea,
talo ta xingar jan ta dantzarat galdea.

Astelehena hasiz hilen mezarekin,
zintzur bustitze on bat da zelaitarrekin.
Orai arte bezala gauden elgarrekin,
bestaren bukatzeko bazkaria egin,
ta gero arrabesta laster ditaíke jin.

Borkatxenbordakoeri

Aire: Galerianoren kantua

Borkatxenborda izan toki pollit huntan,
lehengo batzuentzat muga zagon juntan.
Saltegi berri bat da garaztar eskutan,
goresmenak Peiori gure mihi puntan.

Toki xoragarria, iduri galdua,
iduri hemen dela bukatzen mundua.
Hemen bizitzen denak maitatzen gudua,
badu abilezia eta talendua.

Auzapezak etorri zoin bere aldetik:
Itsasu, Ezpeleta ta Elizondotik.
Besta eguna da ta jin dira gogotik,
daukaten arrakasta baitute menditik.

Euskal Herria noizbait etsaiek puskatu,
nahiz ta bihotzetan ezin zatikatu.
Segi sal erospenak, mozkinenez gozatu,
bainan gauza txarrentxat guziak oldartu.

Zainen ganean gira gaur ainitzak bizi,
eta gure moldean aintzina goatzi.
Etorri hunaraino bihar eta etzi,
arrangura guziak ditzagun ahantzi.

Goresmenak Peiori bihotz bihotzetik,
eta kausitze on bat guzien partetik.
Ahantz Hego-Iparrak, etor nun nahitik,
kontrabandixt berriak baitabiltz bidetik.

2000.10.08

Kantuari esker

Musika: Jean-Marc Halsouet

Hogoi urte huntan hunat etorria,
zer arrangura kezkarria!
Euskararik ez jakin ta lokarria
kantuak neri daut ekarria.

Zu han sortua ta ni hemen sortu,
hemen handitu,
olerkiak nau musikan poztu;
kulturak ta hizkuntzak gaitu zatitu,
luzaz baztertu,
gaur dena kantu,
kantu!

Aita musikari sortu gitarra bat hartuz
xaramelatuz,
oroitzapenak gogoan ta hura adituz
kantatzen dut hartaz orroituz.

Gazte ta ez hain gazte ta bertzer,
kultura desberdinak ez bazter,
ez bazter;
kantuan elkartzea zoin eder,
gu ere hola gabiltz kantuari esker.
Alaitu denak eskuin ta ezker,
esperantza bihotzez zabalduz euskalduner.

Euskal Kantu Txapelketa, 2000.

Ama maitea, zure begiek badute hanbat dixtira,
goizetik arrats hor dabilzkazu zure haurreri begira.
Zure ustean trixte badaude edo ez ontsa badira,
iluntasunak dener ditutzu laster itzultzen argira.

Ama maitea, zure eskuak lanean dira nekatu,
akidurari eta orener ez zirelakotz behatu.
Ezinbertzean gau ilunean lorat bazira lerratu,
ez zira zure nahirat egin, gorputzak zaitu behartu.

Ama maitea, zure bularrak gure bizien iturri,
etendu gabe zure gorputza izan da gure hazkurri.
Gau eta egun zuk zenbat nigar gureztat duzu ixuri,
seme alabak nahiz moldatu gizon batzuen iduri?

Ama maitea, zure altzoa balusez dago egina,
zorianaren ohantze hortan haurrak badu atsegina.
Zenbat denboraz hor egon giren doi bat orroitzen bagina,
erran litaike, ama, zirela biziaren erregina.

Ama maitea, zure bihotzaz zenbat ez litaike goza?
Kolpa beldurrez ezin dut aipa edo aipatzeko lotsa.
Gure etxerat etorri bada ezagun edo arrotza,
sekula santan ez du senditu ez gose ez eta hotza.

Ama maitea, zordun den haurrak guziak ezin estima,
ama ez denak ezin du jakin zoin handi den zure zama.
Nagoen haurrak zure gana noiz ote maitasun ordaina,
zure eguna laster hor baita biotzez besta on, ama.

Zure iloben partez

Agur eta ohore, Jakes Etcheçahar,
zuret zat dugu egun kantuz hasi behar.
Egun eder hunentzat egin duzu indar,
gu guzien artean zu zaitugu izar.

Bizia iragana duzu mutilgoan,
ta Izura Azmetik Bunuzerat joan.
Hortik Mendiberat ta Ahatsaxiloan,
zabiltza aspaldian Aoztei xokoan.

Ezin duke sinetsi egona ez denak
mutilgoak dituen kezka eta penak.
Nahiz ta izan diren nagusi zuzenak,
mutilak ez zituen lanik hoberenak.

Arto jorrazetik ta itei xahatzerat,
belar, iratzetarik egur egiterat.
Dailua bizkarrean hesi pikatzerat,
iduzkia sartzean hurbilduz etxerat.

Bainan urte horiek dira iraganak,
nahiz ezin ahantzi lehen egin lanak.
Xuhur aire baziren jan eta edanak,
osagarria dautzu eman Jainko Jaunak.

Ez zira nehoiz izan bizitzaren lotsa,
egun hau elgarrekin dezagula goza.
Milesker erran nahiz entzun gure boza,
ez dugu ahantziko daukazun bihotza.

Musikari batentzat

Nere herrixka pollit ta goxoan,
baserriko abereak ondoan,
bizitzaren mila aments
luzaz gorderik gogoan.
Lau sasoinen ederraz gozaturik,
lurraren baforea usaindurik,
mendiek duten berdetasunaz
begiak hanturik,
erdi xoroturik,
arras xoraturik,
pozturik,
kasik iduri zeruan sarturik,
eta halere zerbait eskaturik,
uste gabeen aspalditik
ni ganik airaturik,
bizi modu hau alda dezadan
norbaitek noizbait daut eskaturik.
Orai amentsetan,
bidexka galduetan,
urrats guzietan,
hiria begietan,
gogo bihotzetan,
zer dabil neure baitan?
Kale ederretan
denak argitan,
noa tarrapatan
zorianketan.

Domingo eta Denis

Airea: *Dama gazte xarmant bat*

Erramun Karakotxe-ren burasoentzat

Domingo eta Denis, gure goresmenak,
zuen ohoratzeko bildu gira denak.
Ahantzi arrangurak ta baztertu penak,
zuen ezteiak dira eztei ederrenak.

Menddian sartu zinen jinik Larrondotik,
hemengo alabaren maitatzea gatik.
Elgarrekin uztartuz bihotz bihotzetik,
laborantzan zinezten jokatu gogotik.

Maitasunaren lagun Jaunaren graziak,
denen beharra naski bazaukan biziak.
Bertzen laguntzen ere zaizte ikasiak,
zonbat osaba ziren etxean haziak?

Beti emankor dira maitasun ildoak,
zuek ere lagundu zaituzte Jainkoak:
bi seme, bi alaba, bihotz handikoak,
ez du ahalgetzerik Menddiko xokoak.

Haurrek ere dauzkate zoin bere dohainak,
ta lauen ikasketak zoin ziren bikainak!
Harriz eta irinez apaintzen mahainak,
bazkaltzerat jin diton bi anai artzainak.

Alabek badituzte biek familiak,
eta zoin maitagarri hoién haur ttipiak!
Bainan semeak ere maitaleak biak,
nahiz desberdin ukan beren artaldiak.

Domingo eta Denis, horra bi hitzetan
nola gabiltzan egun denak lorietan.
Menddiko sukalde ta barne guzietan,
zuen amodioa badabil denetan.

Zer bozkarioa den Menddiko atean,
xahar eta gazteak bildurik batean!
Otoitz bat has, Erramun, bihotza betean,
Jaunak begira ditzan luzaz gutartean.

Ahatsa mendian, 2001.06.04

Esmeraldaren airean

Zure sahetsean nahi banauzu,
aments bat edo bi direa haizu?
Gure oldarrari egin eta kasu,
maitatzaile on bat izanen duzu.
Zonbat nekea den hola maitatzea!
Nekeago da garbiki aitortzea.
Zer?
Zer dago gaizki horrela ibiltzea?
Ta horrek nolaz du haizu bizitzea?
O, maitea, zer suertea ikustea,
senditzea zure ezpainen betea.

Zure begi beltzek utzirik itsu,
bihotza jarri zait ilun ta pizu.
Zonbat maite zaitudan ez badakizu,
besoen artean hartu nezazu.
Aspaldi huntan nolaz ez nik zurekin
amentsetarik aments bat obra egin?
Gu
geroztik ere gosturat elgarrekin.
Gure arteko mezua zoinek jakin?
O, maitea, zer suertea ikustea
zabaltzea bihotzak duen atea.

Maitasun xurruta egin zait putzu,
ta hori gaintitzen nihauri usu,
buruan dut garra ta bihotzean su.
Maitea, eskaini otoi bi musu.
Sutan nago ta hain segur badut kea,
maitasunaren seinale ditaikea?
Bai!

Oihu hunekin egingo dut eskea,
nahiz ta izan gogorra ta nekea.
O, maitea, zer suertea ikustea
eskaintzea mundu osorat bakea.

2001.08.09

Jotea eta porrusalda

Jotea

Iparraldeak ere du Hegoari begiratzen,
desberdin bagira ere, anaiak geldi gaitezen,
iparraldeak ere du hegoari begiratzen.

Asko ibiltzen zaizkigu beldurraren gibeletik,
mugarik ez da izango nahi izanez geroztik,
asko ibiltzen zaizkigu beldurraren gibeletik.

Elgarri lotzen bagaitu odolak duen mintzoak,
gauza guti errango du tarteko muga faltsoak,
elgarri lotzen bagaitu odolak duen mintzoak.

Hegoa eta Iparra gaitezen elgarretara,
desberdin izanagatik dugu elgarren beharra,
Hegoa eta Iparra gaitezen elgarretara.

Porrusalda

Ipar eta Hegoa elgarren anaiak, (*bis*)
bestan ere gaitezen agertu alaiak,
ai, oi, ene, agertu alaiak.
Ipar eta Hegoan elgarren anaiak.

Elgarren anai gaude, ez harritzekoa, (*bis*)
nork ez du familian bat bertzaldekkoa?
Ai, oi, ene, bat bertzaldekkoa?
Elgarren anai gaude, ez harritzekoa.

Beharra etortzean gira ezagunak, (*bis*)
denak iduriz etsai ta berdin lagunak,
ai, oi, ene, ta berdin lagunak,
beharra etortzean gira ezagunak.

Borrokatu gaitezen denak elgarrekin, (*bis*)
gero hobe batentzat dezagun bat egin,
ai, oi, ene, dezagun bat egin,
gurea daukaguna gure izan dadin.

Jotea

Erromeria ere da denentzat beharrezkoa,
bihotza lasaitzen baitu eta alaitzen gogoa,
eta alaitzen gogoa, denentzat beharrezkoa.

Besta ere edertzen da bakotxak zerbait emanez,
omorea pizten baita arno xorta bat edanez,
arno xorta bat edanez, bakotxak zerbait edanez.

Gorputzak du beharrezkoa botatzea izerdia,
halaber arimak ere maite du erromeria,
maite du erromeria, botatzea izerdia.

Gero eta uzkurrago ikusten da euskalduna,
ez baitu aski gozaten bestaren alaitasuna,
bestaren alaitasuna, ikusten da euskalduna.

Porrusalda

Nehork ez ditzan bazter bestaren agurrak, (*bis*)
bihotzak zabal eta luzatu sudurrak,
ai, oi, ene, luzatu sudurrak,
atxik ditzagun luzaz gure ohidurak.

Ohartu gabe dira denak ari husten, (*bis*)
atzoko gauza onak nork ditu ikusten?

Ai, oi, ene, nork ditu ikusten?

Dirurik ez zen bainan besta maite zuten.

Omonez gabetuak baigira ibiltzen, (*bis*)
bestaren beharra da nun nahi senditzen,

ai, oi, ene, nun nahi senditzen.

Aupa erromeria, alaitu gaitezen!

Askotek telebista beren gutizia, (*bis*)
horrek nahi ala ez dakar trixtezia,

ai, oi, ene, dakar trixtezia.

Besta maite duenak maite du bizia.

Jotea

Trikitixa nahi dugu doi bat ezagutarazi,
Iparralde huntan ere leku bat baitu merezi,
Iparralde huntan ere leku bat baitu merezi,
Trikitixa nahi dugu doi bat ezagutarazi.

Orai arte egon zaigu zuhaitz azpitan gordea,
bi bakarrik dira sortu, bat Denise, bertzea Bea,
Bi bakarrik dira sortu, bat Denise, bertzea Bea,
orai arte egon zaigu zuhaitz azpitan gordea.

Berri batzu behar dira egon gaitezela erne,
bi herri ez bakarrik utz Itsasu eta Hazparne.
Bi herri ez bakarrik utz Itsasu eta Hazparne,
berri batzu behar dira egon gaitezela erne.

Norbaitek izango balu trikitixaren gogoa,
batek har beza hauskoa ta bertzeak panderoa.
Batek har beza hauskoa ta bertzeak panderoa,
norbaitek izango balu trikitixaren gogoa.

Porrusalda

Lana maite badugu nor da beldurtuko? (*bis*)
Musika hunek gaitu denak lagunduko,
ai, oi, ene, denak lagunduko.
Hunekilan euskara dugu salbatuko.

Elgarrekin goazen bide horri buruz (*bis*)
musika alai huntan goxoki dantzatzuz,
ai, oi, ene, goxoki dantzatzuz.
Hizkuntza salba daike euskara mintzatzuz.

Hizkuntza ta musika elgarren lagunak, (*bis*)
ohartu gabe ere sortzen zaizkigunak,
ai, oi, ene, sortzen zaizkigunak.
Horrek ditu oraino biltzen euskaldunak.

Jean Pierren 50 urteak!

Maiatza da urteko sasoin ederrena,
berroi ta hamabian zu sortu zindena.
Hogoi ta zazpian zen bai zuzen zuzena
Gabriel ta Paulinek eskaintzen zutena.

Jean Pierre Iciagari milaka goresmen,
Mattin, Ttotte anaiak dauzkalarik hemen.
Mari Jo ez ditaike hain urrun izanen,
Xabi ta Peiorekin baidaukate kemen.

Mendi erdi bat, Xan Pierre, hola betetzean,
eta zure biziaz doi bat orroitzean,
gure adixkidantza argiz tindatzean,
gauza asko sortzen da gure bihotzean.

Hamasei urtez naski herriko zaintzale,
eta bestetan ere diruen biltzaile,
futboleant atezain, bertzeak galtzaile,
ta *Ezpela* taldean zango altxatzaile.

Jakin dugu musean onena zirela,
nahiz eta batzuek dioten bertzela.
Gezurria bazira gezurria epela,
irabazteko beraz segitu horrela,

Zerri hiltze batean guarderi begira,
egun lazgarri batzu bizian badira.
Dei egin laguneri, begira herrira,
aldaketak baitira zerritik zerrira.

Goresten zaituztegu Mari Jo ta biak,
luzaz dixtira beza egungo argiak.
Zabaldu bihotzak ta ideki begiak,
bide egin dezaten urak ta egiak.

Segi *Ote Loretan* herriko ildoan,
abertzaletasuna atxikiz gogoan.
Ez gibelerat beha ta aintzina joan,
euskaldun irauteko euskara ahoan.

Armendaritze, 2002.05.14

Lagun galduari

Frantses kantu baten airean

Adixkide mina lagun goxoa zen,
bainan zendua da, nigarrez naiz hurtzen.

Bera urrundurik ni ari naiz hiltzen,
biek baiginuen bakar bat osatzen.

Laguna nuen, lagun bakarra,
aspaldikoa eta herritarra.

Bere aurpegia gazte bezain airos,
adin berekoak, bizi ginen uros.

Horrela, laguna, ikus nezakea
zure irri zabal, parerik gabea?

Laguna nuen, lagun bakarra,
bizi az, hiltzeaz, sendi dut daldara.

Haize hegoaren fereka goxoak
xukatu ditzala gu bien malkoak.

Oihu bat entzun dut mixteriozkoa,
zionak esperantza dela betikoa.

Hasi baiginuen geroaz ildoan,
berriz sortu bedi gure elkargoa.

Zu, lagun xaharra, zu, adixkidea,
nun zauden egin dut gauari galdea.

Aditua zaitut zero gorenean
neri kantuz ari ixiltasunean.

2002.05.30

Bertsuzalea zauku hasia galdean,
zerbaiti ohartua baita azkenean.
Pena ere badauka bihotz barrenean,
xori bat ixildurik Bizkaia aldean.

Euskal Herrian daude xoriak nun nahi,
bainan nork kantatzen du horrek bezain garbi?
Gauaren ilunari emaiten du argi,
handi ginuke poza berriz has baladi.

Herria maitatuaz egon zen kaiolan,
han ere egin zuen abesti eta lan.
Bihotz handikoa da, asko nahi eman.
Norat airatu zira? Zatoz gurekilan.

Kantatu izan duzu zuhaitz gorenetan,
Gernikako arbolak dauzkan aldaxketan.
Askatasun amentsa beti hegaletan,
zendako mutu zaude gu utziz penetan?

Ez zuretzat atxiki hoinbertze maitasun,
esperantzaren berri nahi dugu entzun.
Bazinduen omore, irri ta osasun,
kanta zaguzu egun zer gertatzen zaitzun.

Euskadi maiteari hoinbertze emanak,
zinta ta liburutan ederki etzanak.
Aurreratu ditezen berriz zure lanak,
daukazun bihotzari xertatu ezpainak.

Ixilik dagoena zail da ulertzea,
xori handiak kalte ahul den haizea.
Ez daukagu berririk, zer ezinbertzea!
Laburra izan bedi zure ixiltzea.

Ni bezala ainitzak galde eta galde,
maite dugun xoriaz trixtatuak gaude.
Gure kezka samina hartu zure alde,
zer daike xapelketa Amuriza gabe?

Margitta zenari

Ama gazte baten ehorzketako mezan

Trixterik dago Larramendia, trixterik da Garatea,
Margittak baitu berriki hartu bertze munduko atea.
Ezin onhartu, ezin jasana zu hoin gaxterik joaitea,
barkatu, Jauna, ona zirela zaila zaiku sinestea.

Hola bukatzen duzu, Margitta, borroka dorpe luzea,
hola bukatzen gorputzaren ta bihotzaren sofritzea.
Gu guzientzat nekea bada zu horrela agurtzea,
ezinezkoa gelditzen duzu ama baten ordaintzea.

Atxikimenduz bildu gitutzu zauriak direla bero,
ta Margittaren urruntze hori denek sendituko gero.
Bainan biziak segitu dezan zuk ere duzu espero,
ziren tokitik lagundu, otoi, Potzo, Xarlot ta Latxaro.

Sueskunen, 2002.11.30

Errepika

Tira, segi, kanta Beskoiztarrekin
ta goazen aintzina;
altxa, goza, josta ta Elgarrekin,
bertzentzat da ezina.

Gure arbasoek eskainia
kultura ta ohidura;
heiek utziaz gaiten balia,
bertzek dezaten burura.
Horra bi hitzez gure nahia,
ez bedi izan gezurra,
bihotza alai, idek begia,
zerbitzatuz gure lurra.

Elgarrekilan, xahar ta gazte,
segi dezagun hasia,
adixkidantzan ta urtez urte,
loretu baita hazia.
Ta zuek, gaztetxoak, zatozte,
badago zer ikasia,
aberasgarri baita nik uste
gure taldeko bizia.

Herri kirolek zer arrakasta!
Gure taldeak bederen
kanpokoeri eskainiz jasta,
guretik dugu emanen.
Ongi izertu ta gero kanta
besta dugula eginen;
euskal semea sana da ta
nun nahitik da entzunen.

2002.12.25

Airea: zortziko handi bat

Maite izan duk bizia eta maitatu dituk lagunak,
errexki dituk hiri hurbildu arrotz eta ezagunak.
Gazte gazterik, bainan zendako?, deitua hau Jainko Jaunak
kolore xuriz tinda ditzazkan hemengo berri ilunak.

Hanbat urtetan ta herriz herri ibilia haiz tindatzen,
etxe xaharrak edo histuak hintuelarik gaztetzen.
Bainan jendetan zagon historaz baihintzan ere ohartzten,
mila bestetan ibilia haiz trixte zaudenen alaitzen.

Egun guzian lanean eta bertzen alaitzen gauean,
nola hoinbertze egin izan duk beti omore onean?
Eskuin ta ezker hala beharrez kurutzatzen ginenean,
jeloskeria sortzen zitzaitan nihauren osasunean.

Xankilo hemen ta Xankilo han uda guzian harturik,
zonbat karkaila ta irri zafla ba ote dituk sorturik?
Ainitz alditan egunak luza eta gauak laburturik,
omorearen eraile onak ezin dik izan ordurik.

Gazte gazterik bururatu duk gutarteko itzulia,
bainan hik utzi orroitzapena ez duk segur itzulia.
Tindu berdeaz tinda zak laster esperantzaren lilia,
hire beharra baitu oraino, lagundu zak familia.

Tindu ta moto, musika, kantu, ez hintzan burutik xilo,
tristeziari desegin dituk horrenbeste korapilo.
Gau osoa duk hiretzat eta pausa hadi ta egin lo,
guri utziez milesker eta ikusi arte, Xankilo.

2003.01.01

Sendatzea ez beti sendagailuetan,
bertze zerbitzu ainitz esku xintxoetan:
janari, edari ta berdin garbiketan,
beharrezko direnak egun guzietan.

Mediku berezitu bihotzez milesker,
bizia agertzen zaut berriz ere eder;
laudatuko zaituztet eskuin eta ezker,
erriak ez ditezen *Sokorritik* bazter.

Zu, andere xarmanta, eskerrak miletan,
goxoki egona naiz zuen eskuetan;
segi hola sanoki zoin zuen lanetan,
ene musuak lagun hala beharretan.

2003.05.17, goizeko sei orenetan
Milesker eta musuak (emaztekier bakarrik)

Euskal Herria berriz zuzen zuzenean,
Sohatia kaxkoan mendien artean;
milaka gazte bestan, ehunka lanean,
kostaldekoak sartuz barneko aldean.

Nun nahitik etortzen elgar kurutzatuz,
kultura ta hizkuntza soinuari lotuz;
daukagun nortasuna bertzeri zabalduz,
bizi nahi dugula dezagun erakuts.

Arlantto familiak baimena emanik,
toki xoragarri bat hasteko izanik,
herriko etxeok hurbil gure ganik,
xoro desafio bat izan zen lehenik.

Duela zazpi urte lehena bikaina,
ondokoan euriak hartu zuen gaina;
geroztik ttipiegi aurkitzen mahaina,
kulturaren hazia barna da eraina.

Trakturren itzuliak kendu zauzkiguten,
romantismorik ez da geiago ikusten;
bainan laborariak behingotzat konten,
deitzaldi musikalek esnea emaiten.

Jakin dugunaz, ez da ardirik ilortzen,
Sohatian erainak nun dira ba sortzen?
Guk nigarra begian Arrosa agurtzen,
bainan oroz gainetik bihotzez eskertzen.

Zizel lan batek hemen zerbait errango du,
belaunaldi bat doa, bertze bat da heldu;
Euskal Herri zuzena dezagun zabaldu,
izerdiz eraikia ezin dute kendu.

Milesker Arlanttori, milesker, Arroza,
lotu orai, gazteak, bazterturik lotsa;
erakutsi arima, ideki bihotza,
euskaldun nortasunaz denak gaiten goza.

Armendaritze, 2003.07.06

Deserturra edo intsumitua

**Le *deserteur* frantses kantua gogoan hartuz
seme batentzat egina**

Frantzia handiko jaun lendakaria,
gutun xume hau dut atzo igorria.
Irakurtu eta ohartuko zira
zure aholkuak atzokoak dira.
Ene herriñoa nahiz zerbitzatu,
bakezko ildoan betikotz naiz sartu.

Ezin naiz bihurtu anai hiltzailea,
amak egina nau bizi emailea.
Intsumitzaile naiz ta intsumitua,
ezin baitut jasan ustelen tratua.
Bolborezkoa da zure balorea,
ni euskalduna naiz xume ta pobrea.

Igorri jandarmak, igor militarrek,
guk dauzkagun armak: kantu ta nigarrak.
Bizi nahi dugu libreki Euskadin,
aberri zahar hau luzaz bizi dadin.
Badugu bihotza, badugu gogoa
eskutan hartzeko guharen geroa.

Gure agintari ospetsu suharrak,
soldat baten bila zaudezte bakarrak.
Ez dugu dolarrik, ez dugu petrolik.
bainan barrabillak, barrabillak soilik.
Nahiz ta kartzelak euskaldunez bete,
segituko dugu irabazi arte.

2003.10.09

Kanpotik etorritako batzuek elkartzeko berri bat sortu dute Eiheralarre herrian, eta neure laguntza eskatu dautatet. Hasiera bat eman nahian, olerki edo bertsu sariketa bat antolatu dute erdaraz eta euskaraz hiru mailetan; umeak, gazteak eta helduak. Gaia eman dute: sua. Mor-doxka batek parte hartu du; bainan zoritxarrez erdaraz, eta helduetan bakarria izan naiz euskaraz zerbaiten egiteko. Sari bat eman didate.

Nola ahantz sua gai minberatsu bat dela Garazi aldean? Ezterenzubi herrian suak bertz hil egin baitzituen duela gutxi. Guziak gogoan hartuz, lan xume hau egin dut, esaldi bakotxean sua aipatuz. Neure semeeri ere nahiko gustukoa iduritu zaiote.

Airea: *Kantuz sortu naiz eta, Antton eta Maria* edo edozoin hamarreko ttipi.

Sua gai zabala da, sua berotzaile,
sua lagun goxo bat, sua erretzaile.
Sua ene ustean da ongi egile,
sua hirian nausi dago kalez kale,
suaren adixkide lagun mendizale.

Sua gizonen lagun menderen mendetan,
suaren beharra da etxe guzietan.
Sua bizirik atxik gure sukaldetan,
suak suntsitzen badu hainbat tokietan,
sua goxatzaile da gorputz bihotzetan.

Suak alaitzen baitu gure supazterra,
suak paregabea argia ta garra.
Suak bere grazia ta bere indarra,
suak artzain askori emaiten oldarra,
sua haizerik gabe ez baita hain txarra.

Suak bere tokia gure mendietan,
suaren beharra da bortuko bazketan.
Suari esker gabiltz kasko garbietan,
suak ez beza nehor ezar oinazetan,
suak hil bailezake usterik gabetan.

Sua ez baitzerauku herrian mugatzen,
sua mundu guzian eta nau beldurtzen.
Sua beti bizirik ta nekez itzaltzen,
sua gau eta egun ari emendatzen,
suak du gizarte hau hasia suntsitzen.

Suak egin kaltea nork ez du entzuna?
Suaren sarraskia guziz ezaguna.
Suak agindu lio gau eta eguna,
suaren galdeari hau dut erantzuna:
suari zor zaiola hain goxo zaukuna.

Suaren zoritxarra suaz da ordaintzen,
suaren izenean zonbat jende hiltzen!
Suaz orroitu eta kontura gaitezen
suaren inguruan girela elkartzen,
suak lagunt gaitzala elgarren maitatzen.

Sua, berotu otoi gure deskantsuak,
suak hurbildu ditzan jende baketsuak.
Suak gidatu bitza lauso ta itsuak,
suak goxatuz beti bihotzeko suak,
suzkoak izan bitez maitalen musuak

Armendaritze, 2003.11.20

Pierre Etchegaray erreteror ohiari

Heguy jauna zen gazterik joan, Huntzarren jauna ere bai,
zu ere orai kasik gaztea bazoaz, jaun Etchegaray;
hoinbertze urtez hemen egona omoretsu bezain alai,
egin ditutzun lan guzietaz milesker dautzut erran nai.

Apezek ere beren itzalak beren nortasunen jabe,
ahal dutena egiten dute artalde handien alde;
elgarrekilan otoitzarekin Jainkoari egin galde:
hain emankorra zen lurralde hau ez utzi apezik gabe.

Armendaritze, 20 04.02.11

Airea: zortziko ttiki bat

Bi mila laua eta otsailak ondarra,
elurra zauku barda jautsi marra marra;
xuritu du Baigura, xuritu du Jara,
eta ni aldiz etxen gelditu beharra.

Argi indarrrik ez da, hauxe da trixtura,
deus ezin dut hasi ta deus ezin burura;
ezin aurkitu ere irrati on hura,
egun guzirako zaut sartua beldurra.

Kanpoari eskainiz behako bat baizik,
bake paregabe bat senditzen dut kasik;
bainan laborariak bihotza du hutsik,
ardiak direlakotz gaur gaizki deitzirik.

Tresnek ez kurritzen ta ardiak marrakan,
usaian zaukatena ez baitute ukan;
elurra gutarterat jausten baita bakan,
ez gaitzala nigarrak atxiki estekan.

Bakotxak bere kezkek ditu jasaiteko,
bakotxak guti aski nigar egiteko;
elur zafla bat on da denen hurbiltzeko,
elur zafla bat aski elgar laguntzeko.

Nik ez dut maite bainan elurrari musu,
kolore garbi beraz apaintzen gaituzu;
gure gora beheren berdintzen dakizu,
milesker berriz ere, jauts zaitela usu.

2004.02.28

Bakantzetan nabila batetik bertzera,
Argitxu, Mayi eta Joanaekin batera.
Ibili banaiz ere beti alegera,
gogotik itzultzen naiz sort-herri maitera.

Arras gustagarri zait kurri ibiltzea,
lagun hoberenekin ongi jostatzea,
kausitzen balin badut denbora luzea,
atsegingarria zait etxerat sartzea.

Mila zorion goxo dauzka itsasoak,
lagun onen etxean nasaiki jokoak.
Bainan beti hobeak etxen egin loak,
ta telebixtari so iretsi taloak.

Ttuko, Ttitto ta Paxtor, hiruak neureak,
gatu, bildotx ta xakur, agur, abereak.
Merezi ditutzue ene ohoreak,
neure maiteak zaizte ta neure loreak.

Hoinbertze gauza pollit eskuin eta ezker,
denetaz gozatzeak emaiten du plazer.
Ez gaitezen halere urrunegi bazter,
etxeko hura baita sano eta eder.

Errepika:

Gatu, xakur ta behi, ardi eta bildotxak,
aments bide goxoak dauzka laborantzak.

Zoritxarra ezin da errexki estali,
gure bizitzak dauzka hainbertze itzuli.
Berrikitan zaiote amatxi itzali,
bainan haren otoitzak gaur denentzat bali.

Philippe eta Eliane, gure goresmenak,
zuek lagundu nahiz bildu gira denak.
Zuentzat kantuak ta lore ederrenak,
bakan gozatzen ditu sukaldean denak.

Elgarrekin lanean geroa hor baita,
ez da errexka bainan badea zer hauta.
Baratze berriari emazue arta,
laster bilakatzeko ama eta aita.

Mila zorion eta segitu ildoan,
burrasoak daudela zintzoki ondoan.
Argi berri bat egun piztu da Ainhoan,
zuen urostatasuna dadin urrun joan.

Gabriel eta Pauline

Gabriel ta Paulini gure goresmenak,
urrezko esposentzat uros gira denak.
Beren bizi guzian bertzeri emanak,
osasunean ditu begiratu lanak.

Etxalarretik zinen, Gabriel, etorri,
bisita bat eginez zure anaieri.
Senperen mutilgoan laster zinen jarri,
geroxago lotzeko Landes oihanari.

Andrea ezagutu Senpere herrian,
elgarren maitasuna baitzen agerian.
Gazte eta lorios ta osagarrian,
biziari zinezten lotu buztarrian.

Ezpeletarat jinik tanerian sartu
Pauline aldiz lanean ostatuz ostatu.
Biek saila larruan duzue bukatu,
eta hiru mutiko ederki altxatu.

Paregabeak ere baratze egiten,
ta gero laguneri mozkinak emaiten.
Bertzen zerbitzurako sortuak zinezten,
duzuen bihotz ona ez dugu ahanzten.

Lehenik haurrak eta gero haur ttipiak,
gastatu dituzue betitik guziak.
Zuen lanen fruituak bertzeri utziak,
zorionak hartze tu holako biziak.

Gu uros zuek hola uros ikustean,
goxa gaitzen egun guziak batean.
Otoitz eginen dugu bihotza betean,
Jaunak begira zaitzan luzaz gutartean.

Eskerrak, Zeruko Ama

Zeruko Ama Birjina,
andere ixil ta fina,
egun zu ganat gira hurbiltzen
eta agur bat eskaintzen.
Beti ixiltasunean
eta umiltasunean,
agertzen zira denen miraila
Ama xume bat bezala.
Ama guziz ezta,
xuri xuriz beztia,
Krixto duzu mundurat eman
zuk Judeako xokoan,
eta lagundu bizi guzian
aholkuen grazian.
Emazte guziz garbia,
mundu huntako argia,
igorri zure Semea,
zuzenaren Erregea.
Agertuz gure fedea,
aurki dezagun bidea;
andere handi eta noblea,
bihotz umilen jabea,
izan nahi dut hobe,
zu guzien aterbea.
Dezagun guziek elgarrekin
aintzin alderat so egin;
gure haurño begiekin
gure itzal guziekin,
bai, botz bakar batek derama,
eskerrak, Zeruko Ama!

Aspaldikoak

Aspaldiko gizona zira, Jules Cesar,
erromanoen buru, badaukazu indar.
Zure amentsak, otoi, hunarat ez ekar,
zu baino finagoko norbait dugu behar.

Zure armadak ditu ainitz inharrosi,
duzun urgulua zen denetan nagusi.
Halere ez ditutzu guziak iretsi:
erromanoak hil dira, eskualdunak bizi.

Charlemagne, zure fama handia askok daukute aipatzen,
iduri eta zuk egin lanak diren justu eta zuzen.
Ezin bizian dagotzin jender eskola duzu eskaintzen,
zuzentasuna ez da bilatzen erakutsiz gizon hiltzen.

Europa dena bat ezartzeko asmoa zen zure baitan:
zu guziaren buruzagia, denak zure zango petan.
Eskual Herria nahi zinuen sarturik zure lurretan,
bainan guk ere indar ginuen makil eta harrietan.

Zonbat espantu eta urgulu, Napoleon, zure bozak,
ustel usain bat aspaldi huntan derauka zure bihotzak.
Bihar dugula Waterloo eta zure aments trixte hotzak,
ez dira hola hiltzen betroinak, eskualdunak eta kortsak.

Mundu guzia zure azpiko, hori da zure xedea;
Kortsako seme baten buruan norik ezarri du gordea?
Denak utzirik hartu beharko duzu itsaso aldean,
Santa Helenan zuretzat daike gizontzearen bidea.

Betidanikan gizon langile, urtxoa bezain umila,
edozonekin imur honean ostaler handi abila.
Hiru hogoi bat urte horrela iragan ixil ixila,
osagarrian segi oraino, gure goresmenak, Pilla!

Errepublika

Errepublikak, jakin dugunez, frantsesa dauka hizkuntza,
horregatikan ez duzu nahi bertzek dezaten hau kutsa.
“Dena on” duzu izena bainan burua daukazu hutsa,
zure legeak iduri luke zakur galduaren putza,
laster Europak eman dezala gutxitueri laguntza,
zeurea zeure atxik bainan guk euskara dezagun bultza.

François Mitterrand

Utzi dautzugu lan egiteko hamar urteren epea,
uste izanik ezkerreko bat izango zela hobea.
Zuk ere duzu ongi ikasi zapalkuntzaren legea,
“etxean otso, kanpoan uso”, faltsukerian trebea,
euskaldunentzat agertzen zira gezurtien erregea.

Adixkideak

Duela urte bat eritegian egon nintzan hamabortz egunez, eta eza-
gun batzuek bertsu bat eskatu zautaten.

Ettxerat buruz banoa eta zoriona ezin gorde,
nahiz ta behar ziren guziak zuek egin ene alde.
Guziekilan bilakatu naiz lagun eta adixkide,
milesker eta hau errango dut gezurtia izan gabe:
jin behar bada berriz jinen naiz, baiñan ez jitea hobe.

Haritschelhar-i

Horma berritan sartu berria baitzauku Euskaltzaindia,
agurtzen dugu bihotz barnetik Haritschelhar jaun handia.
Denek dakigu aspaldi huntan zenbat den gizon argia,
etorkizuna izan dezagun sana eta garbia,
maltzurkerizko berexgotarik atera Euskal Herria.

Pillak hiruetan hogeit urte

Hiruetan hogeit urte ospatzen dituen ostaler famatu bati, opari bate-
kin eskaini bert sua:

Betidanikan gizon langile, urtxoa bezain umila.
edozonekin omor onean ostaler handi abila:
Hiru hogoi bat urte horrela iragan ixil ixila,
osagarrian segi oraino, gure goresmenak, Pilla.

Koxe Mari Aranalde zenari

Handian Aranalde, ttikiz Koxe Mari,
eskerren bihurtzerat banator kantari.
Horrenbertze laguntza diguzu ekarri,
aments pollitak ere eskainiz elgarri,
zure aholkuez naiz oraino egarri.

Bi mundu zaudelarik hego ta iparra,
muga gabekoa zen zure irrifarra.
Guzien aztertzeke zinaukan indarra,
ni ume mukizu bat ikasi beharra,
neure zeru ilunak zintuen izarra.

Elizan ta herrian apez ta gizona,
guzien zerbitzari xintxoki egona.
Langilea itxuraz lasaiki zagona,
euskarari eskainiz zure bihotz ona,
mila gazteri duzu eman zoriona.

Zure predikuetan ezti bezain umil,
entzulegoa aldiz serio ta ixil.
Tartetik bi esaldi xorrotx eta bipil,
hemen hasi da bainan nun ditaike ibil?
Beti egoiten zinen bizitzari hurbil.

Xalbadarren miresle, berdintsu bihotza,
egien erraiteko sekulan ez lotsa.
Holako bikote bat nola berriz osa?
Betikotzat daukagu zuek utzi poza,
zerutiarrek ere dezatela goza.

Baliosenak beti badoatzi goizik,
eta begiratzeko ezin egin deusik.
Ez ditugu merezi, iduri du kasik;
zer egin dezakegu eskertzea baizik?
Maitaletan ez eskas euskaldun bihotzik.

Agur bat, Joxe Mari, zu adixkidea,
lagunekin gozatu gaur goiko aldea.
Dohain ta umorea ez atxik gordea,
sail berria dukezu agian hobea,
bertsutan zabal guri zeruko bidea.

Armendaritze, 2005.10.16

Herria, 2006.02.09

Hatsa urruntzean

Airea: Antton eta Maria

Urte bat iraganik ixildua dela,
nork asmatuko zuen Alkat zitaikela?
Nahiz ta berak ere amenstu bertzela,
hala beharrak baitu mututzen horrela,
sinesten ez dutenek barka dezatela.

Herria-n hasi nintzen *Herria*-n segitzen,
bide sana dela baitzait iduritzen.
Lehengo urratsetan gaur ere ibiltzen,
euskaldun nortasuna hor ere aurkitzen,
lagunduz euskaldunak elgarri hurbiltzen.

Beti elgarren jelos eskas ta sobera,
belaunaldi guziek dute auzi bera.
Xahartzerat doana utziz bazterrera,
biharrari begira zer diot atera,
nahiz ta denak deitu elgar maitatzera.

Bertsularitzan ere badator geroa,
nahiz eta zalantzan batzuen gogoa.
Neure ikus moldea aitortzerat noa:
izan usoa edo izan arranoa,
herri baten osagai Ipar ta Hegoa.

Halarikan bi nigar beharko ixuri,
zendako kukurruku, espantu, furfuri?
Bertzena bertzeri utz ta gurea guri,
gaizkontzerat ez utzi horrenbertze zauri,
anaiak izanki ta etsaiak iduri.

Aholku xume hauiek datoz bihotzetik,
ahal askorik ez dut lantzeko barnetik.
Herri bera maitatzen jarraiki gogotik,
elgarri uztartuak egon gaiten xutik,
bereixten gaituenak ez daki zergatik.

Bertsularitzan nola arlo guzietan,
izerdia ixurtzen dugu debaldetan.
Zer gelditzen buruan ta zer bihotzetan?
Ez gaitela higatu etsaien obretan,
bainan elgar lagundu elgarren onetan.

Agur adiskideak, agur bertsulari,
bukatzea eman dut plazako lanari.
Eskerrik beroenak zuer bakotxari,
leial geldituko naiz Euskal Herriari,
eta idatz lanetan denen zerbitzari.

2006.02.13

Herria, 2006.05.04

Adixkide bati

Airea: Antton eta Maria

Mendekoste eguna, haizea zoin ezti,
gorrailez eta berdez kanpoa da behti.
Ortzaizeko kermezan ezin izan beti,
etxean naiz gustura ta doi bat kezkatu,
bertsu hauien moldatzen anai erdi bati.

Hogoi eta hamabortz urtez elgarrekin,
Euskal Herrian barna zenbat joan eta jin!
Gure gisako lana ongi nahiz egin,
bertsu, kantu ta xixte bertako jendekin,
gozarazi ditugu omorearekin.

Herriko bestak edo zikiro jatea,
ohartu gabean zen joanki astea.
«Norat bazoaz bihar?» galdez emaztea,
gonbitari zor baita baia emaita,
zoin maiz gertatu zaigun etxea uztea!

Etxea uzten eta uzten etxeoak,
amaren gain zaudela ardura haurtxoak.
Gu bestan ta kantari zer oren goxoak!
Senarren arranguran emazte gaixoak,
zenbat aldiz diote ihes egin loak!

Hainbertze urtez hola elgar kurutzatuz,
lagun minak ginenak anai bilakatuz.
Batzen “piko” txarrak bertsutan baztertuz,
gazteak hor daude ta dugun tokia utz,
bihotzez bihotzerat guk jarraikiz kantuz.

Gure entzulegoa dezagun eskertu,
bere leialtasunak ainitz hartze baitu.
Herria omorean nahiz zerbitzatu,
norbait, nonbait ta noizbait badugu kolpatu,
ez zen nahitarat ta gaitzala barkatu.

Milesker guzieri bihotz bihotzetik,
ez naiz lehen bezala urruntzen etxetik.
Hartu dituztan kolpe txar batzuen gatik,
osasun arazoak jin zauzkit gainetik,
bainan ez naiz gelditzen zuen maitatzetik.

Kantari ibilia bertze askorekin,
laguna izana naiz ni edozoinekin.
Jendeak egun batez uztartze bat egin,
ta hola berexteak egiten deraut min,
gauden beti anaiak; ikus arte, Txomin!

2006.0604

Herria, 2006.07.13

Huna hemen Arizona estadutik Xarlex Uhalde Barne-
txe-koak bidali bertsu hunkigarriak, uztailaren 9an Ihol-
din egin zaukuten omenaldiaz guzien eskertzeko. Uste
dut azpimarratzekoa den bere hitzegiteko molde umore-
tsua eta xinplea. Milesker, Xarlex, eta laster arrapostua
izanen duzu bertsutan bistan dena. Anartean onharzkitzu
iholdiar guzien goraintzi beroenak. *E. Alkat.*

Agur eta ohore, Ernest eta Maite,
ahantziak zaiztela zinutena uste?
Kantaldi on batean harturikan parte,
bi lagun maitatuak ezarri gaituzte,
hori gogoan nago, segur izan zaizte.

Herria bat eginik Iholdin elizan,
gu ohoratu nahiz han dira arizan.
Kantu eta musika gero plazan dantzan,
ez diot erran zonbat hunkitua nintzan,
ene bizian ez da holakorik izan.

Iragan uztailean igandearekin,
gazte, haur eta xahar oro elgarrekin,
kantaldi pollit hura guretako egin,
soinu eta boz eder herrietarik jin,
jendea xoratua egon da Iholdin.

Gure kantuak duzte guziek goetsi,
plazer minekin ditut nigarrak iretsi,
Berek dute gehiago ohore merexi,
heien talendu onak han dire ikusi,
herriko batasuna dute erakutsi.

Jende ainitz bilduak, ainitz ezin etor,
ez dezakegu aski ikustate igor.
Hori gogoan, Ernest, zuri buruz nator,
milesker bat dugula han bakotxari zor,
ahantzi gabe nehor ez eta're nehor.

Eliza saindu hortan zer arratsaldea!
Aingeruen pare zen kantari jendea.
Han ginuen hartua haurrean fedea,
hura lagun segituz nork bere bidea,
nihoiz ahantzi gabe sort-herri alde.

Guti ezagutua naizela jakinik,
familia dut beti ezartzen lehenik.
Ez badut ere ainitz arrabost eginik,
herabea naiz baina ez da euskaldunik
haurride bat bezala maite ez dudarik.

Ibili ginen ere gu Armendaritzen,
gomita bat ukanik, zuekin afaltzen.
Nahiz jan edan onez deusen faltik etzen,
zuen bihotz haundia plat hoberena zen,
milesker bat dautzuet urrundik igortzen.

Emazteak du beti sustatzen gizona,
Maite maitia lagunt horren jite ona.
Kantu egitea ez dezan abandona,
bizia dorpe bada atxit zoriona,
egon dadin gainean gure *championa*.

Oroitzen naiz aspaldi kantuz hasi nintzen,
ari zela euskara gu tartean galtzen.
Orai atsegina dut tronpatu bainintzen,
ikastola onekin eta solas etxen,
uste dut ari dela haurrekin gaztetzen.

Ni moda zaharreko, Ernest moda berri,
gure kantuak dira juntatu elgarri.
Gazte zonbait balire gu segitzen jarri,
sendimenduak nahiz bertsutan ezarri,
aire xahar maiteak diton arraberri.

Euskal iturriak du talendua frango,
Trounday-en arabera “lehen, orai, gero”.
Ene koblari lagun baitzen lehenago,
hura ere bihotzez Iholdiar dago,
ohore da guretzat izaitia hango.

Xarlex Uhalde
Herria, 2006.10.26.

Xarlex Uhalde, Goiz Alba bere andrea eta Iholdiar guzieri

Airea: *Antton eta Maria*

Huna hemen Xarlex Uhalderen bertsueri arrapostua.

Berriz ere milesker Xarlex, milesker antolatzaileak, kantariak, musikariak, bertsulariak eta entzun ikusle guziak, Kanaldudeko kideak ahantzi gabe. E. A.

Ohorezko agur bat Goiz Alba ta Xarlex,
zuekin bat gaudela dezazuen sinets.
Elgarretaturik uztail eder batez,
mehar eta pizu bat uztartu suertez,
kantuz hasterat noa maitaleen maitez.

Bihotzetik harturik herriko gonbita,
nork ez du preziatu zuk egin bisita?
Azkenean ohartu zindela *artixta*,
omore onez bota lehen zonbait xixta,
nik berdintsu egin dut ez zaitela trixta.

Iholdiko elizan elgarretaratzen
xahar eta gazteak dituzu aipatzen:
guziek bihotzetik zutela kantatzen,
ta biek bihotz beraz guziak eskertzen.
Gazte izan ez denak ez daki xahartzen.

Zorion handia zen denak entzun eta
iduri zuelarik elizako besta.
Antolatzailek ere izan dute kesta,
kantuak mila zauri dezazke ezezta,
geroztik biak gaude Iholdin *profeta*.

Laborari semeak izanak sortzetik,
nahiz bizitzak biak urrundu etxetik,
nork gaitu aldatuko xume izaitetik?
Gure ondokoeri erraitea gatik
zerbait sortu daikela kantu ereitetik.

Fedea aipatzen ta berdin familia,
ukan maitasun hura ez da itzalia.
Geroztik hanbat urrun zira ibilia,
sort-herrirat eginez usu itzulia;
zure erakaspenez gaitezen balia.

Gure hizkuntzaz zaude erdi nigarrean,
iduri ez gaudela elgarren parean.
Geroari begira bakotxa berean,
ez nahiz leher egin gabiltz oldarrean,
hazi berri ereiten zuk landu lurrean.

Andreri erakusten duzu maitasuna,
gazte denboran berdin eskastu zaitzuna.
Ama baten galtzea, gerlaren iluna,
gero Amerikaren desterru urruna,
biba zu atxikirik zure nortasuna!

Ezin senditu, Xarlex, zoin uros naizenik
ikastola hitz hori hartuz zure ganik.
Euskara maite dugu, maite zuk eta nik,
beraren alde bertsu ta kantu eginik,
ez zinezake asma zer dutan jasanik.

Piarres Trounday dela bieri juntatzen,
guziak ditugula berriro eskertzen,
segi dezagun denek elgarren maitatzen,
gure gora beherak goraki kantatzen,
Iholdin iholdiar senditu gaitezen.

Armendaritze, 2006.10.15

Herria, 2006.11.23

Ezterezubin, urrezko ezteiak

Bai, zinez, besta goxo eta alaia egin du berriki Aperetxeko Ihidoy familiak, Jean eta Monika aitatxi-amatxien ezkontzaren 50garren urteburukari, dena herrian berean kristau eta euskal giro sanoenean, kantu hau eta beste ainitzekin, apez osaba Xebaxtien eta familia eder eta zabal baten inguruan, zahar ta gazte. Goresmenak!

Aperetxeko jaun andere hok, ez ginuelarik uste,
berrogoi eta hamar urteak sailean bete dituzte.
Hoinbertze baia? Ala paperak tronpatu ote ditazke?
Duda zitaken ikusiz biak pixkor eta doi bat gazte.

Egia erran aitzinekotan hari onekoak ziren.
ondo txarretik ezta sekulan segida onik jalgiren.
Beha dagonak denen gainerat huna zer duen miresten:
hauek lekuko, maitasunak du mende erdia pasatzen.

Monika eta Jean berak ere eztira izan alferrak,
ardiz ta behiz bere dituzte bortu, pentze ta bazterrak.
Jastatuz ere haurren irria bai-eta noizbait nigarrak,
aldiz etxeko beroa beti hor du lehengoan garrak.

Gu berriz egun atseginean ezkontza horren kantari,
meza saildua lehenik eta orai eginez bazkari.
Milaka esker zorion osoz zor giniola Jaunari,
bi maitale hauk berak lehenik maitatu zituenari.

Hortxe da ere urre esposek komitatu gazteria,
sasoin betean, lore lilitan, zerbait da hoién loria.
Soa iguzki, axola guti, ametsen begi argia,
errozue te zuena ere zela hori iduria.

Aspaldi beha egon ondoren huna gaur sari bat jina,
guk ere goza baiginezaken zuen bien atsegina.
Agian Jaunak emanen dauku besterik ere aitzina,
diamantezko ezteiak arte prest gauden berdin berdina.

Herria, 2007.05.31

Ahetze. Panpili eta Marie Claire-ri

Airea: Zortziko ttipi bat (Galerianoarena)

Mulienea dago etxe bat polita,
egin izan diegu denboran bisita.
Loreberriztatu da, ez gaitezen trixta,
maitasun hazi ona beti sortzen baita.

Goresmenak Panpili, goresmen Marie Claire,
berri on hau jakinik *Herria*-ri esker.
Ezin ginen gaur arte goaitatzeaz asper,
uros zaudezte eta gu ere halaber.

Duela urtetxo bat lore bat besotan
zinabilan Urepel mendi xoko hortan.
Ta geroztik ez zira egon erdi lotan,
lokartzea txarra da amentsaren bortan.

Atzokoak atzoko beha geroari,
maitasuna atxikiz elgarren lokarri.
Segi zuen ildo guzien pozgarri,
urrunduen amentsak daudela oinarri.

Panpili ta Marie Claire, gaude harriturik
nolaz ez lehenago elgar aurkiturik.
Elgarrekin zaudezte, zer erran bertzerik?
Ez duzue gu ganik aholku beharrik.

Gogoan ditugula Maddi eta Mattin,
bertze bi ere daude zoin diren ez jakin.
Adixkide esposak, baigaude zuekin,
gerorako bidean goazen elgarrekin.

Herria, 2007.08.02

Ernest Alkat bertsularia

Bertsulariek Euskal Herri hunetan badute beti ta gehiago arrakasta, Mattin eta Xalbador zero hortako bi izar distirantak, eta tenore batez kasik bakarrak, izan zirenez geroztik. Bertsulari bestak egiten dire orai nun-nahi: Irisarri, Itsasu, Baigorri, Aldude, Donibane-Garazi, Arbuti, Heleta, Makea, Ahetze, Ezpeleta, Banka, Bidarra eta beste zenbait herritan. Ez, ez du iduri heien arrakasta ttipitzen dela, kudeatzaile suharrak badi-relarik tokian.

Ahantzi duguia hor Aiherra? Bazkoz, urte guziz, hor dute bertsulariek beren Aberri Eguna kantatzen. Aurten ere bai. Gazte asko hor hasi bait dira, aurten hain zuzen izanen dira hor bertsulari gazte ez-ezagutu batzu ere, bederen bazkarian haundiagoen konpainiatzeko, heiekin ausartatzeko. Hea nor jalgiko zaikun aurten. Itxaro gure berrikerari suharra heietarik da, boza ez izanik ere gizonarena.

Itxarok gaitu hain zuzen hemen laguntzen Ernest Alkat iholdiarra nor eta zer den ikasten. Hau ere noizbait hasi zela eta nola trebatu zen, berak erranen digu. Agian beste gazte askok sinetsiko dute horrekin ez dela bertsulari egina-prestik, baina ariz eta bermatuz dela egiten bertsularia: guziz bere baitan balin badu su bat piztua, sua edo bederen pindar bat...

–Ernest Alkat nor zira?

–Ni naiz familia xume batetako seme bat. Duela hogoi eta zazpi urte, Iholdi Uhartean sortu nintzan, bainan ttikia nintzelarik burrasoekin Mitiñako herrirat joan nintzan, bakantzak bakarrik nintuela aitatxi eta amatxiren etxen, ene sort-herrian

pasatzen... Zorigaitzez aita galdu nuen bederatzi urte nituelarik; haren galtzeak zer zauria egin zautan bihotzean ez ditake asma kasu hortan gertatu gabe.

Neure amak bigarren espos lagun bat hartu zuen eta hura ere galdu zonbait urteren buruko. Sort-herritik urrundua, aita gazterik galdua, haren ordainak mundua uztean, ama nuela kontsolamendua, hasi nuen biziaren gudua...

–Noiztik daukazu bertsutarako nahikeria hori?

–Uste dut hamar hameka urtetarako nahikeria banuela, neure amaren bigarren senarrak argitu ninduen doi bat sail hortan; lehen bertsuak bota nituen anaiari, auzo bati ere eta gero zonbait urtez ez nuen deus egin...

–Nola hasi zinen eta nork lagundurik?

–Otto galdu ginuelarik, Mitiñatik Iholdirat itzuli ginen berriz. Hamabortz, hamasei urte nintuela bertsu kantatzen hasi nintzan eta lagun batek erran zautan Aintzilen ezagutzen zuela bertze gazte bat bertsutan ari zena.

Elgarren zuzenbideak harturik, zenbait hilabetez bertsuak idatzi gintuen elgarri eta egun batez Arrossagarai-ek (hura baitzen delako gazte hori) gomitatu ninduen Aintzileko bestetarat. Han bertsuak kantatu ginituen eta berantxago Ezteren-zubiko bestetan ere izan ginen biak.

Gero Aiherrako erretorak, Emil Larre jaunak, gure berri jakinik bere etxerat gomitatu gintuen eta han ezagutu ginuen Michel Itzaina Euskaltzaleen Biltzarrekoa. Gaur, hemendik behar diozkatet eskerrak bihurtu... Beraz, hola hasi nintzan bertsutan!

–Langilea eta bertsolaria zira: elgarrekin joaiten direa bi gauza horiek?...

–Langile izaiteak gogoeta zonbait egin erazten du bertsulariari, erdaldunen artean bizitzeak emaiten duen bakartasu-

nak bertsutarako gai berezi batzu sortarazten baititu. Langilea ez delakotz bertsulari, bertsulariak izan behar du langile!

–Ameriketan ibili zira bertsu kantatzen. Nolaz hori?

–Herritar batzuen urrezko ezteietan aurkitu nintzan bertsu kantatzeko. Ahal bezain ongi egin nuen lan hori; urrezko espos heien haurren bihotzak ere hunki nituen hain segur, non Ameriketarat gomitatu ninduten. Bizi guzian zordun izango naiz bihotz on horieri...

–Xalbador nor zen zuretzat?

–Xalbador zena zen harroka bezain hotzeko gizon bat, sua bezain beroko bihotz batekin. Baina neretzat profeta bat zen, bertze nehork ez bezala ikusten eta senditzen baitzituen munduaren eta gizonaren harat-hunatak. Bere fede handiak laguntzen zuela, lur huntako bizidun guziak nahi zituen maitasunez elgarri josi...

–Bertsularitzak ba ote du lekurik euskal kulturatan?

–Euskal populurik ez daike euskal kulturarik gabe, eta euskal kulturarik ez daike bertsularitzarik gabe...

–Antzerki bat egin duzula noizbait entzuna dut. Zer zinion hartan?

–Duela zonbait urte bai, antzerki bat egin dut. Gaia zen gure herrietako gizonak urtean bi hilabetez heldu zaizkigun turistak edo kanpotiarrak lagundu nahi dituztela, hoinbertze urte horietan nigarra begian betikotz herritik urruntzen diren gazteak ahantziz.

Neure sort-herriaren maitez ezin jasanezko zonbait gertakari ikusiz egin nuen antzerki hori...

–Gero euskara eta Euskadirentzat?

–Zernahiren mailean erran nezake geroa gerokoeri loturik dagola. Euskal Herria geroan ere euskaldunez egina bada, antzerkiak eta bertsularitzak ere gero on bat izango dute...

–Elkar hizketaren bururatzeko bertso bat, Alkat...

–Mundu hunetan entzuten dela hoinbertze solas alferrik,
bertsularien kanta xumeak bai ote duke indarrik?

Nik nahi nuke gora kantatu noizbait hiltzen naizelarik:

Ahal dutana egin izan dut, ezin dut egin bertzerik...

–Ederki heldu da azkena, Alkat, eskerrik asko eta ikus arte
Euskal Herriko plaza horietan kantari...

Itxaro

Herria, 1979.04.05

Ernest Alkat bertsulariarekin

Bertsularitzak badauka berriz, zenbait urtez parte galdua zuen arrakasta. Huna hemen, jazko Nafarroako bertsulari xapeldun Ernest Alkat-ekin ukan solas-aldia, bertsularitzaz hala ere Euskal Herriaz. Aurtengo xapelduna, aldiz, Mixel Xalbador, beste batez ikusi artean, bixtan dena.

–Ernest Alkat, euskaldunek badakite zarela bertsulari hoberenatarik. Nola jin zaitzu bertsutan hasteko nahia eta nola azkartu duzu dohain hori?

–Ttipi ttipitik ditxoak maite nituen. Norbaitek gauza bat erran eta maite nuen rima berarekin arrapostu emaita. Aita gazterik galdu nuen eta ene amaren bigarren senarrak biziki ateraldi pollitak bazituen ditxolaritzan. Bitiña herrikoa zen eta harekin dut rimaren gustu hori piztu arazi ni baitan.

Erran behar dut ere ene aita zena ez balibazen bertsularia ere, haren hiru anaiek egiten zituztela kantuak eta bertsuak, eta biek publikoan ere arras ederki bat bateko bertsuak botatzen. Zorigaitzez batto zendua da eta bertzeak ez du biziki segitzen bertsularitza. Dohain haundia bazuen eta boz ederra ere; hasi bezala segitu balu, gaurko edozoin bertsulari bezain ona aterako zen, bainan bizia ez da berriz egiten.

Nik, hameka edo hamabi urtetan eman nuen ene lehen berttua Bitiña-ko auzo bati, erranez haren ogi landan ogi baino gehiago “kardo” bazela; gero deus ez nuen erran hamalau edo hamabost urteak arte; Iholdi sort-herrirat itzuli eta hasi nintzan lagunartean bertsu zenbait botatu nahiz, eta familiako bazkari batzuetan ere oseben zirikatzen. Gero jakin nuen Aintzila herrian bazela gazte bat Arrosagaray izenekoa, eta 6 ilabetez astero elgarni bertsuak igortzen ginituen, behin ere elgar ikusi gabe. Aintzi-

la-ko bestetarat gomiatu ninduen, elgar ezagutu, haren etxean bertsutan arizan ginen eta lehen aldikotz Aintzilako plazan kantatu. Orduan, Aiherra-ko erretor zen Emile Larre-k jakin zuen, bazkari bat antolatu eta hola izan zen ene bertsutan hastea.

Nola azkartu dutan dohaina ez dakit, oraino ere azkartze-aren beharra baitaukat, bainan hautua egin dut bertsularitzan gelditzea, hain segur ere hori zautalakotz gehienik gustatzen.

–Zer leku dauka bertsularitzak euskal kulturaren mailan?

–Bertsularitzak leku haundi bat hartzen ari du euskal alo-
rean. Bainan pasaia txar bat ere iragan du. Ostatuko jokotik bizitzako mezularitzarat iragaitea ez da erretxa. Gainerat, Xalbador zena eta Mattin zenaren publikoa zahartu da eta publiko berria ez zen prestatua duela zombait urte oraino. Berriz gaztea euskarari lotzean da ohartu bertsuaren bidez asko gauza egiten ahal zirela, eta gaur egun gazteak du dei egiten bertsulariari, hori baitago bide ona geroari begira.

–Bainan nola senditzen ditutzu partikulazki euskara eta Euskal Herriaren griñak eta asmoak?

–Ene ustez, ez ditalke bertsulari izan hizkuntza eta herria maitatu gabe, kontrakoen zapalkuntzak eta maltzurkeriak salatu gabe, alde guzietarat doatzin herritarrak elgarretaratze-
rat gomiatu gabe; hots, euskalduna eta Euskal Herria euskal-
dunki maitatu gabe.

*–Herritik urrundu euskalkdunetan aurkitzen dira beren herriaren eta mintzairaren amodioa galtzen ez dutenak. Horra nola baden Parisen Euskal Etxe bat, eta ere euskal kul-
tur elkarte bat. Zer gogoeta daukatzu holakoetaz?*

–Herritik urrundu denak ikasi du sofritzen, bertzen mene-
ko egoiten eta bertzeekin bizitzen. Hortakotz da hoin atxikia herritarrari eta herriari, herritik kanpo daudenek eritasun berak dituzte denek eta sendagailu beren gutizia. Ene ustez, jende xumea da bortxatua izan joaiterat eta hura xume geldi-

tu da, eta harek entzuten du beti bere amaren eta odolaren mintzoa. Horra zendako duen holako amodioa sort-herriarentzat. Hori senditu nuen Kalifornian izan nintzelarik eta pentsatzen dut Parisen ere berdin ditaikela. Funtsean, zendako ahalgetu, giren bezala agertzeko nun nahi. gure nortasunarekin, gure hizkuntza eta ohidurekin. Orai artean ere, errespeta-tu eta on-hartu balituzte batzuek euskaldunak ziren bezala edo hobeki erraiteko giren bezala, ez zen beharba hoinbertze kasaila izanen egun Euskal Herrian. Zuek kanpoan eta guk herrian behar dugu aintzina atxiki eta zabaldu herriaren amodioa; ezen elgarrekin ditugu salbatuko gure hizkuntza eta Herria. Herrian edo herritik kanpo euskalduna da euskaldun.

–Bazinukea mezu edo aments berezi bat agertzeko?

–Ez nuen Parise ezagutzen, bainan laborantzako feiria denboran hor gaindi ibili naiz, Irulegiko arno goxoaren saltzen hasi berria bainaiz. Pariseko edergailu guziak baino gehiago estimatu dut anai euskaldun zenbaitekin egoitea, zue-tarik batzuen ezagutzea, kantu xahar eta bertsu berri batzu elgarrekin xaramalatzea.

Nola senditzen dira Parisen sort-herritik jin berriak?
Nork sendatuko egun guzietz haunditzen diren zauriak?
Noiz dauzkgute helaraziko bakezko urtxo xuriak?
Nigarrez dauden bihotz gaztetan piztu ditzagun irriak,
bizi on baten amentsa baitu gur'Ama Euskal Herriak.

–Milesker, Alkat, zure solas-aldi goxo eta baliosaz. Diozun bezala egin dezagun lan, giren lekuan eta gure ahalaren araber, Euskal Herria izan dadien ezagutua eta errespetatua.

Maurice Etchenic
Herria, 1988.04.14





Ernest eta Maite senar-emazteak, beren semeekin:
Pattin, Antton, Xan eta Aguxtin

Aurkibidea

| | |
|--|----|
| Laharragako bertsularia | 7 |
| Eskertu nahirik | 13 |
| Atseginekin dugulakotz jakin | 15 |
| Arrossagaray-en agurrari arrapostu | 17 |
| Esperantza bihotzean | 19 |
| Kaliforniarat joaiten | 21 |
| Xapelduneri. | 23 |
| Orroitzen gira! | 25 |
| Garizuma huntan. | 27 |
| Arrossagaray-i. | 29 |
| Armadatik etxerat | 30 |
| Urrezko ezteiak Iholdin | 32 |
| Joan zaizkiguner | 33 |
| Auzapez zenari | 35 |
| Xalbador Urepelekoari | 37 |
| Xalbador adixkide zenari | 39 |
| Haur batek amentsetarik | 41 |
| Egiari bidea. | 43 |
| Azken gogoetak | 45 |
| Pilota euskal jokoa | 47 |
| Ameriketako anaier. | 49 |
| Aitatxi ta amatxiri. | 51 |
| Semeari | 53 |
| Euskaldungoaz | 55 |
| Orroitzapenen bidetik | 56 |
| Gaixo Erakustegia. | 58 |
| Artaldeen borturatzea | 60 |
| Egun apez berri. | 61 |
| Oiartzungo omenaldirako | 62 |
| Beste on deneri | 63 |
| Ezkila berria | 64 |
| Euskal Herriko G. F. A. M.-etaz. | 65 |

| | |
|--|-----|
| Mattin zendu zenean | 66 |
| Aments bat egin dut | 67 |
| Urrezko ezteiak | 69 |
| Fededunen otoitza | 70 |
| Anai Xalbat Bellemur-en ehorzketan | 71 |
| Eguberriko oihua | 72 |
| Delako <i>Sud-ouest!</i> | 73 |
| Emazteaz | 75 |
| Emaztea | 77 |
| Lurraren hautsetik | 79 |
| 1983-ko Bazko | 80 |
| Kristo Erregearen bestan | 81 |
| Eguberri | 82 |
| Atzokoari behatuz biharkoari so | 83 |
| Arrosa usteldua usainduz | 85 |
| Bozkariozko mezularia | 88 |
| Kanpottiarren salatzeaz | 89 |
| Baloreak | 90 |
| Bazko eskaerak | 92 |
| Bestak jitean | 93 |
| Eguberri eskaerak | 94 |
| Xorien aldaketa | 95 |
| Ongi etorri, Urte Berria | 96 |
| Parisen girenak | 97 |
| Bazko gauez | 98 |
| Herri urrats gogoan | 99 |
| Egiten dautzut eskea | 100 |
| Panpi Laducheri | 101 |
| Ongi etorri, Jesus maitea | 103 |
| Gezurraz | 104 |
| Esperantza gogoan | 105 |
| Kanta dezagun Bazkoa | 107 |
| Germena eta Luis | 108 |
| Europari begira | 110 |
| Herriko erretor aldatze | 111 |
| Urte betetze batentzat | 113 |

| | |
|--|-----|
| Droga gogoan | 114 |
| Luc Minaberry gogoan | 116 |
| Eguberri batez | 117 |
| Martxelin Zubiriri | 118 |
| Jauna, gaude otoitzez | 119 |
| Botzak Angelun | 120 |
| Esker onez Imanoli | 121 |
| <i>Ezpela</i> -ren itzalean | 123 |
| Eskola sartzea gogoan | 124 |
| Biperrari | 125 |
| Bizia | 126 |
| Espos batzueri | 128 |
| Luro hazpandar pilotari ohiari | 129 |
| Laboari | 131 |
| Jean Luis Caussade eta Haika gogoan | 132 |
| Jean Minondo ogi egileari | 133 |
| Presoetaz | 134 |
| Manex zenari | 136 |
| Auzia | 137 |
| Loiolako Iñazio | 139 |
| Espos batzueri | 147 |
| Ideki begiak | 148 |
| Patin zenaren ehorzketan | 150 |
| Biper bestan | 151 |
| Pariseko euskaldunentzat | 152 |
| Parisetik | 154 |
| Argazkia eta ispilua | 155 |
| Aberri egunez | 156 |
| Laka bertsulariaren amaren ehorzketako mezan | 157 |
| Kontseilu jeneralari | 158 |
| Jean Pierre ta Rosali gogoan | 159 |
| Hoinbertze urte, hoinbertze urtez | 161 |
| Ezkontza batean | 162 |
| Aita-ama maiteak | 163 |
| Gogoetak | 164 |
| Daniel Mutuberria gogoan | 166 |

| | |
|--|-----|
| Adartza | 167 |
| Intsumituen alde | 169 |
| Ama Euskal Herriaz | 170 |
| Maurice eta Maddi Sorhuet-i | 172 |
| Espos batzuentzat | 174 |
| Eguberri, Eguberri | 175 |
| Irulegiko irratia | 176 |
| Urte berrikari. | 178 |
| Armendaritze gogoan | 179 |
| Ikastolako begirale bati. | 181 |
| Elinak hogoi urte. | 182 |
| Xan Urbiztondo zenarentzat | 183 |
| Habiabordakoez | 184 |
| Zazpi probintziak | 185 |
| Pilotaz | 186 |
| Heleta | 187 |
| Treina | 188 |
| Euskara | 189 |
| Hautetsiak gogoan. | 190 |
| Lore xuri pollit bat | 192 |
| Jean Mixel ta Mirentxuri | 193 |
| Serora beltxen bestarentzat. | 194 |
| Gora pilota! Gora pilotaria! | 196 |
| Jean Mixel ta Mirentxu. | 197 |
| Ameriketako anai arreberi | 199 |
| Ñapurrentzat | 200 |
| Axular | 201 |
| 2017-garren Herri Urrats | 202 |
| Zendako kantuz. | 204 |
| Korrikaz | 205 |
| Eritasuna zendako. | 206 |
| Graxien Heguy adixkideari. | 208 |
| Emazte arina | 210 |
| Ez lotsa, gaztea! | 211 |
| Herri Urratsek hogoi urte | 213 |
| Xipireneko bestak | 215 |

| | |
|--|-----|
| Amodiozko kantu bat | 216 |
| Gureak gogoan | 217 |
| Oihanen gainetik | 218 |
| Gure bazter ederreri | 219 |
| Amikuzeko ikastolako estrena | 220 |
| Pinpirin bat bezala | 221 |
| Menditik plazara | 222 |
| Goraintzi | 224 |
| Orroit gaiten | 226 |
| Abertzale baten otoitza | 228 |
| Elordoi zain | 230 |
| Laboriari | 231 |
| Biga ziren | 232 |
| Nahi duguna | 234 |
| Erretor ohiaren jubilaua egunean | 235 |
| Maitasunez | 236 |
| Gizon xintxo bati | 237 |
| <i>Sokorri-koeri</i> | 238 |
| Etxola bati | 239 |
| Norbaitek galdaturik egina | 240 |
| Argi bila | 241 |
| Herriko bozkeri begira | 242 |
| Haurren eskubideak | 246 |
| Jemeineko borda izanari | 247 |
| Mixel Tikoiperentzat egina | 249 |
| Mari Añez eta Jeannot-i | 250 |
| Azkenean | 251 |
| Arrain ttiki bat naiz | 253 |
| Irisarriko 2000 garren urteko bestak | 254 |
| Borkatxenbordakoeri | 255 |
| Kantuari esker | 256 |
| Amen besta gogoan | 257 |
| Otto Jakes-i | 258 |
| Neure bizia | 260 |
| Domingo eta Denis | 261 |
| Amodiozko kantua gizon edo emaztentzat | 263 |

| | |
|--|-----|
| Jotea erta porrusdalda | 265 |
| Jean-Pierren 50 urteak! | 269 |
| Lagun galduari | 271 |
| Xabier Amurizari | 271 |
| Margitta zenari | 274 |
| <i>Elgarreki</i> | 275 |
| Ikus arte, Xankilo | 276 |
| Milesker | 277 |
| Arrosako zolatik Sohati kaxkorat | 278 |
| Deserturra eta intsumitua | 280 |
| Sua | 281 |
| Pierre Etchegaray erretor ohiari | 284 |
| Elurrari | 285 |
| Etxea gogoan. | 287 |
| Philippe eta Elizane | 288 |
| Gabriel eta Pauline | 289 |
| Eskerrak, Zeruko Ama | 291 |
| Banaka | 292 |
| Aspaldikoak | 294 |
| Koxe Mari Aranalde zenari. | 296 |
| Hatsa urruntzean | 298 |
| Adixkide bati. | 300 |
| Alkat jaun andereeri | 302 |
| Xarles Uhalde, Goiz Alba bere andrea eta Iholdiar guzieri | 305 |
| Ezterenzubin, urrezko ezteiak. | 308 |
| Ahetze. Panpili eta Marie Claire-ri. | 310 |
| Ernest Alkat bertsularia. | 311 |
| Ernest Alkat bertsulariarekin | 315 |

